- Bigarren kapituluan (*Euskal Unibertsitate Sistema*), Sistemaz eta barruan dauden unibertsitateez gain, sistemak 2010. urteaz geroztik izan dituen aldaketa nagusiak deskribatzen dira: Euskal Herriko Unibertsitateak Tecnaliarekin eta Donostia International Physics Center-ekin batera garatutako Euskampus proiektua Nazioarteko Bikaintasun Campus izendatu izana, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Bordeleko Unibertsitatearen artean Mugaz Gaindiko Campusa eratu izana, eta Deustuko Unibertsitatearen eta Universitat Ramón Llull, Universidad Pontificia Comillas, Georgetown University, Boston College eta Fordham University izeneko unibertsitateen artean Aristos Campus Mundus Nazioarteko Bikaintasun Campusa eratu izana.
- Hirugarren kapituluan (*Europako eta eskualdeko testuinguruan kokatutako estrategia*), 2015-2018ko Unibertsitate Planaren jardun-eremuetan duten eraginagatik kontuan hartu beharreko planak eta araudiak azaltzen dira. Kapituluaren amaieran, Euskal Unibertsitate Sistemak ingurune-analisiari erantzuteko izango dituen erronkak identifikatzen dira.
- Laugarren kapituluan (*2011-2014ko Unibertsitate Planaren ebaluazioa*), aurreko planaren balioespen kualitatibo eta kuantitatiboa egiten da, helburuen lorpenean nolako aurrerapenak egin diren eta aurreikusitako tresnak zer neurritan izan diren baliagarriak kontuan hartuta. Kapituluaren amaieran, 2015-2018ko Unibertsitate Planaren kontuan hartu beharreko alderdiak identifikatzen dira, helburuen lorpenean egindako aurrerapenen arabera.
- Bosgarren kapituluan (*2015-2018ko Unibertsitate Planaren egitura*), Planaren orientazio estrategikoa azaltzen da, honako alderdi hauen ikuspututik: Planak aurrekoekin alderatuta proposatzen duena, Planaren oinarritzko estrategia zehazten duten eginkizuna eta helburuak, eta garatzeko planteatzen diren jardun-ildoak. Kapitulu honetan, azkenik, Plana hedatzeko baliagarriak diren ekintzen tipologia aipatzen da.
- Seigarren kapituluan (*Planaren hedapena, helburu estrategikoaren arabera*), lau helburu estrategikoen jardun-ildoak eta horiek bultzatzeko ekintzak azaltzen dira.
- Zazpigarren kapituluan (*Planaren Gobernantza*), 2015-2018ko Unibertsitate Plana kudeatzeko, koordinatzeko eta jarraipena egiteko organoak, mobilizatu nahi diren finantza-baliabideen plangintza eta

inplementazioa ebaluatzeko jarraipen-sistema (adierazle eta jomugekin) deskribatzen dira.

Dokumentua osatzeko, gobernantza-organoak, 2015-2018ko Unibertsitate Planaren bitartez bultzatzen diren Euskal Unibertsitate Sistemaren barruko unibertsitateen programa-kontratuak eta Ekarpen Arruntaren mekanismoen eta Inbertsioen Urte Anitzeko Planaren jarraipena deskribatzen dira. Dokumentuaren amaieran, akronimoen zerrenda bat dago, edukiak ulertzen laguntzeko.

1 Aurrekariak eta testuingurua

2011-2014ko Unibertsitate Plana Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate guztiak, hots, jarduera eta egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten hiru unibertsitateak (Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea) bildu dituen bigarren unibertsitate-plan integrala izan da.



1-1 irudia. Euskadiko unibertsitate-politiken plangintzaren bilakaera

Euskadiko unibertsitate-politikaren plangintza osoaren ikuspegitik, 2004an Euskal Unibertsitate Sistemaren Legea onartu izanak mugarría jarri zuen politika horretan.

2007-2010eko Unibertsitate Planaren aurretik, Eusko Jaurlaritzak hainbat jardun bultzatu zituen. Jardun horiek lagungarriak izan ziren Euskal Unibertsitate Sistema sortu eta finkatzeko, eta 2004ko Euskal Unibertsitate Sistemaren Legea onartzearen bidez sortu zen². Ildo horretan:

- Aipatutako legea onartu aurretik, 2000-2003ko Unibertsitate Planak Euskal Herriko Unibertsitatea baino ez zuen kontuan hartzen.
- 2004-2006. aldian, unibertsitate publikoarekin hitzartutako programa-kontratuak unibertsitate pribatuetara hedatu ziren. Programa-kontratu guztiak urtebetekoak izan ziren. Orain arte, Deustuko Unibertsitatea Estatuan Administrazio Publikoarekin hitzartutako finantzaketa-esparru bat duen ekimen pribatuko unibertsitate bakarra da.
- 2007. urtetik aurrera, Euskal Unibertsitate Sistemako hiru unibertsitateak biltzen zituzten unibertsitate-plan integralen zikloa hasi zen. 2007-2010eko Unibertsitate Plana eta 2011-2014ko Unibertsitate Plana dira, hain zuzen ere.

² Eusko Jaurlaritzak bultzatutako jardunak 2004. urtera arte urte anitzeko lankidetzak-hitzarmenen plangintza eta lorpenaren ikuspuntutik Euskal Herriko Unibertsitatara mugatu baziren ere, 2000. urtetik aurrera akordio puntualak eta deialdiak egin dira Sistemaren barruan dauden unibertsitate guztiekin.

Unibertsitate-eremuko politika publikoaren hasiera kontuan hartuta (2000. urtean), ikus daiteke euskal unibertsitateei emandako babesak bilakaera bat izan duela unibertsitate publikoa baino kontuan hartzen ez zuen ikuspegi batetik publikoak ez diren unibertsitateak barnean hartzen dituen beste ikuspegi zabalago batera, Euskal Unibertsitate Sistemaren Legearen onarpenak bultzatuta. Bilakaera horri esker, programa-kontratuen bitartez gauzatutako urteko akordio puntualen ordeztu, urte anitzeko harreman-esparru bat ezarri ahal izan da.

Gaur egun, hiru ekintza mota ditu finkatuta 2011-2014ko Unibertsitate Planak: Sistemako ekintzak, ekintza itunduak eta Unibertsitate Sistema Publikoari laguntzeko oinarritzko ekintzak³; era horretan, agente guztiek barneratu duten erreferentzia-esparru operatibo bat sortu da.

Europar unibertsitate-irakaskuntzako esparru komun bat sortzeko Boloniako prozesua zabaldu zen aldi berean, bi erreferentzia nagusi izan ditu 2011-2014ko Unibertsitate Planak: Euskal Unibertsitate Sistemaren nazioartekotzean aurrera egitea eta Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura (GHEE) eta Europako Ikerketa Esparrura (EIE) egokitze prozesua finkatzea, eta Euskal Unibertsitate Sistema goi-mailako hezkuntzako erakundeen hirugarren eginkizunarekin konpromisoa hartzea, enpresa-sarerako transferentzia bereziki kontuan hartuta. Lehena 2007-2010eko Unibertsitate Planak irekitako lan-ildoari lotuta dago, eta bigarrenak, berriz, ordura arte behar bezala bultzatu gabeko jardun-eremu bat ireki du, Unibertsitate Sistemaren apustu propio gisa.

Aipatutako aurrekarietatik abiatuta, 2015-2018ko Unibertsitate Planak Euskal Unibertsitate Sistemarekiko ikuspegi partekatua proposatzen du. Ikuspegi hori unibertsitateekin adostu da orientazio estrategikoari, jardun-ildoei eta jomuga kuantitatiboen ezarpenari dagokienez. Proposamenak Unibertsitate Sistemako agenteen eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren artean, eta azken horren (2015-2018ko Unibertsitate Planaren arduradun nagusi gisa) eta Eusko Jaurlaritzaren beste sail batzuen artean itundu dira.

³ Sistemako ekintzak unibertsitate-eremuko interes-talde guztientzat irekita dauden jardunak dira (ikasleentzat, ikertzaileentzat, ikerketa-taldeentzat, administrazio eta zerbitzu-taldeentzat, enpresentzat eta abar). Ekintza itunduak, berriz, programa-kontratuen bidez antolatutako urte anitzeko lankidetzak-hitzarmen edo lankidetzak-akordioetan jasotako jardunak dira. Azkenik, Unibertsitate Sistema Publikoari laguntzeko oinarritzko ekintzak Euskal Herriko Unibertsitatearen jarduerari eusteko ekintzak dira. Azken horiek bi tresna dira praktikan: Ekarpene Arrunta eta Inbertsioen Urte Anitzeko Planerako babesa.

2 Euskal Unibertsitate Sistema

Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legea Euskal Unibertsitate Sistemaren erreferentzia nagusia da. Legea gizartearentzako zerbitzuaren, unibertsitate-autonomiaren eta funtzionamendu demokratikoaren printzipioetan oinarrituta sortu da, eta 2015-2018ko Unibertsitate Plana egiteko arau-oinarria izan da, Planaren norainokoa, oinarritzko edukiak eta helburu orokorrak finkatzen baititu.

Euskal Unibertsitate Sistemaren Legeak ezartzen duenez, *“Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egoitza duten unibertsitate guztien artean osatzen dute unibertsitate-sistema, eta Eusko Legebiltzarrak etorkizunean sortu zein onar ditzanak ere sistema horretan batera bilduko dira”*.

Legeak funtsezko helburu gisa finkatzen du Euskal Unibertsitate Sistema Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan txertatzea. Halaber, *“lehentasunezko harremanak ezarriko dira Euskal Herrian kokaturiko gainerako unibertsitateekin”*, adierazitako unibertsitate-erakundeetako ikasleen eta irakasleen artean irakaskuntza, ikerketa, kultura-jarduerak eta mugikortasuna koordinatzearen bidez, eta, espezifikoki, *“lankidetzaz sustatuko da euskararen kultura partekatzen duten beste lurralde batzuetan kokaturiko beste unibertsitate-erakunde batzuekin”*, euskararen erabilera sustatzeko xedez.

Erreferentzia horiekin, eta arau-ikuspuntutik, Euskal Unibertsitate Sistema hiru unibertsitateek osatzen dute gaur egun: Euskal Herriko Unibertsitateak, Deustuko Unibertsitateak eta Mondragon Unibertsitateak.

Euskal Unibertsitate Sistema osoak 69.100 ikasle, irakaskuntza eta ikerketako 6.456 langile eta administrazio eta zerbitzuetako 2.570 langile baino gehiago mobilizatzen ditu.

	Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV / EHU)	Ikasleak: 56.820 IIL: 5.507 AZL: 1.895	EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMA 3 unibertsitate • Ikasleak: 69.100 • IIL: 6.456 • AZL: 2.570
		Universidad de Deusto / Deustuko Unibertsitatea (UD / DU)	
		Mondragon Unibertsitatea (MU)	

2-1 irudia. Euskal Unibertsitate Sistema

Iturria: Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateak. 2013-2014 ikasturtea.

Oharra: irakaskuntza eta ikerketako langileen (IIL) zifrek zein administrazio eta zerbitzuetako langileenek (AZL) langileen guztizkoak adierazten dituzte, arduraldi-maila kontuan hartu gabe

EUSEko hiru unibertsitateek ezaugarri eta dimentsio desberdinak dituzte. UPV/EHUk ditu ikasle gehien, eta berarena da produkzio zientifikoaren zatirik handiena.

Euskal Herriko Unibertsitatea unibertsitate publikoa eta ikertzailea da, euskal gizartean errotuta dago, eta nazioarteko bokazioa, lidergo intelektuala eta konpromiso etiko eta soziala ditu. Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate publiko bakarra da, eta graduako eta graduondoko ikasketen eskaintza zabala du jakintzaren adar guztietan. Edonola ere, Zientzia Esperimentaletako eta Osasun Zientzietako titulazioen eskaintza eskusiboa azpimarratu beharra dago. Eskaintza horren helburua honako hau da: gure gizarteak unibertsitate-prestakuntzari dagokionez dituen premiei erantzungo dien eta Graduako, Masterreko, Doktoregoko eta Etengabeko Prestakuntzaren egitura berriarekin bateragarria izango den kalitateko prestakuntza eskaintzea.

Dimentsioa kontuan hartuta, Euskal Herriko Unibertsitatea Espainiako Unibertsitate Sistemaren barruko sei unibertsitaterik handienetako bat eta Euskal Unibertsitate Sistemako handiena da. Izan ere, 56.000 ikasle baino gehiago, irakaskuntza eta ikerketako 4.384 langile (%70 baino gehiago doktore-tituluarekin), ikertzaile gisa kontratatutako 1.123 pertsona eta administrazio eta zerbitzuetako 1.863 pertsona ditu. Euskal biztanleriaren giza kapitalaren hamarrena baino gehiago prestatu du. Ikerketari eta gizarterako transferentziari dagokionez, Euskal Herriko Unibertsitatea oinarritzko agentea da ikerketa, garapen eta berrikuntzako euskal sisteman.

Azken hiru urteetan, munduko 500 unibertsitaterik onenen artean kokatu da Shangaiko sailkapenean. Horrela, beraz, hezkuntza-eskaintza zabala, maila handiko ikerketa-jarduera, campus anitzeko antolamendua eta lurralde anitzeko ezarpena duen unibertsitatea da. Euskal Herriko Unibertsitatea eta Bordeleko Unibertsitatea Euroeskualdeko Campus bat sortzen ari dira, goi-mailako hezkuntzaren, jakintzaren ekonomiaren eta berrikuntzaren eremuan diharduten agenteen artean nazioarteko ospea izango duen goi-mailako prestakuntzako eta bikaintasun-ikerketako esparru bat osatzeko lankidetzaren elementu nagusi izan dadin.

Deustuko Unibertsitatea (1886) gizarte-ekimeneko unibertsitatea da, eta Jesusen Konpainiaren 200 unibertsitatek osatutako munduko sarean –Jesuit Higher Education Sector– eta Aristos Campus Mundus Bikaintasun Campusean (Comillas, Ramón Llull, Georgetown, Boston College eta Fordham unibertsitateekin batera) sartuta dago.

Deustuko Unibertsitateak, gizarteari zerbitzu publikoa eskaintzeko euskal bokazio eta bokazio unibertsal batetik abiatuta, honako hauekin bere gain hartutako konpromisoa azpimarratu nahi du: justizia sozialarekin, pertsonen profesional trebe eta herritar konprometitu izateko behar duten prestakuntza integralaren bitartez (balioak, gaitasunak eta jakintzak); kalitateko ikerketarekin, pertsonen ongizatean eta unibertsitate-ongizatean laguntzen duten proiektuak bereziki kontuan hartuta; eta giza garapen iraunkorarekin, gizarteak dituen gero eta erronka konplexuagoei erakunde, enpresa eta gizarte-erakundeekin lankidetzan garatutako berrikuntza teknologiko, ekonomiko, sozial eta hezkuntza-arlokoaren bitartez erantzunez.

Proiektu hori lortzeko, 700 irakasle eta ikertzailez, administrazio eta zerbitzuetako 500 teknikariz eta 11.500 ikaslez (graduako 7.000, graduondoko –master eta doktoregoko– 2.000, eta bizitza osoko prestakuntzako –prestakuntza jarraituko eta etengabeko prestakuntzako– 2.500) osatutako unibertsitate-komunitatea du. Honako arlo hauetan espezializatuta dago: Ingeniaritza eta Teknologia; Zuzenbidea; Ekonomia eta Enpresa Zientziak; Psikologia, Osasuna eta

Hezkuntza; Giza eta Gizarte Zientziak; eta Teknologia. Bilboko eta Donostiako campusez gain, Madrilgo egoitza du.

Mondragon Unibertsitatea ere pribatua da, baina egitura juridiko berezia eta bakarra du, kooperatiba baita. Onura publikoko eta irabazi-asmorik gabeko unibertsitatea da, unibertsitate-irakaskuntzako proiektu propio bat kapitalizatzen du, eta bere idiosinkrasiak inguruko enpresa-sarearekiko (eta, bereziki, parte den Mondragon Korporazioarekiko) hurbiltasuna du ezaugarri bereizgarri. 1997. urtean eratu zen, ibilbide luzea zuten hiru hezkuntza-kooperatibak sustatuta. Hasieran, irakaskuntza teknikoetan eta ingeniartzetan, enpresen kudeaketa, administrazio eta zuzendaritzaren eremuan eta hezkuntza-eremuko eta maisutzako profesionalen prestakuntzan espezializatu zen, eta ikus-entzunezko komunikazioaren, ekintzailetzaren eta gastronomia-zientzien eremuetara zabaldu zen geroago.

Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitaterik gazteena eta espezializatuena da. Titulazio ofizialetako graduako eta graduondoko 4.080 ikasle, etengabeko prestakuntzako 5.800 ikasle/profesional, eta beste 400 profesional (irakasleak, ikertzaileak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak) ditu. Lurralde-erarenaren ikuspuntutik, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan egiten duen jarduera Gipuzkoara eta Bizkaira mugatuta dago. Lau fakultate ditu, 8 campusetan banatuak (Arrasate, Oñati, Eskoriatza, Aretxabaleta, Ordizia, Donostia, Irun eta Hernaniko campusak), baita Berrikuntza Faktoria bat ere, Bilbon.

Osorik hartuta, eta osatzen duen unibertsitate bakoitzak bere merkatu-nitxo bat nahi izanik, euskal gizartea garatzeko eta aberastasuna sortzeko eragile nagusietako bat da Euskal Unibertsitate Sistema, eta honako hauek eskaintzen dizkio euskal gizarteari:

- Arteen, giza zientzien, gizarte-zientzien eta zientzia esperimentalen ia espektr osoa, eta ehuneko handi batean osasun-zientzien eta zientzia teknologikoen espektra betetzen dituen irakaskuntza-eskaintza.
- Euskarazko irakaskuntza-eskaintza. 80ko hamarkadaren hasieratik garatu da ahalgin espezifiko handi baten bidez, eta eskaintako graduako kredituen %34ra eta masterreko kredituen %3ra iritsi da Deustuko Unibertsitatean, eskaintako kreditu guztien %77ra Euskal Herriko Unibertsitatean, eta eskaintako kreditu guztien %70 baino gehiagora Mondragon Unibertsitatean.
- Ingeleseko irakaskuntza-eskaintza. Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateen nazioartekotzeari erantzuten dio, Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan txertatzeko helburuarekin, eta graduako eta masterreko kreditu guztien %6,5era eta %15era iritsi da, hurrenez hurren, Euskal Herriko Unibertsitatean, graduako kreditu guztien %16ra Mondragon Unibertsitatean, eta graduako eta masterreko kreditu guztien %23,7ra eta %31,5era, hurrenez hurren, Deustuko Unibertsitatean.
- Euskadin 2014an sortutako guztiaren %59,74ra iristen den produkzio zientifikoa. 2004. urtearekin alderatuta, %58,55eko igoera izan du. Igoera hori bereziki garrantzitsua da, ikerketa kooperatiboko zentroen (CIC) eta oinarritzko eta bikaintasunezko ikerketa-zentroen (BERC) sendotzea eta

ikerketa aplikatuko korporazio teknologikoen jarduera esanguratsua kontuan hartuta.

- Kalifikazio-maila handiko profesionalen mintegia. Gaur egun, goi-mailako ikasketak egiten dituzten 18-25 urteko euskal biztanleen herenak baino gehiago hartzen ditu, eta 25-64 urteko biztanleen %45 prestatu du. Horri esker, hirugarren hezkuntzako ikasketak dituzten biztanleen ehunekorik handieneko herrialde eta eskualdeen artean kokatuta dago Euskadi.

Euskal Unibertsitate Sistema nabarmen aberastu da 2011. urtetik aurrera, Euskal Herriko Unibertsitateak zuzendu zuen eta Unibertsitate Publikoaren, Tecnaliaren eta Donostia International Physics Center (DIPC) izenekoaren arteko aliantza estrategikoaren ondorioz sortu zen *Euskampus* proiektua Nazioarteko Bikaintasun Campus izendatu zenean. *Euskampus* proiektuak Euskadiko erronka sozial eta ekonomikoei erantzuten die agenteen arteko lankidetzaz-ikerketaren bidez. Gainera, jakintzaguneen bitartez, espezializazio adimendunaren estrategiarekin lotzen du unibertsitatea.

Euskampus ekimenak eta Bordeleko Unibertsitatearen Nazioarteko Bikaintasun Campusak (Idex) bi unibertsitateen arteko aliantza estrategikoa sustatu zuten 2012. urtetik aurrera, eta, horren ondorioz, bi unibertsitateen arteko Mugaz Gaindiko Campusaren (EHUBAQ) eraketa sustatzen zuen hitzarmen bat sinatu zuten 2014ko azaroan. Campus horren berehalako helburuak honako hauek dira: baterako tituluen sorkuntza, doktorego-tesien baterako tutoretza, eta bi unibertsitateetako taldeen arteko baterako ikerketa.


Era berean, Deustuko Unibertsitateak Euskal Unibertsitate Sistemaren nazioartekotzean lagundu du *Aristos Campus Mundus 2015* proiektuan parte hartzearen bidez. Proiektu horretan, gizarte-ekimeneko hiru unibertsitate elkartu dira (Deustuko Unibertsitatea, Comillasko Unibertsitatea eta Universitat Ramon Llull izenekoak), eta Georgetown University, Boston College eta Fordham University izeneko unibertsitateekin dihardute lankidetzan estrategikoki.

Azken batean, Euskal Unibertsitate Sistemaren fisionomia berriak agente-sare aberats bat agertzen du. Sare hori profil heterogeneoko unibertsitateez osatuta dago; horietako bat unibertsitate publikoa da, eta beste biak, berriz, unibertsitate publikoarekin zein elkarren artean alderatuta oso ezaugarri desberdinak dituzten unibertsitate pribatuak. Sistemak, gainera, jarduera-bolumenagatik, zuzeneko eraginagatik, profesionalen prestakuntzan eta jakintza zientifiko eta teknologikoaren sorkuntzan egindako ekarpenagatik eta gizartean duen presentziagatik Euskadirentzat estrategikoa den jarduera bat garatzen du. 2015-2018ko Unibertsitate Planak maximizatu egin nahi du adierazitako ekarpen hori. Horretarako, gaur egun eskuragarri dagoen ahalmen guztia baliatu nahi du, eta etorkizunean eragin handiagoa izateko erabakiak aurreratu nahi ditu.

3 Europako eta eskualdeko testuinguruan kokatutako estrategia

2015-2018ko Unibertsitate Planak bere garapenean eragina izango duten hainbat ingurune-elementu hartzen ditu kontuan. Zenbait kasutan, Unibertsitate Sistemak azken urteotan izan duen bilakaerari lotutako elementuak dira. Beste batzuk, berriz, testuinguru aldakor bat agertzen duten alderdi eta dinamika berriagoak dira.

Gaur egun neurri handiagoan edo txikiagoan Euskal Unibertsitate Sistemaren funtzionamenduan ondorioak dituzten eta etorkizunean ere izango dituzten nazioarteko, Europako Erkidegoko, Estatuko eta Euskadiko hainbat plan eta araudi daude.



3-1 irudia. Euskal Unibertsitate Sistemaren ingurune-elementuak 2015-2018 aldian

Iturria: geuk egina

Nazioartean, Europan, Estatuan eta Autonomia Erkidegoan **ingurune-elementu horiek identifikatu eta aztertzea** ezinbestekoa da Euskal Unibertsitate Sistema zer egoeratan dagoen jakiteko eta egin beharreko estrategia eta jardunak garatzeko.


Eusko Jaurlaritzak herritarrekin bere gain hartutako konpromiso nagusiak hazkunde iraunkorra, giza garapena eta hazkunde adimenduna dira. Konpromiso horiek X. legegintzaldiko gobernu-programaren bidez egituratuta daude.

2015-2018ko Unibertsitate Plana giza garapenaren ardatzari lotuta dago, eta herrialdeko helburuak prestakuntzaren, ikerketaren eta gizarteari jakintza helaraztearen bidez lortzen laguntzeko Euskal Unibertsitate Sistemak egin beharreko jardunak bultzatzen ditu.

Enpleguaren eta hazkunde iraunkorraren ardatzari lotutako planei dagokienez, 2015-2018ko Unibertsitate Plana zientziaren, teknologiaren eta prestakuntzaren

bitartez egiten duen ekarpenaren bidez dago lotuta horiekin. Ardatz horren barruan, 2020ko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana eta 2014-2020ko Enplegu Plana dira erreferentzia nagusiak.

Bake eta bizikidetzaren eta giza garapenaren ardatzetako planei dagokienez, 2015-2018ko Unibertsitate Planak bere egiten ditu horien printzipioak bere jardunak egitean, eta proiektatzen dituzten balioen inguruko prestakuntza eskaintzen du. Kasu horretan, 2015-2018ko Unibertsitate Planak plan horien preskripzioak sustatzen ditu bultzatzen dituen ekintzetan, eta Euskal Unibertsitate Sisteman behar bezala garatuko direla bermatzen du.



3-2 irudia. Hazkunde iraunkorrerako, giza garapenerako eta hazkunde adimendunerako esparru estrategikoa

2015-2018ko Unibertsitate Planak enpleguaren eta hazkunde iraunkorraren ardatzeko planei egindako ekarpenari dagokionez:

- **2020ko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana.** 2015-2018ko Unibertsitate Planaren jardun asko bat datoz 2020ko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak bultzatutakoekin. Plan horren helburua, hain zuzen ere, ikerketan berrikuntza neurri handiagoan aplikatzea eta I+G+Bko jardura emaitzetara bideratzeko zientzia-munduaren eta enpresa-munduaren arteko lankidetzaren areagotzea da. Emaita horiek enpresa- eta gizarte-eskariei erantzun behar diete, eta Euskadik dituen erronka handiei aurre egiten lagundu behar dute, hori lagungarria izango baita enplegua eta aberastasun ekonomiko eta soziala sortzeko. Horrela, beraz, 2015-2018ko Unibertsitate Planaren bidez Euskal Unibertsitate Sisteman garatu nahi diren gaitasunei esker, Sistema horrek zeregin proaktiboa beteko du

bi planen inplementazioan, aditu/zientzialari gisa ez ezik, betearazpenean erabat inplikaturako agente gisa ere bai. Bi planen bateratzeak arrakasta izateko, RIS3 estrategian ezarritako herrialde-lehentasunetara egokitu beharra dago.

- **Euskadi Nazioartekotzeko Plan Estrategikoa.** 2015-2018ko Unibertsitate Planak Nazioarteko Plan Estrategikoaren helburuak lortzen laguntzen du kanpora irekitzearen eta beste herrialde batzuetako errealitateak, balioak eta lan egiteko moduak ezagutzearen bidez, ikasleak eta ikertzaileak mugitu eta erakarrita, eta herrialde-marka sortuta. Ildo horretan, EHUBAQ Mugaz Gaindiko Campusaren proiektua sustatuko da unibertsitate-arloan.
- **Akitania-Euskadi Plan Estrategikoa.** 2015-2018ko Unibertsitate Planaren bidez bultzatu nahi den nazioartekotzeak aukera-eremu handia du Akitania-Euskadi Plan Estrategikoan. Izan ere, Plan Estrategiko horren ardatza Bordeleko Unibertsitatearen eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko aliantza estrategikoa da (EHUBAQ). Proiektu horrek Akitania-Euskadi-Nafarroa Sareko unibertsitateen arteko lankidetzaren antolatu eta bultzatuko duen gunea egituratuko du. Unibertsitate horien arteko lankidetzaren 1991. urtean hasi zen, eta areagotu egingo da Mugaz Gaindiko Campusaren eraketari esker.
- **Euskadi 2020 Agenda Estrategikoa.** Euskadi 2020 Agenda Estrategikoak Euskadik ikerketarako esparru-programan parte-hartzeari dagokionez dituen helburuak eta itzulkinak finkatzen ditu, eta *Horizon 2020* programarako proiektatutako itzulkin-maila era esanguratsuan handitzen du, aurrekoarekin alderatuta.
- **2014-2017ko Ikerbasque Plan Estrategikoa.** Plan horretan, 2017an Euskal Zientzia Sisteman 7.000 artikulua indexatura iristeko jomuga dago finkatuta, eta autonomia-erkidegoen sailkapenean bosgarren tokian dago produkzio-bolumen absolutuari dagokionez.
- **2014-2016ko Enplegu Plana.** 2015-2018ko Unibertsitate Planaren bidez, konpromisoa hartu da enplegarritasunarekin, profil egokiak prestatzearen eta bizitza osoko prestakuntzaren bidez.
- **2014-2016ko Industrializazio Plana.** Zientziaren, teknologiaren eta prestakuntzaren bitartez eskulangintza-sektoreek dituzten berrikuntza-premiei erantzutea du helburu 2015-2018ko Unibertsitate Planak.
- **Ingurumeneko IV. Esparru Programa.** 2015-2018ko Unibertsitate Planak jakintzan oinarritutako soluzioen ekarpenaren, prestakuntza zientifiko eta teknologikoaren eta balioetan oinarritutako prestakuntzaren bitartez lagunduko du.
- **2014-2016ko Berrikuntza Publikoaren Plana.** Berrikuntza-plan horren helburuekin bat eginik, unibertsitateko biztanleriarekin eta gizartearekin harremanetan jartzeko bideen eta zerbitzuen modernizazioa erraztuko duten jardunak bultzatuko ditu 2015-2018ko Unibertsitate Planak (IKT tresnak baliatzea eta abar).

2015-2018ko Unibertsitate Planak bake eta bizikidetzaren eta giza garapenaren ardatzetako planei egindako ekarpenari dagokionez:

- **2013-2016ko Bake eta Bizikidetzeta Plana eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana.** 2015-2018ko Unibertsitate Planak bere egiten ditu bake eta bizikidetzaren eta genero-berdintasunaren eremuetan ezarritako balio, printzipio eta jomugak, eta horiek errespetatu eta bultzatzeko jardunak proposatzen ditu.
- **Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa.** 2015-2018ko Unibertsitate Planak hainbat soluzio eskaintzen ditu, jakintzan eta profesionalen prestakuntzan oinarrituta.
- **Lanbide Heziketako IV. Euskal Plana.** 2015-2018ko Unibertsitate Planaren bidez, prestakuntza-eskaintzak dibertsifikatu egin nahi dira. Horretarako, goi-mailako prestakuntzaren irakaskuntza-ereduak lanbide-heziketara eta lanbide-heziketaren ikaskuntzaren ikuspegi praktikoa unibertsitate-prestakuntzara eraman ditzaketen titulazio hibrido berri batzuk proposatzen dira.
- **2013-2020ko Osasun Plana.** 2015-2018ko Unibertsitate Plana osasun-planari lotuta dago profesionalen eta ikertzaileen prestakuntzaren zein ikerketa biosanitario eta traslazonalaren bitartez.
- **Euskararen Agenda Estrategikoa.** 2015-2018ko Unibertsitate Plana bat dator Agendak ezarritako helburuekin, eta euskara unibertsitate-hizkuntza izatea sustatzen du.

Europako RIS3 metodologiak trazio-izaera ematen die unibertsitate, ikerketa-zentro, enpresa eta industriei lehentasun estrategikoak identifikatzeko garaian. **Euskadiraiko RIS3 espezializazio adimendunaren** prozesuan hautatutako lehentasun estrategikoen bidez, sinergia nabarmenak identifikatu dira eskualdeko produkzio-ahalmenen, ikerketaren eta berrikuntzaren artean. Halaber, gizarte-eta enpresa-eskariaren hazkundeari lotutako beste aukera-nitxo batzuk deskribatu dira, eta baliabideen arreta eta kontzentrazio handiagoa justifikatuko duten aurrerapen batzuk egin ahal izango dira etorkizun hurbilean.

Aldez aurreko analisitik abiatuta, honako lehentasun bertikal hauek identifikatu dira (lehentasun estrategikoak eta aukera-nitxoak bereizten dira):

- **Lehentasun estrategikoak:** Fabrikazio aurreratua, energia eta biozientziak/osasuna.
- **Lurraldeari lotutako aukera-nitxoak:** nekazaritzako elikagaien industria, lurralde-plangintza eta hiri-eraberritzea, aisiari, entretenimenduari eta kulturari lotutako nitxo jakin batzuk, eta ekosistemei lotutako jarduera espezifikoak.

Euskal Unibertsitate Sistemak ekarpen handiak egin ditzake lehentasun estrategiko eta aukera-nitxo horiek garatzeko. Lehentasun horiek aitortzeko eta trebakuntza, prestakuntza, ikerketa eta gardentasunean oinarrituta lantzeko beharra dela-eta, funtsezko agentea da lehentasun horiek garatzeko.

Europar, Boloniako Adierazpenak **Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua** eraikitzeke oinarriak finkatu ditu. Esparru hori printzipio jakin batzuei jarraiki antolatuta (hala nola kalitateari, mugikortasunari, aniztasunari eta lehiakortasunari) eta, besteak beste, bi helburu estrategiko lortzera bideratuta dago: Europako Batasunean enpleguak gora egitea eta goi-mailako prestakuntzaren Europako sistema munduko beste leku batzuetako ikasleak eta irakasleak erakartzeko gune bihurtzea.

Illo horretan, Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruari jarraiki, mugikortasuna sustatu, ikasleek, irakasleek eta administrazio eta zerbitzuetako langileek askatasun osoz mugitzeko oztopoak gainditu, eta titulazioei dagokienez erraz ulertu eta konparatzeko moduko sistema bat aukeratu behar da, Tituluaren Europako Gehigarria ezartzearen eta unibertsitateetan ikerketa sendotzearen bidez.

Ikerketa-politika komun bat sortzeko asmoz, Europar Batasunak estatu kideetan zein Erkidegoaren eremuan ikerketa- eta berrikuntza-jarduerak behar bezala koordinatzeko dituen baliabide guztiak biltzen ditu **Europako Ikerketa Esparruak**.


Europako Ikerketa Esparruak hiru kontzeptu konbinatzen ditu: ikerketaren barne-merkatu baten sorkuntza, Europako ikerketa-sarearen berregituratzea, eta Europako ikerketa-politika baten sustapena. Europako Ikerketa Esparruan parte hartzeak aukera ematen du Europako zientzia- eta teknologia-erakunderik garrantzitsuenekin harremanetan egoteko, beste herrialde eta eskualde batzuetako agente bikainekin lankidetzan jarduteko, barne-ahalmena, kanpoko agenteekiko harremana eta nazioartekotzeko bokazioa islatzeko eta finantzaketa-bolumen handia lortzeko.

Aukera hori bere osotasunean baliatzeko, Euskal Unibertsitate Sistemak aktiboki hartu behar du parte Europako Ikerketa Esparruan, eta Euskal Berrikuntza Sistemaren presentzia zuzentzen saiatu behar du.

Lisboako Estrategiaren ondorengoa den **Europa 2020** estrategiak Europako XXI. mendeko merkatu-ekonomia sozialaren ikuspegi bat zehazten du. Hazkunde adimendun, iraunkor eta integratzaile baten bidez enplegu, produktibitate eta gizarte-kohesioko maila handiak izango dituen ekonomia bat lortzea proposatzen du.

Helburu horiek jomuga kuantitatibo jakin batzuetan zehazten dira, hala nola Europar Batasuneko BPGaren %3ra iritsiko den I+Gko inbertsio bat lortzea, eskola-porrota %10 baino txikiagoa izatea, eta goi-mailako irakaskuntza amaitu duten 30-40 urteko biztanleen ehunekoa 2020an gutxienez %40ra iristea.

Europa 2020 estrategia hedatzeko, zazpi ekimen daude. Horien artean, "Berrikuntzaren aldeko batasuna" izenekoak I+G+Bko politikak antolatzeke orientazio nagusia ezartzen du, eta **Horizon 2020** du horiek egikaritzeko tresna nagusi. Horizon 2020 programak ikerketaren finantzaketa guztia eta Europar Batasunak gaur egun eskaintzen duen berrikuntza biltzen ditu, eta, bereziki, Ikerketako Esparru Programa, Berrikuntza eta Lehiakortasunerako Esparru Programaren berrikuntzari lotutako jarduerak, eta Berrikuntza eta Teknologiako Europako Institutua (EIT).



3-3 irudia. Europa 2020 estrategiaren inguruko Europako esparru programatikoa

Horizon 2020 programaren helburua jakintza eta berrikuntza oinarritutako ekonomia bat eraikitzen laguntzea da. Helburu orokor hori lortzeko, hiru lehentasun ezarri dira: bikaintasun-zientzia, industria-arloko lidergoa eta gizarte-erronkak. Lehentasun bakoitzak hainbat helburu espezifiko ditu:

- **Bikaintasun-zientzia.** Europako oinarri zientifikoaren bikaintasun-maila handiagotzea eta mundu osoko ikerketa-fluxu egonkorra ziurtatzea, Europaren epe luzerako lehiakortasuna bermatzeko.
- **Industria-arloko lidergoa.** Europa ikerketan eta berrikuntzan (ekoberrikuntza barne) inbertitzeko leku erakargarriagoa izan dadin lortzea, eta sustatzen diren jardueretan agendak enpresek finkatzea.
- **Gizarte-erronkak.** Europa 2020 estrategiaren lehentasun politikoei erantzutea eta Europako eta beste leku batzuetako herritarren kezka handiak aztertzea.

Horizon 2020 programa funtsezko tresna da **Europako Ikerketa Esparrua** eraikitzeko eta behar bezala egituratzeko, eta genero-arloko jarraibide garbiak ezartzen ditu funtsezko bi alderdiren inguruan:

- Emakumeei karrera zientifiko gogobetegarri bat egitea eragozten dieten oztopoak kentzen lagunduko duten ekimenak bultzatzea.
- Emakumeek kontsulta-egituretan parte hartzea eta sexuen arteko desberdintasunak proposamen-deialdien edukian eta, bidezkoa denean, ebaluazio-prozesuetan islatuta geratuko direla bermatzea.

Jarraibide horien bidez, ikerketaren eta berrikuntzaren kalitatea hobetzea eta Europako lehiakortasuna eta hazkunde ekonomikoa hobetzeko beharrezkoak diren esperientzia eta kalifikazio handiko zientzialarien egungo defizita zuzentzea bilatzen du Horizon 2020 programak. Horri dagokionez, bere kontsulta-egituretan emakumeen parte-hartzea %40ra iristeko helburua lortzeko konpromisoa hartu du Batzordeak.

Horizon 2020 programan planteatzen diren jomugen osagarri gisa, eta Europa 2020 estrategian planteatzen diren jomugak lortzeko asmoarekin, herrialde eta eskualde kideek beren **espezializazio adimenduaren estrategiak** zehaztu behar dituztela adierazi du Europako Batzordeak.

Espezializazio adimendunaren estrategiak (*Smart Specialisation*) frogatzeko moduko lehiakortasun-abantailak eskaintzen dituzten eremuen aukeraketan oinarritutako leheneste-jardunak dira⁴. Estatuko eta eskualdeko apustu sektorial eta teknologikoen identifikazio hori kontuan hartu beharreko funtsezko erreferentzia da, Estatuko eta eskualdeko baliabideen banaketari dagokionez ez ezik, Erkidegoko baliabideenari dagokionez ere bai.

Europa 2020 estrategiaren helburuak lortzeko esparru-dokumentuek azpimarratzen dutenez, unibertsitateen nazioartekotzea bultzatu beharra dago, graduoko eta graduondoko prestakuntzaren eta ikerketaren kalitatea hobetzeko palanka izan dadin.

2015-2018ko Unibertsitate Plana zehazten duten Estatuko araudi, estrategia eta plan nagusiak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Legeari, Unibertsitateen Lege Organikoari, 2020ko Zientzia eta Teknologiako eta Berrikuntzako Espainiako Estrategiari eta 2013-2016ko Ikerketa Zientifiko eta Teknikoko eta Berrikuntzako Estatuko Planari lotuta daude.

Ikerketa, garapen esperimental eta berrikuntza Espainiako garapen ekonomiko iraunkorraren eta gizarte-ongizatearen oinarri izan behar duten elementu gisa sustatzeko funtsezko helburuarekin, **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren ekainaren 1eko 14/2011 Legeak** ikerketa zientifiko eta tekniko sustatzeko esparrua eta koordinazio orokorreko tresnak ezartzen ditu.

Helburu nagusiak honako hauek dira: ikerketa sustatzea, transferentzia bultzatzea, politika guztiak koordinatzea, erakundeen sendotzea hobetzea, ikertzaileen lanbide-karreraren esparrua zehaztea, unibertsitate-sistema nazioartekotzea, garapenerako lankidetzak bultzatzea eta kultura zientifikoa sustatzea.

2020ko Zientzia eta Teknologiako eta Berrikuntzako Espainiako Estrategia Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren plangintza estrategikorako tresna da. Europar Batasunarekin Administrazio Publikoen I+G+Bko politikak eta gainerako politika sektorialak koordinatzeko printzipioan oinarrituta, lau helburu orokor planteatzen ditu: I+G+Bko talentua eta enplegaragarritasuna aintzatetsi eta sustatzea, bikaintasun-ikerketa zientifiko eta tekniko sustatzea, I+G+Bko enpresa-lidergoa bultzatzea, eta gizartearen erronka orokorretara eta, bereziki, Espainiako gizartearen eraginpean hartzen dutenetara bideratutako I+G+Bko jarduerak sustatzea.

2013-2016ko Ikerketa Zientifiko eta Teknikoko eta Berrikuntzako Estatuko Planak aldi horretako I+G+Bko jardueren plangintza biltzen du, eta bultzatzeko eta laguntzeko tresnak hartzen ditu kontuan, ideiak sortzen direnetik merkatuan

⁴ "Eskualde Garapenerako Europako Funtserako, Europako Gizarte Funtserako, Kohesio Funtserako, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtserako eta Itsasoaren eta Arrantza Europako Funtserako 2014tik 2020rako Esparru Estrategiko Komunari dagozkion elementuak". SWD (2012) 61 azkena.

produktu eta/edo prozesu berri gisa txertatzen diren arte. Plana, nolanahi ere, Espainiako Zientzia eta Teknologiako eta Berrikuntzako Estrategian ezarritako helburu orokorrak biltzen dituzten lau programatan antolatuta dago. Estatuko programa horiek, aldi berean, norgehiagoka-deialdien bidez garatutako azpiprogramen bitartez antolatzen dira. Deialdi horietan, parte hartzeko eta finantzatzeko modalitateak zehazten dira.

Unibertsitateen egitura eta funtzionamenduari zuzenean lotutako planei eta araudiei dagokienez, oinarritzko hiru erreferentzia identifikatzen dira: (i) Unibertsitatei buruzko Legea⁵, (ii) 2015eko Unibertsitate Estrategia, eta (iii) Espainiako unibertsitateak nazioartekotzeko 2015-2020ko Estrategia.

Unibertsitatei buruzko Lege Organikoak Espainiako unibertsitate-sistema Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan txertatzeko arau-esparrua ezartzen du. Legeak Boloniako konpromiso⁵ei eta jakintzaren gizartearen premiei jarraitzen die, Sistemaren kalitate eta efizientiaren hobekuntzaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko irizpideak eta mekanismoak ezartzen ditu, eta, horretarako, Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziaren eta autonomia-erkidegoetako homonimoen⁶ bitartez garatzen diren kalitatea ebaluatzeko mekanismoak txertatzen ditu. Nolanahi ere, Euskal Unibertsitate Sistemak mekanismo horiei ere erantzun behar die.

Era berean, unibertsitateek bikaintasun handiagoa eta gizartearekiko konpromiso handiagoa izateko, **2015eko Unibertsitate Estrategiak** Europako onenen artean kokatu nahi ditu Espainiako unibertsitateak, Espainiako Unibertsitate Sistemak aurrera egiten jarraituko duela eta nazioarteko testuinguruan finkatuko dela bermatu ahal izan dadin. Estrategian, era esplizituan azpimarratzen da unibertsitatearen hirugarren eginkizunak (hots, jakintzaren eta teknologiaren transferentziak) duen garrantzia eta unibertsitateen ahalmenak sendotzen aurrera egiteko beharra, bai kudeaketa-elementuei eta kontrol, finantzaketa eta ebaluazioko sistemei, bai nazioartekotzeko eta funtsezko espazioak identifikatzeko estrategiak garatzeko eskumenei dagokienez.

Nazioarteko Bikaintasun Campusa Espainiako unibertsitatea modernizatzeko 2015eko Unibertsitate Estrategian sartuta dago. Programa horren bidez, unibertsitateen eta campusetako beste erakunde batzuen artean itun estrategikoak sustatu nahi dira, enplegua, gizarte-kohesioa eta lurraldeko garapen ekonomikoa bultzatuko dituzten “jakintzaren ekosistemak” sortzeko.

Programa horren garrantziaz jabetuta, eta beren proiektuak zehazteko garaian egin duten ahalegin handiaren emaitza gisa, deialdi honetan Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateen parte-hartzea oso nabarmena izan da. Euskal Herriko Unibertsitatearen *Euskampus* proiektua Nazioarteko Bikaintasun Campusaren kalifikazioa eman diote, eta Deustuko Unibertsitateko *Aristos Campus Mundus* proiektua, berriz, Eskualde Bikaintasuneko Campusarena.

⁵ 6/2001 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa, Unibertsitatei buruzkoa, eta 4/2007 Lege Organikoa, apirilaren 12koa, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa aldatzen duena.

⁶ Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia (Unibasq).


Proiektu horien kalitatea eta lortu duten aintzatespena dela-eta, erreferentzia estrategiko bihurtu dira, bi unibertsitate horientzat ez ezik, Jaurlaritzaren sailen politikak eta horien laguntza-tresnak zehazteko garaian ere bai. Ildo horretan, eta 2015ean behin betiko ebaluazioa eta azterketa eginez programa amaitu arte, bi ekimenak kontuan hartu behar dira bi unibertsitate horien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzaren esparruan.

Espainiako unibertsitateak nazioartekotzeko 2015-2020ko Estrategiak unibertsitate-sistemaren nazioarteko marka bat (kalitatean eta hizkuntzan oinarritua) sortzea planteatzen du lehentasunezko helburu gisa, talentua elkartrukatzeko nazioartean erakargarria izango den sistema sendo bat finkatu ahal izan dadin. Estrategiak lehentasunezko lau jardun-ardatz eta jardun jakin batzuk biltzen ditu. Jardun horietako batzuk Europako ingurunearekin zuzenean lotuta daude, hala nola titulu eta ikasketen arloan Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruko estandarretara egokitzea, hezkuntza-arloko Erkidegoko programetan parte hartzea (Horizon 2020 programan, adibidez) eta akordioen bidez EBko eta Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruko herrialdeekiko lankidetzaren areagotzea.

4 2011-2014ko Unibertsitate Planaren ebaluazioa

2011-2014ko Unibertsitate Planak adierazle eta jomugen Aginte Mahai bat du, hiru mailatan banatua:

- *Euskal Unibertsitate Sistemaren adierazleak.* Planaren jardunen zein Planaren eraginik izan ez duten beste testuinguru-elementu batzuen ondorioz Sistemak nolako bilakaera izan duen deskribatzen dute.
- *Estrategiaren adierazleak.* Planaren helburu estrategikoen jarraipena eta ebaluazioa egitea ahalbidetzen dute.
- *Planaren hedapenari lotutako adierazleak.* Plana egikaritzeko modua monitorizatu eta deskribatzen dute, eta aurreikusita zegoena inplementatu ote den galderari erantzuten dio.



4-1 irudia. 2011-2014ko Unibertsitate Planaren Aginte Mahaia

Hiru mailen irakurketa bateratuaren eta horien balioak EBko adierazle baliokideekin konparatzearen bidez, Planaren inplementazioaren eta eraginaren zein Euskadik eta Euskal Unibertsitate Sistemak EBn eta Europako Unibertsitate Sistemak duten posizionamenduaren balioespen zehatza egin daiteke.

4.1 Euskal Unibertsitate Sistemaren jomugekiko eta EB-27ko batez bestekoarekiko bilakaera

Euskal Unibertsitate Sistemaren adierazleek Planaren jardunen zein Planaren eragin txikia izan duten beste testuinguru-elementu batzuen ondorioz Sistemak nolako bilakaera izan duen deskribatzen dute.

Hautatutako adierazleak bi motakoak dira: goi-mailako hezkuntzan eta ikerketa eta garapenean (I+G) konprometitutako baliabideak identifikatzen dituzten ahalegin-adierazleak, eta hezkuntza eta nazioartekotzean, ikerketa eta transferentzian eta gizarte-kohesioan lortutako emaitzei lotutako *output* adierazleak. Output adierazle horien barruan, beste plan eta estrategia batzuetan ahalegin-adierazletzat ere har litezkeen, baina unibertsitateek egindako jardueraren garrantziari eta jarduerak sektore pribatuarentzat duen interesari dagokienez ematen duten informazioagatik Unibertsitate Planaren

ondorioetarako output adierazletzat hartuta dauden adierazle batzuk daude. Horien artean, goi-mailako hezkuntzako erakundeek egikaritutako I+Gko jarduerak Euskadiko I+Gko jarduera osoan duen ehunekoa, edota baliabide pribatuekin finantzatutako goi-mailako hezkuntzako erakundeen I+Gko jardueraren ehunekoa aipa daitezke.

Euskal Unibertsitate Sistemaren adierazleak, oro har, nazioarteko hainbat analisi eta sailkapenetan finkatutako adierazleak dira, eta, horri esker, Euskadin lortutako balioak beste herrialde eta eskualde batzuetan lortutakoekin konpara daitezke⁷.

Ezarritako jomugen betetzeari dagokionez, adierazi beharra dago 2011-2014ko Unibertsitate Planaren hedapena Jaurlaritzaren aurrekontu osoan aplikatu den eta Plana ezarri zen lehen urteaz geroztik unibertsitateekin itundutako jardunak eraginpean hartu zituen murrizketak baldintzatu duela.

Aurrekari horiekin, ezaugarri bereizgarri gisa ahalegin-adierazleen betetzean izandako gorabeherak agertzen dituen egoera bat deskribatzen du Euskal Unibertsitate Sistemak lortutako emaitzen irakurketak. Hala ere, unibertsitate-ikasketak dituzten biztanleen ehunekoari, doktoreen prestakuntzari, zientzia-produkzioari eta enpresen sorkuntzari lotutako adierazle finalistak lortu dira.

Bestalde, adierazi beharra dago sistemaren barruko beste jardun garrantzitsu batzuen aurrekontua (beka orokorrarena, adibidez) igo egin dela azken hiru urteetan. Horri esker, familien baliabideetan izandako murrizketaren ondorioak arindu ahal izan dira, eta goi-mailako prestakuntza jasotzeko aukera bermatu ahal izan da.

Era berean, azpimarratu beharra dago krisi ekonomikoagatik Unibertsitate Planean aplikatutako aurrekontu-murrizketa Espainiako Unibertsitate Sistemako unibertsitateetan aplikatutakoa baino txikiagoa izan dela. Gainera, finantzaketa-esparru okerragoa zuten unibertsitate horiek, eta, baliabideen murrizketaren ondorioz, beren hazkundera moteldu egin da.

⁷ 2011-2014ko Unibertsitate Planean, abiapuntuko balio batzuk identifikatu eta 2014an (indarraldiaren azken urtean) lortu beharreko zenbait helburu ezartzen dira.

Tipologia	Adierazleak	Iturria	Hasierako egoera	Egungo egoera	2014ko jomuga	
Baliabideak	Goi-mailako hezkuntza-erakundeetan egindako gastua (BPGarekiko)	Eustat	%0,97 (2008)	%0,84 (2012)	%1,3	
	Unibertsitateek I+Gan egindako gastua (BPGarekiko)	Eustat	%0,28 (2008)	%0,36 (2013)	%0,49	
Hezkuntza eta nazioartekotzea	Goi-mailako hezkuntzako gastuaren finantzaketa publikotik familiei laguntzeko ordainketa eta transferentzietara (beka, laguntza eta abarretara) bideratutako ehunekoa	Eustat, EJ eta EIN	%5,5 (2008)	%11,4 (2012)	%8	
	Hirugarren hezkuntza jaso duten biztanleak (25-64 urteko biztanleen artean)	Eurostat	%43,3 (2009)	%46,8 (2013)	%45	
	Atzerrian ikasten duten Euskal Unibertsitate Sistemako ikasleen ehunekoa	PK	%2,20 (2009)	%4,85 (2013)	%10	
	Euskal Unibertsitate Sistemako matrikulatutako nazioarteko ikasleen ehunekoa	PK eta SIIU	%5,30 (2009)	%5,21 (2013)	%10	
	Hirugarren hezkuntza jaso duten biztanleen langabezia-tasa	Eustat	%2,6 (2008)	%9,5 (2013)	%2	
Ikerketa eta transferentzia	Graduaturiko doktore berriak (25-34 urteko biztanleen %)	Eustat	%0,93 (2008)	%1,80 (2011)	%1,76 (2014)	
	Zientzia-argitalpenak milioi biztanleko (Scopus)	Ikerbasque eta Eustat	1.297 (2008)	2.128 (2013)	1.641	
	Eskutatutako EPO patenteak milioi biztanleko	OEPM eta Eustat	27 (2008)	39 (2012)	50	
	Unibertsitateen sortutako enpresen kopurua	KP	19 (2008)	43 (2013)	33	
	Unibertsitateek I+G arloan egindako gastuaren ehunekoa I+Gko guztizko gastuarekiko	Eustat	%15,7 (2008)	%18,2 (2013)	%20	
	Unibertsitateek finantzaketa pribatuarekin I+G arloan egindako gastuaren ehunekoa	Eustat	%8,5 (2008)	%6,0 (2013)	%15	
Gizarte-kohesioa	Euskal Unibertsitate Sistemako bekadunen ehunekoa	KP eta EIN	%21,0 (2008)	%28,6 (2012)	%22	

Jomuga lortu da Jomuga ez da lortu Hasierako egoerarekiko bilakaera

4.1-1 irudia. Euskal Unibertsitate Sistemaren adierazleen bilakaera

Iturria: geuk egina, honako hauen datuetan oinarrituta: Eustat, Eusko Jaurlaritza (EJ), Ikerbasque, Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoa (OEPM), Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateen programa-kontratuak (PK), Unibertsitate Informazioko Sistema Integratua (SIIU), EIN eta Eurostat

Adierazle bakoitzaren bilakaeraren analisi zehatzari esker, hiru kategoriatan bana daitezke:

- *Ezarritako jomuga lortu dela erakusten duten adierazleak.*

Goi-mailako hezkuntzako gastu publikotik familiei laguntzeko ordainketa eta transferentzietara (beka, laguntza eta abarretara) bideratutako ehunekoaren, Euskal Unibertsitate Sistemako beka duten ikasleen ehunekoaren, hirugarren hezkuntza jaso duten biztanleen ehunekoaren, mila biztanleko graduaturiko doktore berrien, milioi biztanleko zientzia-argitalpenen eta unibertsitateek sortutako enpresen kopuruaren kasua da, hain zuzen ere.

- *Hobekuntzak izan direla baina ezarritako jomugak lortu ez direla erakusten duten adierazleak.*

Unibertsitateek I+G arloan egindako gastuaren (BPGarekiko), gastu horrek I+Gko guztizko gastuan duen ehunekoaren eta milioi biztanleko EPO patenteen kasua da, hain zuzen ere.

Era berean, atzerrian ikasi duten ikasleen ehunekoak gora egin badu ere, 2013. urterako lortutako balioak oraindik oso urrun daude ezarritako jomugatik.

- *Okerrera egin dela erakusten duten adierazleak.*

Goi-mailako hezkuntzako erakundeetan egindako gastuaren, Euskal Unibertsitate Sistemako matrikulatutako nazioarteko ikasleen ehunekoaren, hirugarren hezkuntza jaso duten biztanleen langabezia-

tasaren eta unibertsitateek I+G arloan egindako gastuaren finantzaketa pribatuaren ehunekoaren kasua da, hain zuzen ere. Arrazoia krisiaren eragina dela esan daiteke.

Bestalde, Euskal Unibertsitate Sistemaren adierazle batzuk eta eskuragarri dauden beste batzuk EB-27arekiko posizionamenduari eta bilakaerari dagokionez konparatuz gero, portaera erlatiboan gorabehera handiak daudela ikus daiteke:

- *Posizio erlatibo hobea finkatu dela islatzen duten adierazleekin* (abiapuntuko balio hobeak eta EUSaren bilakaera hobea, EB-27koarekin alderatuta).

Hirugarren hezkuntza jaso duten biztanleen ehunekoaren, mila biztanleko graduaturiko doktore berrien kopuruaren eta milioi biztanleko zientzia-argitalpenen kopuruaren kasua da, hain zuzen ere.

- *Aldeak murriztu badira ere posizionamendu erlatiboa okerragoa dela islatzen duten adierazleekin* (abiapuntuko balio okerragoak eta EUSaren bilakaera hobea, EB-27koarekin alderatuta).

Goi-mailako hezkuntzan eta I+G arloan egindako gastu-ahaleginaren (BPGarekiko), goi-mailako hezkuntzan eta I+G arloan egindako gastuak I+Gko gastuaren guztizkoan duen ehunekoaren, goi-mailako hezkuntzan egindako gastutik familiei laguntzeko ordainketa eta transferentzietara (beka, laguntza eta abarretara) bideratutako finantzaketa publikoaren ehunekoaren, atzerrian ikasten duten Euskal Unibertsitate Sistemako ikasleen ehunekoaren eta milioi biztanleko eskatutako EPO patenteen produktibitate teknologikoaren kasua da, hain zuzen ere.

- *Posizionamendu erlatibo okerragoa eta atzerapen handiagoa islatzen duten adierazleekin* (abiapuntuko balio okerragoak eta EUSaren bilakaera okerragoa, EB-27koarekin alderatuta).

Kasu horretan, bi bilakaera-patroi bereizten dira:

- *EB-27ko batez bestekoarekiko aldea areagotu egin dela erakusten duten adierazleak* (EB-27ko batez bestekoak okerrera egin du, baina EAEkoak baino neurri txikiagoan). Gauza bera gertatzen da unibertsitate-ikasketak dituzten biztanleen langabeziarekin.
- *EB-27ko batez bestekoarekiko aldea areagotu egin dela erakusten duten adierazleak* (EB-27ko batez bestekoak hobera egin du). Goi-mailako hezkuntzako erakundeetan egindako gastuaren murrizketaren (2012ko BPGarekiko), EUSean ikasten duten nazioarteko ikasleen ehunekoaren eta goi-mailako hezkuntzako erakundeek I+G arloan egindako gastuaren finantzaketa pribatuaren kasua da, hain zuzen ere. Hiru kasu horietan, adierazleen balioek gora egin dute EB-27an.

EB-27ko datuen aldean portaera positiboa izan duten adierazleak 2011-2014ko Unibertsitate Planean ezarri ziren jomugak lortu direla edo lortzeko bidean daudela dioten adierazleak dira, hain zuzen ere.

“Posizionamendu hobearen sendotzea” Adierazle eta bilakaera hobeak

Adierazleak	EUS		EB-27		Egungo balioaren data	Bilakaera
	Egungo balioa	Bilakaera	Egungo balioa	Bilakaera		
Hirugarren hezkuntza jaso duten biztanleak (25-64 urteko biztanleen artean)	%46,8	%3,5	%28,6	%3,4	2013. urtea	2009-2013
Graduatutako doktore berriak (25-34 urteko biztanleen %)	%1,80	%93,5	%1,70	%21,4	2011. urtea	2008-2011
Zientzia-argitalpenak milioi biztanleko (Scopus)	2.128	%64,1	1.814	%20,9	2013. urtea	2008-2013

“Aldararen murrizketa” Adierazle okerragoa eta bilakaera hobeak

Adierazleak	EUS		EB-27		Egungo balioa	Bilakaera
	Egungo balioa	Bilakaera	Egungo balioa	Bilakaera		
Unibertsitateek I+Gan egindako gastua (BPGarekiko)	%0,36	%0,08	%0,47	%0,04	2013. urtea*	2008-2013
Goi-mailako hezkuntzako gastuaren finantzaketa publikotik familiei laguntzeko ordainketa eta transferentzietara (beka, laguntza eta abarretara) bideratutako %	%11,4	%5,9	%19,9	%3,2	2012. urtea**	2008-2012
Atzerrian ikasten duten Euskal Unibertsitate Sistemako ikasleen ehunekoa	%4,85	%2,7	%9,13***	%1,7	2013. urtea*	2009-2013
Eskatutako EPO patenteak milioi biztanleko	38,504	%45,1	108,910	%-4,3	2012. urtea**	2008-2012
Unibertsitateek I+G arloan egindako gastuaren ehunekoa I+Gko guztizko gastuarekiko	%18,2	%2,5	%23,2	%0,2	2013. urtea*	2008-2013

“Atzerapenaren handiagotzea” Adierazle eta bilakaera okerragoak

Adierazleak	EUS		EB-27		Egungo balioa	Bilakaera
	Egungo balioa	Bilakaera	Egungo balioa	Bilakaera		
Goi-mailako hezkuntza-erakundeetan egindako gastua (BPGarekiko)	%0,84	%-0,13	%1,3	%0,10	2012. urtea**	2008-2012
Euskal Unibertsitate Sistemaren matrikulatutako nazioarteko ikasleen ehunekoa	%5,21	%-0,1	%6,90***	%0,6	2013. urtea*	2009-2013
Hirugarren hezkuntza jaso duten biztanleen langabezia-tasa	%9,5	%6,9	%6,4	%2,6	2013. urtea*	2008-2013
Unibertsitateen finantzaketa pribatuarekin I+G arloan egindako gastuaren ehunekoa	%6,0	%-2,5	%10,5	%1,1	2013. urtea*	2008-2013

 Jomuga lortu da  Jomuga ez da lortu

(*) 2012. urteko EB-27ko egungo egoera

(**) 2011. urteko EB-27ko egungo egoera

(***) EB-27 estatu kideetako batez besteko balioa

4.1-2 irudia. Euskal Unibertsitate Sistemak EB-27an duen posizionamendu erlatiboaren bilakaera Sistemaren adierazleei dagokienez

Iturria: geuk egina, honako hauen datuetan oinarrituta: Eustat, Eusko Jaurlaritza (EJ), Ikerbasque, Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoa (OEPM), Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateen programa-kontratuak (PK), Unibertsitate Informazioko Sistema Integratua (SIIU), EIN eta Eurostat

Adierazleen bilakaera eta EB-27ko adierazleekiko konparazioa oro har interpretatuz gero, Euskal Unibertsitate Sistemaren bilakaeraren hainbat ezaugarri bereizgarri atera daitezke:

- Prestakuntza-jarduera ona, biztanleriaren ehuneko handi batek jaso duena. Horri esker, Euskadi EB-27ko batez bestekoaren gainetik kokatuta dago, eta hirugarren hezkuntza jaso duten biztanleen kopuruari dagokionez Europa 2020 estrategiaren jomugak ere gainditu ditu.
- Hobekuntza nabarmena produkzio zientifiko eta teknologikoari dagokionez. Espainiako eta munduko batez bestekoa baino hazkunde handiagoa lortu da produkzio zientifikoan, hasierako posizionamendu hobeak duten puntako herrialde eta eskualdeetako hazkundearen pare-parekoa izan bada ere.

- Unibertsitateen ikerketa-jardueraren indar handiagoa Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) agenteen artean. Hala ere, erakargarritasuna hobetu behar da enpresen interesa pizteko.
- Erakarrirako nazioarteko ikasleen kopuru txikiagoa eta kanporako mugikortasun handiagoa, bi kasuetan EB-27ko zifretatik urrun bagaude ere. Ikasleak beken bitartez kanpora irteteko aukera babestu izanak familien errenta erabilgarriaren murrizketa konpentsatu ahal izan du aldi horretan. Bestalde, Euskal Unibertsitate Sistemak erakarrirako nazioarteko ikasleen etorrera mantsotu egin da, eta, aldi berean, mugikortasunak gora egin du Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan.
- Goi-mailako hezkuntzako erakundeetan egindako guztizko gastua EB-27ko batez bestekoa baino txikiagoa; zifra hori lotutako beste adierazle batzuetan islatzen da, hala nola goi-mailako heziketako ikasle bakoitzeko gastuan.
- Hirugarren Hezkuntza jaso duen biztanleriak Estatuan ikasketa-maila txikiagoko beste biztanle talde batzuek baino portaera hobea izan du lan-mekatuan. Hala ere, EB-27ko homologoen enplegu-mailak Euskadikoak baino handiagoak dira.
- Gero eta ahalegin publiko handiagoa familiei Hirugarren Hezkuntza jasotzen laguntzeko. Kriaren ondorioek oso neurri handian baldintzatzen dute adierazle hori.

Egoera global hori, oro har, ona dela esan daiteke, are gehiago Euskal Unibertsitate Sistemak 2011-2014 aldian izan duen atzeraldi ekonomikoko testuinguruari lotutako zailtasunak kontuan hartzen baditugu.

4.22011-2014ko Unibertsitate Planaren helburuek izan duten bilakaeraren balantzea

2011-2014ko Unibertsitate Planak prestakuntzari, ikerketari, transferentziari eta unibertsitate-zerbitzuen efizientzia eta kalitateari lotutako lau xede-helburu identifikatzen zituen.

Ondoren, horietako bakoitzaren lorpen-maila balioetsiko da, eta 2015-2018ko Plan berriari begira kontuan hartu beharreko erronkak aipatuko dira.

XH1. Behar diren aldaketak behar besteko sakontasunez egitea, euskal gizarteak goi-mailako prestakuntzan dituen gero eta behar handiagoei erantzuteko, Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan sartzeak sor ditzakeen aukerak baliatuz.

2007-2010 aldian garatutako jardunen bidez, 2011-2014ko Unibertsitate Planaren indarraldian titulazioak gradu eta graduondoko egiturara egokitzeko prozesua arrakastaz gauzatu du Euskal Unibertsitate Sistemak. Hala ere, eta horretan bat datoz agente gehienak, hobetu egin daiteke erreformaren ahalmen guztiaren aprobetxamenduari dagokionez.

Euskal Unibertsitate Sistemak 2011-2014ko Unibertsitate Planean prestakuntza-eremuan aurreikusitako jardun gehienak egin ahal izan ditu. Eraitza batzuk era biribilean balioesteko artean goizegi bada ere (berriki inplementatu baitira), azpimarratu beharra dago Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateek bete egin dituztela irakasleak eta ikertzaileak irakaskuntza-metodologietan prestatzeko eta hizkuntza ofizialetan eta ez-ofizialetan trebatzeko ezarritako jomugak.


Era berean, hizkuntza-normalizazioko planetan ezarritako helburuak bete ditu (espezifikoak edo plan estrategiko orokorren zati gisa), eta euskarazko estaldura bermatu zaio alde aurreko hezkuntza-mailetan (lehen eta bigarren hezkuntzan) gero eta gaitasun-maila handiagoak dituen hezkuntza-komunitateari. Unibertsitateek, halaber, ahalegin handia egin dute hizkuntza ez-ofizialen inguruko irakaskuntza-eskaintza handitzeko, nazioarteko ikasle gehiago erakartzeko helburu garbiarekin.

Etorkizunera begira, jardunak bideratu behar dituzten erreferentzia garbi batzuk finkatzeko aukerari eta Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan xede espezifikoak dituzten joera global batzuei eman beharreko erantzunari lotutako hainbat jomuga espezifiko identifikatzen dira.


Prestakuntzaren eremuko ekintzen diseinuan eta abiaraztean erreferentzia bereziak izango diren elementuak finkatzeari dagokionez:

- Enplegarritasuna da erreferentziazko helburua Euskal Unibertsitate Sistemaren jomugak finkatzeko eta prestakuntzaren eremuko jardun oro diseinatu eta planifikatzeko garaian. Unibertsitate-ikasketak dituen biztanleriaren enplegarritasunak behera egin du krisialdi ekonomikoaren ondorioz.
- Hizkuntza-normalizazioa 2015-2018 aldian mantendu behar du jardun-eremua da. Unibertsitate-preskuntzaren aurreko hezkuntza-zikloen euskalduntze progresiboak eskari handia sortu du eremu horretan, eta Euskal Unibertsitate Sistemak, koherentziaz, erantzuna eman behar dio eskari horri.
- Euskal Unibertsitate Sistemak hobetu egin behar ditu errendimendu-tasak, batez ere Administrazioaren babesak (ikasleentzako bekek eta laguntzek) nabarmen gora egin duela kontuan hartuta. 2011-2014 aldian arrakasta-tasetan izandako igoerak ezin izan du konpentsatu ebaluazio-tasetan izandako beherakada. Izan ere, Euskal Unibertsitate Sistemaren errendimendu-tasak behera egin du gradu eta masterreko ikasketetan, baita Espainiako Unibertsitate Sistemaren jardunarekiko diferentzian ere (masterreko ikasketetan bereziki).

Euskal Unibertsitate Sistema



Espainiako Unibertsitate Sistema



4.2-1 irudia. Errendimenduaren, arrakastaren eta ebaluazioaren tasen bilakaera Euskal Unibertsitate Sisteman eta Espainiako Unibertsitate Sisteman, graduiko ikasketei dagokienez (%)

Iturria: geuk egina, Unibertsitate Informazioko Sistema Integratuaren (SIIU) datuetan oinarrituta. Hezkuntza Ministerioa

- Unibertsitateak lantzen ari diren proiektu propioak garatzea ahalbidetuko duten balioen inguruko prestakuntzak eta ekintzailtzak unibertsitateek nahi dituzten hezkuntza-eredu aurreratuen erreferentzia nagusi izan behar dute.
- Bizitza osoko prestakuntzaren eskaintza erakargarri baten garapen progresiboa Euskal Unibertsitate Sistemak ezinbestez aurre egin beharreko erronka da gure giza kapitalaren gaitasunak eta ahalmenak eguneratzera eta birziklatzera behartuko duen demografia- eta lan-testuinguru batean. Ildo horretan, Euskal Unibertsitate Sistemaren emaitzak desberdinak izan dira. Izan ere, programen, irakasleen eta ikasle parte-hartzaileen kopuruak gora egin du nabarmen unibertsitate pribatuetan, baina igoera ez da hain nabarmena izan unibertsitate publikoan.
- Irakasleak Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren berezko irakaskuntza-metodologia eta irakaskuntza-jardunbideetara egokitzeko aukera bultzatzen jarraitu beharra dago, eta, horretarako, ahalegin handiagoak egin behar dira plan berrietan (irakasleak ebaluatzeko planak, prestakuntza-planak, IILEk gaitasunak garatzeko planak eta abar).

Prestakuntzaren eremuko joera globaletara egokitzeko aukerari dagokionez:

- Ikasleen mugikortasunak ezarritako joera global bat dago, eta Euskal Unibertsitate Sistemak joera horri erantzuten jarraitu behar du. Euskal Unibertsitate Sistemak EBko batez bestekoarekiko aldeak murriztu ditu, baina bide luzea geratzen zaio EB-27ko herrialdeetako batez bestekora iristeko, nazioarteko ikasleak erakartzeari dagokionez bereziki.

- Herrialdera talentuak erakartzeko eta bertan prestatzeko aukera bat dago, eta Euskal Unibertsitate Sistemak funtsezko eragile izan behar du. Horretarako, graduondoko ikasketen eskaintza antolatu/indartu behar da, eta ahalegina egin behar da ospe handiko irakasleak eta ikertzaileak erakarri eta kontratatzeko. 20 urtean, irakasle eta ikertzaile langileen %20k nazioarteko kontratazio-irizpideak bete beharko ditu.
- Unibertsitate birtualaren garapena eta informazioaren eta komunikazioen teknologien (IKT) aprobetxamendua aurrerapen-ildo garbiak dira Euskal Unibertsitate Sistemarentzat. Euskal Unibertsitate Sistema abian da. Eremu horretan eskaintza lehiakor bat eduki nahi izanez gero, aurrerapenak finkatu eta baliabide eta kalitate-estandar zorrotzak lortu behar dira.
- IKTen aprobetxamenduari lotuta, *on line* prestakuntza (kalitate-eskaintza baten garapen eta ezarpen hartua) oso erronka garrantzitsua da 2015-2018 aldian. Prestakuntza horri bultzada erabakigarri bat emateko unea da; osterantzean, oso bizkor aurrera egiten ari den eremu horretan garrantzitsuak izateko aukera behin betiko galtzeko arriskuan egongo da Euskal Unibertsitate Sistema.

XH2. Ikerketa-jarduerak nazioartean duen oihartzuna eta aintzatespena areagotzea, Europako Ikerketa Esparruan aktiboki parte hartuz.


2011-2014 aldian, Euskal Unibertsitate Sistemak oso bilakaera positiboa izan du ikerketaren eremuan, bai produkzio zientifikoaren gorakadari, bai Euskadiko I+Gari egindako ekarpenari dagokionez.

Euskadin, 4.637 artikulua indexatu produzitu dira, eta, beraz, seigarren tokian kokatu da autonomia-erkidegoen sailkapenean. Zehazki, bi postu irabazi ditu azken lau urteetan, eta oso hurbil geratu da Galiziatik (aurrean duen autonomia-erkidegotik, alegia).

Produkzio zientifikoaren eremuan, Euskadiko agente liderra Euskal Herriko Unibertsitatea da oraindik. Gainera, Mondragon Unibertsitateak eta Deustuko Unibertsitateak hazkunde nabarmenak izan dituzte produkzio zientifikoaren eremuan (Deustuko Unibertsitateak bereziki). Bilakaera horren ondorioz, Euskal Unibertsitate Sistemak Euskadiko guztizko produkzio zientifikoan duen proportzioak gora egin du. Zehazki, %58,6 zen 2004an, eta %59,7ra iritsi da 2013an⁸.

Lorpen hori oso garrantzitsua da, kontuan hartuta oinarritzko ikerketako eta bikaintasuneko zentroen (BERC) eta ikerketa kooperatiboko zentroen (CIC) sorkuntza eta sendotzea (batzuek hamarkada bat baino gehiagoko ibilbidea dute), eta korporazio teknologikoen jarduera esanguratsua (Jaurlaritzak egindako analisisen arabera, horietan ikerketa aplikatuak indar handiagoa hartu du garapen teknologikoarekin alderatuta).

⁸ Euskadiko Zientziari buruzko Txostena, 2014, Ikerbasque.




4.2-2 irudia. Euskadiko per capita produkzio zientifikoa (SCOPUS, argitalpen indexatuak 1.000.000 biztanleko, 2004-2013)

Iturria: geuk egina, Ikerbasque eta Eustaten datuetan oinarrituta

Produkzio zientifikoaren igoera horren aldi berean, produkzio horren nazioarteko izaera areagotu egin da, eta hori lagungarria izan da Euskal Unibertsitate Sistema jakintza-sare globalean txertatzeko.

Izan ere, 2004-2012 aldian, Euskadik urteko %14,2ko igoera izan du hainbat egileren nazioarteko argitalpenetan, eta %2,5eko igoera nazioartean gehien aipatutako top-10 argitalpenetan. Gainera, ehuneko egonkorra izan du (%54 inguru) lehen kuartileko argitalpenei dagokionez.

Euskadiko goi-mailako hezkuntzako erakundeek I+G arloan egindako barneko gastuari dagokionez, gora egin du termino absolutu zein erlatiboetan, gainerako egikaritze-sektoreekiko (enpresak eta Jaurlaritza) zein BPGarekiko. 2013. urtean, unibertsitateak I+G arloan egindako gastua Euskadin I+G arloan egindako gastu guztiaren %18,2 izan zen, hau da, Euskadiko BPGaren %0,36 (%0,28 izan zen 2008an).



4.2-3 irudia. Euskadin I+G arloan egindako barneko gastuaren banaketa egikaritze-sektorearen arabera, eta HERDak BPGan duen indarra (M €, %, 2008-2013)


Iturria: geuk egina, Ikerbasque eta Eustaten datuetan oinarrituta

Euskal Unibertsitate Sistemaren I+G arloko jardunak hobera egin badu ere, hainbat erronka geratzen direla ikus daiteke. Erronka horiek produktibitate zientifikoari eta I+G arloko jarduerak guztizkoan duen indarrari lotuta daude. Honako hauek dira:

- Euskadik aurrera egin nahi du autonomia-erkidegoetako produkzio eta produktibitate zientifikoaren sailkapenean, eta bosgarren tokian kokatu nahi du gutxienez, zientzia, teknologia eta berrikuntzari lotutako beste sailkapen batzuetan bezala. Euskal Zientzia Sistemak bere produkzio zientifikoa areagotu badu ere, Estatuko batez bestekoarekiko aldeak gora egin du ikertzaile bakoitzeko produkzioari dagokionez. 2013. urtean, ikertzaile bakoitzeko (LOB) 0,39 artikuluko produkzioa izan zuen Euskadik, hau da, Estatuko batez bestekotik (0,65) urrun⁹ (Estatuko datuak 2012koa dira)¹⁰.

⁹ Horren arrazoia, neurri batean, enpresa-sektoreko ikertzaileek Euskadiko ikertzaileen guztizkoan duten ehuneko handia izan daiteke. Izan ere, enpresa-sektorearentzat produkzio zientifikoa ez da helburu nagusia, eta ikertzaile gehien biltzen dituen sektorea da Euskadin.


¹⁰ Espainiari buruz eskuragarri dagoen azken datua 2012koa da.



4.2-4 irudia. Ikertzaile bakoitzeko produktibitate zientifikoa (SCOPUS, argitalpen indexatuak ikertzaile bakoitzeko -LOB-, 2004-2013)

Iturria: geuk egina, Ikerbasque, Eustat, ICONO-FECYT eta INEren datuetan oinarrituta

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Estatuko Legearen ezarpena ahal den heinean baliatu behar da Euskadin. Ildo horretan, Estatuko araudia Euskadiko premietara egokitu beharko da.
- Ikertzaile-masa gaztetzeak eta, horretarako, ikerketarako gaitasuna, nazioarteko esperientzia eta Euskal Unibertsitate Sistema ikerketaren eremuan nazioarteko erreferentzia diren talde eta ereakundeekin konektatzeko ahalmena izango duten irakasleak eta ikertzaileak hartzeak lehentasunezko lan-arloa izan behar du.
- Euskal Unibertsitate Sistemak lidergo-maila handiagoa izan behar du, eta, horretarako, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) beste agente batzuekin harreman proaktiboagoak izateko ahalmen handiagoa behar da.
- Euskal unibertsitateek I+G arloan egindako jarduerak hartu duen protagonismoa areagotu egin behar da, Europako Erkidegoko batez bestekoaren azpitik baitago gaur egun, I+Gan egindako guztizko gastuari zein BPGarekiko ehunekoari dagokionez. Euskadin, goi-mailako hezkuntzako erakundeek I+G arloan egindako gastua guztizko gastuaren %18,2 eta BPGaren %0,36 da. EB-27an, berriz, unibertsitateek I+G arloan egindako gastua guztizkoaren %23,2 eta BPGaren %0,47 da.



4.2-5 irudia. HERDak GERDean eta BPGan duen proportzioa, eskualde geografikoaren arabera (% , 2008 eta 2013)

Iturria: geuk egina, Eustat eta Eurostaten datuetan oinarrituta

- Euskal Unibertsitate Sistemak eta sustatzen duten politikek kalitatearen kultura sustatzen jarraitu behar dute bikaintasun-jakintza zientifiko eta teknologikoa sortzeko prozesuetan. Bikaintasuna nazioarteko proiektuak jakintza sortuko dela eta emaitzen aplikazioak balioa izango duela bermatzeko *sine qua non* baldintza da. Lan horretan, Unibasq erakundeak gero eta zeregin garrantzitsuagoa bete behar du, eta, horretarako, kalitatea egiaztatzeko agentzien nazioarteko sareetan sartuta eta aintzatetsita dagoela baliatu behar du.
- Euskal Unibertsitate Sistemaren ikerketa-jardueraren nazioartekotzearen ildotik, Nazioarteko Proiektuen Bulegoak sustatu behar dira 2015-2018 aldian inplementatu beharreko jardunen bidez, Europako eta nazioarteko proiektuetan parte-hartze tasa handiagoa izateko. Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate guztiek eremu horretan lortutako datuak onak izanik ere, nazioartean presentzia handiagoa izateko ahalegina egiten jarraitu beharra dago, Horizon 2020 programa bereziki kontuan hartuta.

XH3. Ezagutza, balioak, jarrera kritikoa eta gogoetarako gune bat eskaintzea gure gizarte aurreratuari eta ezagutza gero eta sakontasun handiagoz lantzen duen enpresa-sareari, Zientzia-Teknologia-Enpresa-Gizartea sisteman lidergoa hartuz.

Helburu honen lorpenean egindako aurrerapena desberdina izan da:


- Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateek gizartearekin komunikatzeko bideak ezartzea garrantzitsua dela ulertu dute,

beren komunikazio-planak garatu dituzte, eta komunikabideetan duten presentziaren jarraipen zehatza egiten dute. Ahalegin horri esker, unibertsitateen jarduerak presentzia handiagoa du eta iritzi publikoaren aintzatespena jaso du, unibertsitateak gogoetarako eta espiritu kritikorako gune gisa betetzen duen zeregina finkatu ahal izan da, eta euskal gizarteak ere horrelako gunetzat hartzen du.

- Dena dela, produkzio zientifikoaren eta prestakuntza-jardueraren arloan egindako aurrerapen aipagarriak gorabehera, Euskal Unibertsitate Sistemak oraindik ez du lidergoa Euskadiko Zientzia, Teknologia, Enpresa eta Gizarte Sisteman, eta ahalmen mugatua du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko gainerako agenteak mobilizatzeko moduko ekimenak proposatu eta zuzentzeko. Hala eta guztiz ere, honako ekimen azpimarragarri hauek egin dira: Gastronomia Zientzien Fakultate berria abian jarri da, ekintzailetzaren eremuan guztiz berria den titulu bat atera da (lehenen ekimen bakarra da Estatuan, eta bigarrena erreferentzia bihurtu da bere eremuan), Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutua garatu da (erakunde, enpresa eta unibertsitateen topalekua hainbat arlotako –lurraldea eta lehiakortasuna edota lurraldea eta energia, adibidez– politika ekonomikoak bultzatzeko garaian), UPV/EHUko Master eta Doktorego Eskola abian jarri da, Euskampus jakintzaguneen ekimena garatu da, Aeronautikako Fabrikazio Aurreratuko Zentroa eratu da, eta apustu berriak egin dira osasunaren eremuan, hala nola Fisioterapiako Gradua eta Zahartze Osasungarriko eta Bizi Kalitateko Masterra, Euskadiko RIS3 estrategiari jarraiki.

Enpresa-munduekiko loturari dagokionez (Oinarri Teknologikoa duten Enpresa Berrien –OTEB– sorkuntza bidezko jakintzaren transferentzia kontuan hartuta), Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateek 2011-2014ko Unibertsitate Planean aurreikusitako helburuak gainditu dituzte. Aldi horretan, 43 enpresa berri sortu dira (33 zeuden planteatuta helburu gisa). Milioi biztanleko 50 EPO patente eskatzeko helburua nekez lortuko da, 2012. urtean 39ra iritsi baitzen kopurua.

Testuinguru horretan, Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean duten posizioa hobetu behar dute, zientzia-ahalmenari zein eremu espezifikoetan behar den posizionamenduari dagokionez, transferentzia-maila handiagoak lor daitezzen. Bereziki, bere gaitasun eta jarduerak Euskadiko Espezializazio Adimendunaren Estrategiak (RIS3) ezarritako lehentasunetara egokitzeko gai izan behar du Euskal Unibertsitate Sistemak. Horretarako, Euskal Unibertsitate Sistemako agenteek garbi eduki behar dute enpresa-sarearekin eta enpresa mota desberdinekin (tamainaren eta ahalmen teknologikoaren arabera) lotzeko zer estrategiari jarraitu behar zaion eta hori lortzeko zenbat baliabide inbertitu behar diren.



4.2-6 irudia. Finantzaketa pribatuak HERDean duen proportzioa, eskualde geografikoaren arabera (%), 2008 eta 2013*¹¹⁾

Iturria: geuk egina, Eustat, EIN ea Eurostaten datuetan oinarrituta

Adierazitako ideia horien ildotik, Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateen transferentzia-mailaren inguruko hainbat erronka identifika daitezke:

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen barruan liderra izatea Euskal Unibertsitate Sistemak aurrean duen erronka da oraindik ere. Euskadiko goi-mailako hezkuntzako erakundeek I+G arloan egindako gastuaren finantzaketa pribatuak behera egin du proportzioan zein kopuruan (%8,5 zen 2008an, eta %6,0 2013an), eta, beraz, areagotu egin da EB-27ko batez bestekoarekiko aldea. Ahalmen zientifikoaz baliatuta, Euskal Unibertsitate Sistemak erreferentziazko agente izan nahi du eremu espezifikoetan. Bereziki, bere gaitasun eta jarduerak Euskadiko Espezializazio Adimendunaren Estrategiak (RIS3) ezarritako lehentasunetara egokitzen saiatu behar du. Horretarako, erronketara bideratutako ikerketaren sustapenak aukera eman behar du gizartearen eskariei erantzungo dieten soluzioen bilaketa aurreratzeko.
- Euskal Unibertsitate Sistemak, halaber, ikerketak emandako emaitzen balorizazioa, enpresen sorkuntza, ekintzailetzaren kultura eta gizarte-ingurunerako transferentzia sustatzen jarraitu behar du. Gizartearen erronkei erantzuteko soluzioak bilatzea eta lortzea ikerketa-bikaintasunaren bereizgarria den balio bat da; horren lekuko da izan duen inplementazio arrakastatsua.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Estatuko Legea erakunde publiko eta pribatuen artean ikertzaileen mugikortasuna bultzatzeko baliatu behar da. Bereziki, baliagarria izan behar du ZTBESean eta, bereziki, enpresa-sarean doktore gehiago sartzeko.

¹¹ Espainiari eta EB-27ari buruz eskuragarri dagoen azken datua 2012koa da.

- Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateek Nazioarteko Bikaintasun Campusaren inguruan dituzten proiektuek ZTBESko beste agente batzuekiko lankidetzaren egonkorra sortu behar dituzte, eta enpresa-sarerako hurbilketa eragin behar dute.
- 2012. urtean, Euskal Unibertsitate Sistemako kideek 7 patente ustiatzen zituzten (eskatutako edo emandako 57etatik). Ildo horretan, EUSeko unibertsitateek errentagarri egin behar dute patenteak sortzeko egindako ahalegina, enpresa berriak sortu eta patenteak zuzenean ustiatzearen bidez, edota patenteen lizentziamentuaren bidez. Baliabideak sortzeko iturri horren jarraipena eta ebaluazioa ustiapena kontuan hartuta egin behar da (negozioa / sortutako baliabideak).
- Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateek sakondu egin behar dute enpresa-sarearekin eta enpresa mota desberdinekin (tamainaren eta ahalmen teknologikoaren arabera) lotzeko jarraitu beharreko estrategian eta hori lortzeko inbertitu beharreko baliabideetan. Ildo horretan, profil egokiak dituzten profesionalak behar dira, unibertsitatearen barruan ingurunearekiko transferentzia- eta lotura-funtzio hori bete ahal izateko.
- Transferentziaren eremuari dagokionez, ahalegin handiagoa egin behar da gizarte-transferentzian. "Transferentzia" kontzeptuak, alderdi teknologikoa eta ekonomikoa kontuan hartzeaz gain, gizarte-berrikuntzara eta hezkuntza-berrikuntzara irekita egon behar du. Transferentzia hori gizarte-kohesioa, ongizatea eta *unibertsitate-ongizatea* bultzatzera eta gizarte-berrikuntzari eta hezkuntza-berrikuntzari lotutako jakintza sortzera bideratuta egongo da, eta zuzeneko eragina izango du, enpresa-sarean ez ezik, erakundeetan, irabazi-asmorik gabeko entitateetan, herritarrengan eta bizitza publikoan ere bai. Aukera batzuk abian dira dagoeneko, hala nola baliatu beharreko H2020 programa¹².
- Kultura zientifiko, teknologiko eta berritzaileari egindako ekarpena alde batera utzita, egiten duen ikerketaren emaitzak zabaltzeko eta enpresen, gizarte-erakundearen eta herrialde osoaren premiei erantzun dieten soluzioetan aplikatzeko erronkari egin behar dio aurre Euskal Unibertsitate Sistemak. Azken batean, euskal gizartearen aberastasunari eta ongizateari egindako ekarpena zabaltzeko behar du, eta ekarpen horri balioa eman behar dio.

XH4. Kalitateko zerbitzu-eskaintza bat bermatzea, irakasle, ikertzaile, teknikari eta kudeatzaile bikainenak erakarriz, prestatuz eta atxikiz, eta baliabideak era bidezko, eraginkor eta gardenean erabiliz.

Balioespen orokor positiboaz gain, atal honetan azpimarratu beharra dago talentuak erakartzeko herrialde-estrategiaren arrakasta eta Euskal Unibertsitate Sistemaren ikerketa-jardueran izan duen eragina.

¹² *Science with and for Society* programaren esparruko deialdiak.

Oro har, unibertsitateek hainbat jardun jarri dituzte abian programa-kontratuen bidez, eta hobekuntza nabarmena eragin dute prozesuetan. Bereziki azpimarratu beharra dago gizarteratzea, aukera-berdintasuna eta genero-faktoreak kontuan hartzea bultzatzen duten plangintza-elementuak sartu direla.

Bereziki azpimarratu beharra dago, halaber, Unibertsitate Sistemako ikasle guztien artean bekadunen kopuruak izan duen igoera handia. 2011-2014ko Unibertsitate Planaren indarraldian izandako atzeraldi ekonomikoaren testuinguruan, Eusko Jaurlaritzaren bekak eta laguntzak gehitu izanak atzeraldi horren ondorioak arindu ditu nolabait ere.

Bereziki, arestian adierazi dugunez, balioespen positibo horren barruan talentu ikertzailea erakartzeko lana arrakastatsua izan da, eta eragin handia izan du kalitate handiagoko zerbitzuen eskaintza baterantz doan Euskal Unibertsitate Sistemari.

Deskribatutako diagnostikotik abiatuta, datozen lau urteetan Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateen eta Sistema osoaren ekitatearen, efizientziaren eta gardentasunaren arloan lortu beharreko jomuga berriak identifikatzen dira:

- Euskal Unibertsitate Sistemak aurrera egin jarraitu behar du kudeaketa-eredu arin, garden eta adeitsu bat lortzeko bidean. Euskal Unibertsitate Sistemak bere jarraipen- eta ebaluazio-eredua finkatu behar du. Adierazle eta jomuga batzuk egokitu egin behar dira errealtate berriak txertatze eta konparatzeko zailtasunei eta gehitzeko aukerei lotutako akats batzuk konpontze aldera. 2015-2018ko Unibertsitate Planak aurrera egin behar du benetan garrantzitsua dena neurtuko duen Aginte Mahai sendo bat finkatzeko lanean.
- Bereziki garrantzitsua da Euskal Herriko Unibertsitatearen baliabide-premiak identifikatzea ahalbidetuko duen kudeaketa-sistema garden baterantz aurrera egitea, Euskal Herriko Unibertsitateak bere jardura Euskal Unibertsitate Sistemaren Legean deskribatzen den nahikotasun-irizpideari jarraiki egin ahal izan dezan. Kontabilitate analitikoaren ezarpenari esker, aurrera egin daiteke norabide horretan.
- Euskal Unibertsitate Sistemak bi erronka nagusi ditu enpleguaren arloan zein informazioaren eta komunikazioen teknologiek eskaintzen dituzten aukeren aprobetxamenduaren arloan. Unibertsitate moderno batek ezin du kalitateko zerbitzurik eskaini IKTek ematen duten ahalmen guztia baliatu gabe. Alderdi hori funtsezkoa da, gainera, bereziki prestakuntzaren eta zientzia-zabalkundearen eremuan beritutako zerbitzu-zorroaren garapenean.
- *Euskampus* eta *Aristos Campus Mundus* proiektuen inguruko pangintzak eta ekintza-plan bikainek jaso duten aintzatespena eta babesa ezin dira erdibidean geratu 2015ean Estatuko programa amaitzen denean. Bi proiektu horiek aintzatespena jaso dute Espainiako Unibertsitate Sistemako unibertsitate guztiek parte

hartu duten hautaketa-prozesu batean, eta Eusko Jaurlaritzaren balioespen positiboa izan duen jardun-plan baten inguruko gogoeta egitera eta plan hori identifikatu eta abian jartzera bultzatu dituzte unibertsitateak. *Euskampus* proiektuari esker, Herrialdeko erronka sozial eta ekonomikoei lankidetzan (balio-kate osoan agenteak gehitzearen bidez) erantzuteko eredu paradigmatico bat zuzendu ahal izan du Euskal Herriko Unibertsitateak. Esperientzia horretan oinarrituta, eredu hori Unibertsitate osora eta zientzia eta teknologiaren euskal sistemako agenteen sarera zabaltzeko behar da, EAEk aurrean dituen erronka globalei tokiko erantzunak emateko. Bestalde, *Aristos Campus Mundus* proiektuari esker, Deustuko Unibertsitateak bere nazioarteko sareak zabaltzeko ahal izan ditu, bere titulazioen erakargarritasuna eta kalitatea hobetu ahal izan du, sareko produkzio zientifikoa areagotu ahal izan du (eta aintzatespena jaso du nazioartean), eta transferentzia eta gizarte-berrikuntzarako prozedura sortu berriak sartu ahal izan ditu. Hori dela-eta, Euskal Unibertsitate Sistemak bi proiektuak erabat ezartzeko baliabideak antolatu behar ditu.

- Euskal Unibertsitate Sistemak gogoeta egin behar du talentuak erakartzeko eta atxikitze politikaren inguruan garatu beharreko hobekuntza-alderdiei buruzko. Ildo horretan, hainbat aldaketa egin dira talentuak erakartzeko programan. Adibidez, gazte ikertzaileen profilak bilatu dira (*Ikerbasque Fellows*). Nolanahi ere, erakarrirako ikertzaileek beren erakundeetan dituzten harrera-prozesuen hobekuntzari, atxikitako erakundeetan behar duten behin betiko integrazioari eta sendotu behar diren eta erakartzeko ahalmen urria duten jakintza-eremuen identifikazioari buruzko analisi partekatu bat geratzen da egiteko.
- Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate guztiek identifikatuta dauden eta Sistemari eragina duten esperientzia arrakastatsuak eta jardunbide egokiak dituzte. Egindako ibilbideak eta erakundeetatik kanpo lankidetzak-formulak bilatzeko gero eta nabarmenagoa den beharrak eremu horretan ekintza zehatzak identifikatzeko jomuga planteatzen du 2015-2018ko Planari begira.



PRESTAKUNTZA

- Errendimendu akademikoaren tasak hobetzea
- Enplegarritasuna eta ekintzailatza bultzatuko duten tresna, eredu eta titulazioak garatzea
- Hizkuntza-normalizazioaren bultzadari eustea
- EUSeko ikasleen mugikortasuna
- Irakasle eta ikertzaile langileen eta administrazio eta zerbitzueta langileen etengabeko prestakuntza Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruko metodologietan
- Talentuak Herrialdera erakartzea

- EUSaren gaitasunak eta jarduerak Euskadiko Espezializazio Adimendunaren Estrategiaren (RIS3) lehentasunetara egokitzea
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Legearen inplementazio-ahalmena baliatzea: ikertzaileen mugikortasuna, enpresekiko harremana eta abar
- ZTBESeko beste agente batzuekin harremanak ezartzeko ahalmena areagotzea, eta lidergo-maila handiagoak bere gain hartzea
- Enpleguan aurrera egitea eta IKTen aukerak baliatzea
- EUSeko unibertsitateek Bikaintasun Campusaren inguruan dituzten proiektuak babestea (Euskampus eta Aristos Campus Mundus)
- EUSaren jarduera-eremu guztietan aukera berdintasuna bultzatzea

- Autonomia-erkidegoetako produkzio eta produktibitate zientifikoaren sailkapenean aurrera egitea
- Kalitatea eta bikaintasuna sustatzea
- Gizartearen erronketara bideratutako ikerketa
- Ikertzaile-masa gazteagotzea eta, horretarako, ikerketarako gaitasuna eta EUSa nazioarteko erreferentzia diren talde eta erakundeekin konektatzeko ahalmena izango duten nazioarteko IILak hartzea
- Nazioarteko programetan parte hartzeko aukera bultzatuko duten egitura espezializatuak babestea.

IKERKETA

TRANSFERENTZIA

- “Transferentzia” kontzeptua zabaltzea gizarte-transferentzia ere barnean hartzeko
 - Bizitza osoko prestakuntza bultzatzea
 - ZTBESaren barruan liderra izateko bidean aurrera egitea
- EUSeko unibertsitate bakoitza enpresa-sarearekin espezifikoki lotzeko estrategia bat zehaztea
- Transferentzia-funtzioa betetzea eta unibertsitate barruan ingurunearekin lotzea ahalbidetuko duten profil egokiko profesionalak txertatzea

- Kudeaketa-eredu arin, garden eta atsegin bat lortzeko bidean aurrera egitea
 - EUSaren jarraipen- eta ebaluazio-eredua finkatzea
- EUSeko agenteen artean lankidetzajardunak egitea, benetan sistema gisa funtzionatzeko
 - EUSeko unibertsitateetan kontabilitate analitikoak ezartzea
 - EUSaren oihartzuna areagotzea

EFIZIENTZIA ETA KALITATEA

4.2-7 irudia. 2015-2018 aldian aurre egin beharreko Euskal Unibertsitate Sistemaren erronkak

Iturria: geuk egina, Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateekiko kontrasteen oinarrituta

4.3 Planaren hedapenari lotutako jomugen lorpen-maila

Programa-kontratuak funtsezko elementuak dira Unibertsitate Planak bultzatzen dituen tresnen artean. Urte anitzekoak dira, eta Jaurlaritzak eta Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate bakoitzak jardun batzuen bidez lan-plan bat egikartzeko eta arrakasta izanez gero hainbat jomuga lortzeko lortu duten adostasuna islatzen dute.

Unibertsitateek antzeko helburuak eta antzeko orientazio orokorra izan baditzakete ere, unibertsitate bakoitzak babes publikoa jasotzen du hainbat ñabardura desberdin dituzten, programa-kontratuen aurrekontu orokorrean zenbateko bereizia duten eta abiapuntuko posizioaren arabera jomuga kuantitatibo espezifiko batzuk planteatzen dituzten jardun jakin batzuk egikaritzean.

Egikaritu beharreko ekintzei eta lortu beharreko jomugei dagokienez Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate bakoitzerako lan-esparru bereizi baten ezarpenean oinarritutako ikuskera horretatik abiatuta, unibertsitate bakoitzak bost programa-kontratu izan ditu:

- *Prestakuntza arautua.* Horren barruan, hezkuntza-eredu berri eta/edo hobetuen bultzadari, IILak eta AZLak irakaskuntza-metodo berrietan trebatzeari, hizkuntza-normalizazio eta eleaniztasunari, prestakuntza-eskaintzaren nazioartekotzeari eta ikasleen, IILen eta AZLen mugikortasunari lotutako jardunak daude.
- *Arautu gabeko prestakuntza.* Bizitza osoko etengabeko prestakuntzan, prestakuntza jarraituan eta/edo profesionalean oinarrituta dago, eta hezkuntza-eskaintza sortzeko eta IILak eta AZLak trebatzeko jardunak biltzen ditu.
- *Ikerketa.* Unibertsitateen ikerketa-eginkizunari lotuta dago, eta ikertzaileen prestakuntzarekin, proiektuei eta ikerketa-taldeei eman beharreko babesarekin eta ikerketa-jardueraren nazioartekotzearekin zerikusia duten jardunak biltzen ditu.
- *Transferentzia.* Unibertsitatearen hirugarren eginkizunari lotuta dago, eta jakintza ustiatu eta transferitzeko planak lantzearekin, jakintzaren balorizazioarekin, enpresekiko jardueren sustapenarekin, zerbitzu-eskaintza bat finkatzearekin eta jakintza transferitzeko egiturak eta prozesuak (mintegiak eta parkeak, besteak beste) abian jartzearekin zerikusia duten jardunak biltzen ditu.
- *Ekitatea, efizientzia eta gizarte-proiektzioa.* Eremu horien barruko jardunak biltzen ditu. Jardun-planak egin eta abian jartzeko aukera, kalitatearen egiaztapena eta ziurtapena eta kudeaketa hobetzen duten tresna espezifikoaren definizio eta ezarpena babesten ditu.

Programa-kontratuaren bildutako jardunak hainbat motatan antolatuta daude: jardun berritzaileak, trebakuntza-jardunak, nazioartekotze-jardunak, kalitate-jardunak eta abar.

Bestalde, jardun horien eragina neurtzen duten jomugak bi motakoak dira: kuantitatiboak eta kualitatiboak. Kuantitatiboek jomuga baten lorpena deskribatzen dute balio absolutuan, aribideko urtearekiko hazkunde gisa edo termino erlatiboetan, magnitude global baten aurrean. Kualitatiboek, berriz, konprometitutako jardunen garapen-maila deskribatzen dute (plan baten diseinu,

abiarazte eta/edo eguneratzearena, adibidez). Horien betetzearen jarraipenari eta ebaluazioari dagokionez:

- Ezarritako baliora iristen direnean edota erreferentziazko balio horretatik %10 azpitik daudenean *betetzen dute jomuga* adierazleek.
- *Jomuga erdizka bete dela* esaten da adierazleak jomuga finkatzeko erreferentzia gisa ezarritako balioaren %50-80ra iristen direnean.
- Adierazleek *ez dute jomuga betetzen* jomuga finkatzeko erreferentzia gisa ezarritako balioaren %50era iristen ez direnean.


Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateen programa-kontratuen ebaluazioa eta jarraipena irizpide kuantitibo horietan oinarrituta egin da orain arte, horiek ulertzen laguntzen duten testuinguru-elementu batzuen analisiarekin osatuta.

Unibertsitateek programa-kontratueta aurreikusitako jardunak egikaritzean eta jomugak lortzean agertutako jarduna

2011-2014ko Unibertsitate Planaren lehen hiru urteen (2011-2013) analisiaren arabera, konprometitutako jardunen **egikaritze-maila oso handia** izan da.

Aurreikusitako jomugen lorpenari dagokionez, 2013. urtean hiru unibertsitateek programa-kontratuen jomugen %81 lortu zuten gutxienez. Hazkunde-proportzio handia da, baina aurreko urteetako baino txikiagoa. Izan ere, jomuga zailagoak zehaztu dira planaren azken urteetarako, eta zaila da aurreikusitako hazkundeei eustea inbertitu beharreko baliabideak murrizten diren testuinguru batean (Estatutik iritsitako baliabide publikoak barnean hartuta).

2011-2013ko programa-kontratuak, guztira



4.3-1 irudia. Programa-kontratueta ezarritako jomugen betetze-mailaren urteko bilakaera (%)

Iturria: unibertsitate bakoitzeko programa-kontratuen adierazleen agregazioan oinarritutako analisisia


Programa-kontratu bakoitzeko analisi espezifiko baten bidez, honako hauek bereiz daitezke:

- Lortutako adierazleen ehunekoari dagokionez portaera batez bestekoaren berdina edo hobe izan duten programa-kontratuak. Prestakuntza arautuko

eta arautu gabeko programa-kontratuen eta ekitate, eraginkortasun eta gizarte-proiektuak programa-kontratuen kasua da.

- Lortutako adierazleen ehunekoari dagokionez batez bestekoa baino jardun okerragoa izan duten programa-kontratuak; ikerketako eta transferentziako programa-kontratuen kasua da.

2013ko programa-kontratu guztien betetze-maila



4.3-2 irudia. Programa-kontratuen 2013ko jomugen betetze-maila (%)

Iturria: unibertsitate bakoitzeko programa-kontratuen adierazleen agregazioan oinarritutako analisisia

lido horretan, azpimarratu beharra dago Deustuko Unibertsitateak eta Mondragon Unibertsitateak transferentziako programa-kontratuan izan duten jardun ona. Programa-kontratu horretan, bereziki azpimarratzen zen unibertsitatearen hirugarren eginkizunak garrantzia hartzen zuen testuingurua.


Halaber, adierazi beharra dago ikerketako programa-kontratuan lortutako jardun-maila. Gainerako programa-kontratuen aldean lortutako jomugen ehuneko txikiagoa dela kontuan hartuta ere (ia %75,5), jomugei lotutako adierazleen kalitateak eta aurreikusitako jomugak lortzeko beharrezkoak diren hazkunde-mailek balioa ematen diete lortutako emaitzei.

Euskal Herriko Unibertsitateak programa-kontratuetaurreikusitako jardunak egikaritzean eta jomugak lortzean agertutako jarduna

Programa-kontratuei lotutako baliabideak hasieran planifikatutakoak baino txikiagoak izan diren egoera batean, Euskal Herriko Unibertsitateak 2013. urterako aurreikusitako jomugen %81,3 lortu du. Balio handiko erreferentzia da, lortutako jomugen garrantzia kontuan hartuta batez ere.

2015-2018ko Unibertsitate Planari begira, gogorarazi beharra dago programa-kontratu bakoitzean egindako hainbat ekintzari esker lortu ahal izan direla emaitza horiek. Ekintza horien bidez, egiturak sortu eta beharrezkoak ziren giza baliabideak ekarri dira. Jardunak garatu eta jarduna balioetsi ondoren, giza baliabideak Euskal Herriko Unibertsitatearen funtzionamendu arruntari dagokionez estrukturaltzat hartu beharko lirateke finkatzen direnean. Era horretan, jardun berrietarako aukera sortuko litzateke programa-kontratueta.

UPV/EHUn 2011-2013ko programa-kontratuak



4.3-3 irudia. Euskal Herriko Unibertsitatearen programa-kontratuen 2013ko jomugen betetze-maila (%)


Iturria: UNIBASQek UPV/EHUn programa-kontratuen adierazleen inguruan egindako balioespenaren agregazioan oinarritutako analisisa

Euskal Herriko Unibertsitateak bere programa-kontratueta lortutako jardun-maila konparatuz gero, honako balioespen orokor hau egin daiteke:

- Helburua oso era egokian bete da prestakuntza arautuko eta ikerketako programa-kontratueta. Bi eremu horiek nazioartekotzeko egindako ahalegina lotutako adierazleetan lortu diren emaitza onetan islatu da.
- Ekitate, efizientzia eta gizarte-proiektzioko programa-kontratueta, aurreikusitako jomugak bete dira. Gainera, aurreikusitako jardun gehienak egin dira.
- Arautu gabeko prestakuntzako eta transferentziako programa-kontratuen emaitzak xumeagoak izan dira lortutako jomugen ehunekoari dagokionez. Transferentzian lortutako emaitzek enpresa-sarera hurbiltzeko prozesuan

aurrera egiten jarraitzeko erronka planteatzen dute, eta arautu gabeko prestakuntzan, berriz, nolabaiteko atzerapena ikusi da bultzatzeko garaian.

UPV/EHUn 2013ko programa-kontratuaren betetze-maila



4.3-4 irudia. UPV/EHUn programa-kontratu bakoitzaren betetze-maila. 2013. urtea (%)

Iturria: UNIBASQek UPV/EHUn programa-kontratuaren adierazleen inguruan egindako balioespenaren agregazioan oinarritutako analisia

Programa-kontratu bakoitza zehatzago berrikusiz gero, honako emaitza hauen lorpena azpimarratu beharra dago.

Prestakuntza arautua

- Arrakastari, errendimenduari eta bertan behera uzteari lotutako tasetan, oso emaitza positiboak lortu dira gradu eta masterreko ikasketetan eta arlo guztietan: Giza Zientziak, Zuzenbide eta Gizarte Zientziak, Zientzia Esperimentalak, Osasun Zientziak eta Zientzia Teknikoak; salbuespenak oso puntualak izan dira.
- Hizkuntza-normalizazioari dagokionez, programa-kontratuan bildutako adierazle guztietan lortutako emaitzak onak izan dira; euskaraz emandako graduiko ikasketetako kredituak %77 baino gehiago izan dira, eta irakasle eta ikertzaile langile elebidunak %50 baino gehiago (horien artean, ia %80 doktoreak ziren). Garrantzitsua da, halaber, euskaraz landutako eskuliburu eta liburuen inguruko aurreikuspenak eta tesiak euskaraz egiteko beken kopuruaren ingurukoak bete izana (beka horietako asko nazioartekoak izan dira). Bestalde, euskarazko hizkuntza-eskakizun egiaztatutako plantillako plaketan dauden administrazio eta zerbitzuetako langileen kopurua (806) 2013rako ezarritako jomugara hurbildu da. Hala ere, euskaraz egiaztatutako langile batzuek derrigortasun-datarik gabe ari dira plazak betetzen.
- Euskal Herriko Unibertsitatea prestakuntza arautuaren eremuan nazioartekotzeari dagokionez, gradu, master eta doktoregoko ikasketak egin dituzten nazioarteko ikasleen kopuruak gainditu egin ditu aurreikuspenak. 2013. urtean, UPV/EHUko graduiko ikasleen %3k hartu

zuen parte mugikortasun-programetan, eta programa horietan hartu ziren ikasleak %1,7 izan ziren. Gainera, graduondoko ikasketetan matrikulatutako ikasleen %20,55 nazioartekoa da, eta, beraz, gainditu egin dira 2014an proposatutako erronkak. Bestalde, ingelesezko prestakuntza-eskaintzak ere gainditu egin ditu hasieran aurreikusitako jomugak. Izan ere, gradu kredituen %6,5 baino gehiago eta masterreko kredituen %15 ingelesez eman dira. Era berean, Euskal Herriko Unibertsitateko IILen ia %30 hizkuntza ez-ofizialetan egiaztatuta dago, eta, beraz, gainditu egin da adierazle horretarako ezarritako jomuga.

- Kalitatearen egiaztapenari dagokionez, AUDIT programaren barruko emaitzak bikainak izan dira. 2008. urtean programaren lehen deialdian 2 zentro aurkeztu zirenetik, Euskal Herriko Unibertsitateak konpromisoa hartu du programa hori garatzeko, eta bere 31 zentroen diseinuaren ebaluazio positiboa lortu du 2012an. Gainera, Unibertsitateko zentro guztien kalitate-batzordeak eratu dira. Era berean, zentroen barneko kalitate-sistemak kudeatzeko UNIKUDE programaren ezarpenak balioespen positiboa behar du (sistema horien bidez, kudeaketa-txostenak lantzen dira). Halaber, 2013. urtean, IILen %19,9k balioespen positiboa lortu du. Hortaz, alderdi horretan urte horretarako ezarritako jomuga gainditu da.
- Aitzitik, kalitateko prestakuntzari buruzko ikastaroetan parte hartu duten irakasleen ehunekoari dagokionez lortutako emaitzak (%50 baino gehiago) eta prestakuntza-ikastaroetan parte hartu duten AZLak (1.012) kontuan hartuta, adierazle horietarako espero ziren emaitzak (%75 eta 2.700, hurrenez hurren) ez dira lortu 2013an. Nolanahi ere, jomuga horiek oso asmo handikoak ziren.
- Zehaztutako jomuga kualitatiboei dagokienez, Euskal Herriko Unibertsitateak titulazioen mapa egin du, eta titulazioen jardunaren agintemahai bat lortu du.

Arautu gabeko prestakuntza

- Euskal Herriko Unibertsitateak ez du hedatu aurreikusitako titulazioen eskaintza, atzerapena izan baita konprometitutako ekintzak abian jartzean. Nolanahi ere, 2015-2018ko Unibertsitate Planari begira, adierazleen inguruko proposamen orekatuago bat hartu behar da kontuan, programa-kontratu baten balioespena adierazle bakar baten arabera izan ez dadin (2011-2014ko Unibertsitate Planean Euskal Herriko Unibertsitateko arautu gabeko prestakuntzako programa-kontratuarekin gertatu den bezala).

Ikerketa

- Ikertzaileen mobilizazioari dagokionez, ikerketa-zereginetan diharduten IIL aktiboen %60ko ehunekoa 2013. urterako aurreikusitako %81 horretatik oso urrun badago ere, lanaldi osoko ikertzaileen (LOB) kopurua urte horretarako jomuga gisa ezarritako kopurua (2.500) baino handiagoa izan da. Halaber, kontratatutako ikertzaileen kopuruak gainditu egin du aurreikusitakoa.
- Eskualdeko, Estatuko eta nazioarteko deialdietan lortutako itzulkinen dagokionez, emaitza desberdina izan da, hots, bikaina nazioarteko deialdietan eta irregularragoa Estatukoetan eta eskualdekoetan. Zehazki, 2013. urtean, Euskal Herriko Unibertsitateak 19,4 milioi €-ko itzulkinak lortu

zituen nazioarteko deialdietan, hau da, erraz gainditu zuen urte horretarako ezarritako jomuga (10,2 M€), baita 2014rako ezarritako jomuga ere (12 M€). Bestalde, eskualdeko eta Estatuko deialdietan lortutako zenbatekoa (12,4 M€) ezarritako 22,7 M€-ko jomugaren azpitik geratu da. Ildo horretan, Estatuko deialdietan aurreikusitako jomugen aldean lortutako emaitza txarren arrazoia baliabideen murrizketa izan bada ere, eskualdeko programen kasuan analisi sakonagoa egin behar da balioespen bat egiteko. Analisi horrek honako alderdi hauek hartu behar ditu kontuan: unibertsitateek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean duten protagonismoa, eta ikerketaren profilaren egokitze-maila babes-programa nagusien ezaugarrietara.

- Euskal Herriko Unibertsitateak emaitza bikainak lortu ditu produkzio zientifikoari eta eraginari dagokionez. WoSeko (ISI) JCR zerrendan bildutako aldizkarietako 2.100 argitalpenek, horien eragin-indizeek eta metatutako zitazioen bolumenak gainditu egin dituzte aurreikusitako jomugak. Izan ere, 2013. urtean, UPV/EHUko Hirsch (h) indizea 137 izan da (hau da, urte horretarako jomuga gisa finkatutakoa baino askoz handiagoa). Horren ondorioz, Herrialdeko erreferentziazko agente zientifiko bihurtu da Euskadiko unibertsitate publikoa, gainerakoekiko alde handiarekin gainera.
- Ikertzaileen prestakuntzari dagokionez, aurreikusitako jomugekin bat etorri dira emaitzak, bai irakurritako tesien kopuruari dagokionez (360 doktorego-tesi 2013. urtean, eta, horietatik, 106 nazioartekoak), bai prestakuntzako ikertzaileen kopuruari dagokionez. Ildo horretan, 2015-2018 aldiari begira, ahalegin horretan jarraitu beharra dago, unibertsitateko langile propioek doktore-gradua aurreikusitako planak betez lor ditzaten, eta sistemak ikertzaileei dagokionez behar duen ordezte-tasa bermatu ahal izan dadin. Bestalde, enpresako ikertzailearen figura balorizatu, eta euskal enpresa-sareak kalifikazio handiko baliabide horiek hartzeko duen ahalmena hobetu behar da.

Transferentzia

- Aurreikusi bezala, Zerbitzuen Katalogoa diseinatu, inplementatu eta eguneratu egin da. Halaber, Patenteen Bulegoa sortu da, eta abian dago.
- 2013. urtean, 15 *spin-off* sortu dira, hau da, 2013. eta 2014. urteetarako jomuga gisa aurreikusitako 12ak baino gehiago.
- Estatuko patenteen eskaerari dagokionez, aurreikusitako jomugak bete egin dira, 2013. urtean izan ezik. Urte horretan, beherakada bat izan da aurreko urteetan lortutako mailekin alderatuta. Oso elementu koiunturala dela interpretatu da. Teknologiako lizentziamendu-kontratuei buruzko datuak jomugetan ezarritako bilakaeraren antzekoak izan dira (urteko 5 kontratu inguru).
- 2013. urtean kontratupeko diru-sarreretan eta kanporako zerbitzu teknikoan ondoriozko diru-sarreretan espero ziren emaitzak ez dira lortu. Kontratupeko diru-sarrera gisa, 7 milioi € lortu dira, hau da, aurreikusitako 13,5 milioi € horien erdiak ia, eta beheranzko joera bat dagoela esan daiteke (11,4 M€ 2011. urtean eta 9,4 M€ 2012an). Bestalde, zerbitzu teknikoengatiko diru-sarrerak (430.000 euro) aurreikusitakoak (550.000 euro) baino txikiagoak badira ere, bilakaera egonkorragoa dute denboran.

Euskal Herriko Unibertsitateak aurrera egingo du enpresetara hurbiltzeko erronkan, eremu pribatutik iristen diren itzulkinak hobetzeko ez ezik, atal horretan erreferentzia diren beste unibertsitate batzuen pareko posizio bat lortzeko ere bai.

Ekitatea, efizientzia eta gizarte-proiektzioa

- Iraunkortasun Bulegoa sortu da, eta arriskuen prebentzioari, laneko segurtasun eta higieneari, berdintasun-planari eta komunikazio-planari lotutako planak ezarritako epeetan egin dira.
- Era berean, Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizunaren Memoria eguneratuta dago, finkatutako helburuan ezarri bezala. Halaber, Iraunkortasun Plana eta e-administrazioa garatzeko Plana landuta eta inplementazio-fasean daude.
- Kontabilitate analitikoari dagokionez, tresna diseinatu da, baina ez da inplementatu aurreikusitakoaren arabera. Kasu horretan, Ministerioak inplementatu beharreko kontabilitate analitikoaren ereduaren inguruan emandako aginduak izan dira atzerapenaren arrazoiak.
- Euskal Herriko Unibertsitateak komunikabideetan izan dituen agerpenen kopurua 8.300 izan da 2013an, hau da, urte horretarako aurreikusitakoak (5.750) baino askoz gehiago. Komunikabideek gero eta presentzia handiagoa dute unibertsitatean, eta, beraz, bete egin dira programa-kontratu honetan urtez urte ezarritako jomugak.

2015-2018ko programa-kontratuaren kontuan hartu beharreko elementuak

Euskal Herriko Unibertsitatearen 2011-2013 aldiko programa-kontratu bakoitzean agertutako jarduna kontuan hartuta, 2015-2018ko Unibertsitate Planari begira kontuan hartu beharreko hainbat erronka espezifiko identifika daitezke:

- **Prestakuntza.** Eremu honetan lortutako jardun egokiak jarraitu egin behar du etengabeko hobekuntzan, IILak eta AZLak kalitatean eta berrikuntzan trebatzeko aukeran, nazioartekotzean eta hizkuntza-normalizazioan sakonduko duten, eta araudian ezarritako ebaluazio- eta egiaztapen-eskakizunak (ahalegin handia egitea eragingo dutenak) betetzea ahalbidetuko duten ekintzen proposamenarekin. Ildo berean, Euskal Herriko Unibertsitateak graduondoko ikasketen Plan Estrategikoa onartu du, araudia hobetu eta egokitu egin du eta pizgarri-sistema bat ezarri du (emaitzak lortzearen truk). Hori kontuan hartuta, bere Plan Estrategikoa erabat hedatu behar du, eta hainbat jardun egin behar ditu graduondoko ikasketen kalitatea hobetze aldera eta graduondoko ikasketen eskaintzan gero eta profesionalizazio- eta ikerketa-balio handiagoa lortzeko proposamen bat bultzatze aldera.
- **Bizitza osoko prestakuntza.** Arautu gabeko prestakuntzan, sendotze-lan irmoa egin behar da, beste unibertsitateen artean posiziorik ez galtzeko eta, batez ere, aurreikusitakoaren arabera datozen urteetan Euskadik izango duen egoera demografiko eta profesionalean gero eta eskari handiagoa izango duen bizitza osoko prestakuntzari erantzuteko.


- **Ikerketa.** Honako ekintza hauek hartu dira kontuan: ikerketa-jardueretan II Len ehuneko handiagoa mobilizatzea, arlo eta zentro batzuen sendotze espezifikaren premiari erantzutea, ikerketa-jardueraren nazioartekotzean aurrera egitea, eta, horretarako, egitura jakin batzuk sendotzea eta hainbat jakintza-arlotako ikerketa-gaitasunak unibertsitatearen barruko ikerketa-taldeen artean eta kanpoko beste talde batzuekin (ZTBESkoekin bereziki) lankidetzara egonkorra izatea ahalbidetuko duten egitura eta plataformekin hibridatzea. Azken horri dagokionez, ikerketaz bestelako gai batzuetan bezalaxe, Euskampusen funtsezko zeregina bete beharko luke.
- **Transferentzia.** Euskal Herriko Unibertsitateak erabakitasunez egin behar du aurrera enpresa-sarerako hurbilketa hobetzeko erronkan. Horretarako, lehenik eta behin, ikerketa-jardura Euskadiko Espezializazio Adimendunaren lehentasunezko eremuetara bideratzeko beharra identifikatu behar da. Bigarrenik, enpresetara hurbiltzeko moduari buruzko planteamendu egituratu bat behar da, esparru horretan egin beharreko ekintzei zentzua emateko: zer transferi daitekeen, zein enpresari, eta nola. Eremu horretan, berriz ere, Euskampusen bultzatutako lankidetzari ikerketaren eta transferentziaren ereduak funtsezko zeregina bete behar du politika horiek egituratzeko garaian.
- **Ekitatea, efizientzia eta gizarte-proiektzioa.** Euskal Herriko Unibertsitateak genero-berdintasunari, inklusioari, ingurumenaren iraunkortasunari, ikasleen parte-hartzeari, enplegarritasunaren hobekuntzari, komunikazio eta zabalkundeari eta unibertsitateko gizarte-erantzukizunari lotutako elementuekin lan egiten jarraitu behar du. Horrez gain, 2015-2018 aldiari begira, azpimarratu beharko funtsezko bi elementu identifikatzen dira: administrazioaren modernizazioan eta prozesuen hobekuntzan aurrera egitea ahalbidetuko duten teknologien txertatzea, eta baliabideen kudeaketa efizienteagoa eta eraginkorragoa egiteko eta Administrazioarekin mekanismo gardenagoak ezartzeko (eta, era horretan, funtzionamendu arrunterako beharrezkoak eta nahikoak diren baliabideak ulertu eta justifikatzeko) baliagarria izan behar duen kontabilitate analitikoaren behin betiko ezarpena.

2011-2013 aldiko programa-kontratuen bilakaeran oinarrituta adierazten diren elementuak, maila estrategikoan identifikatutako beste ingurune-gako batzuei eman beharreko erantzunarekin batera, Euskal Herriko Unibertsitatearen programa-kontratu berrien diseinua bideratzeko oinarriak izango dira 2015-2018 aldian, eta aurrerago aztertuko ditugu.

Deustuko Unibertsitateak programa-kontratueta aurreikusitako jardunak egikaritzean eta jomugak lortzean agertutako jarduna

Programa-kontratuei lotutako baliabideak hasieran planifikatutakoak baino txikiagoak izan diren egoera batean, Deustuko Unibertsitateak 2013. urterako aurreikusitako jomugen %83,6 lortu du. Gainera, kontuan hartu behar da lortutako jomugen ehunekoa urte horretan nolabait ere moteldu egin dela aurreko ekitaldiekin alderatuta. Nolanahi ere, balio handiko erreferentzia da, batez ere kontuan hartuta lortutako jomuga moten garrantzia eta hasieran aurreikusitako jomugak lortzeak eragingo zituen hazkunde-tasak.

UD/DUren 2011-2013ko programa-kontratuak



4.3-5 irudia. Deustuko Unibertsitatearen programa-kontratuen 2013ko jomugen betetze-maila (%)


Iturria: UNIBASQek Deustuko Unibertsitatearen programa-kontratuen adierazleen inguruan egindako balioespenaren agregazioan oinarritutako analisia

Deustuko Unibertsitateak bere programa-kontratueta agertutako jarduna honela laburbil daiteke:

- Arautu gabeko prestakuntzako eta ekitate, efizientzia eta gizarte-proiekzioko programa-kontratuen helburu guztiak lortu dira.
- Prestakuntza arautuari, ikerketari eta transferentziari dagokienez, emaitzak onak izan dira, eta Deustuko Unibertsitateak berrikuntzan izan duen jardunaren bilakaera azpimarratu behar da. Deustuko Unibertsitatea, nolanahi ere, programa-kontratueta konprometitu zeuden eta oso asmo handikoak ziren ikerketa-jomugak betetzeko edo gutxienez hurbiltzeko gai izan da kasu guztietan. Gainera, oso epe laburrean lortu du hori, ikerketak gaitasunak sortzeko eta emaitzak lortzeko ezartzen dituen erritmoak kontuan hartuta batez ere. Era berean, prestakuntza arautuari eta transferentziari dagokienez, emaitza bikainak lortu dira.

2011. urteaz geroztik beste deialdi batzuetan lortutako emaitzek eta aintzatespenek adierazitako guztia berresten dutela kontuan hartuta, zalantzarik gabe esan daiteke Deustuko Unibertsitateak bere eginkizun guztietan hobetu egin duela unibertsitate integral gisa zuen posizionamendua.

UD/DUren 2013ko programa-kontratuen betetze-maila



4.3-6 irudia. Deustuko Unibertsitatearen programa-kontratu bakoitzaren betetze-maila. 2013. urtea

Iturria: UNIBASQek Deustuko Unibertsitatearen programa-kontratuen adierazleen inguruan egindako balioespenaren agregazioan oinarritutako analisisia

Programa-kontratu bakoitzaren analisi sakonagoa eginez gero, honako emaitza hauek azpimarra daitezke:

Prestakuntza arautua

- Arrakastari, errendimenduari eta bertan behera uzteari lotutako tasetan, oso emaitza positiboak lortu dira Deustuko Unibertsitateak ikasketa-eskaintza bat duen arlo guztietan: Giza Zientziak, Zuzenbide eta Gizarte Zientziak eta Zientzia Teknikoak, gradu zein masterreko ikasketetan. Azken arlo horretan, arrakasta-tasa gainerakoena baino txikiagoa bada ere, bilakaera oso positiboa izan da, eta %90 ingurura iritsi da 2013an.
- Hizkuntza-normalizazioari dagokionez, lortutako emaitzak onak izan dira. 2013. urtean, IILen %20k euskaraz eman zituen eskolak, eta AZLen %43,6 bere lana euskaraz betetzeko gaitasuna du. Euskarazko graduako kredituen ehunekoa %34tik gora izan da 2013an, eta euskarazko doktorego-programen eskaintza bat dago (2010. urtean ez zegoen horrelakorik).
- Deustuko Unibertsitatearen nazioartekotze-mailari dagokionez, nazioartekotzea Unibertsitatearen indar nagusietako bat da gradu, master zein doktorego-ikasketetan, bai bertako ikasleen mugikortasunagatik, bai nazioarteko ikasleen kopuruagatik. Ia adierazle guztietan bete dira aurreikusitako jomugak. 2013. urtean, graduako ikasleen %10 baino gehiago, graduondoko ikasleen %26 eta doktoregoko ikasleen %36 nazioartekoa izan da. Bestalde, bertako ikasleen mugikortasuna %10,7ra iritsi da graduako ikasleen kasuan, %14ra graduondokoen kasuan, eta %7ra doktoregokoen kasuan. Atzerriko egonaldiak kontuan hartuta, IILen eta AZLen mugikortasun-zifrak ere onak izan dira 2013an (%6 eta %16,2, hurrenez hurren).

- Aurrekoari lotuta, nazioarteko beste unibertsitate batzuekiko mugikortasun-hitzarmenek, titulazio bikoitzek eta Europako masterrek aurreikusitako jomugen arabera bilakaera izan dute.
- Bestalde, azpimarratu beharra dago ingelesak Deustuko Unibertsitateko ikasketa-programetan eta plantillan duen presentzia. Gradu, master eta doktoregoko ikasketetan, ahalegin handia egin da eremu horretan (2013an eskainitako kredituen %23,7, %31,5 eta %15,0, hurrenez hurren), eta ingelesezko eskaintzak hazkunde handia izan du, gradu eta doktoregoko ikasketetan bereziki. Halaber, IILen eta AZLen herenak baino gehiago gai dira eskolak ingelesez emateko edo zerbitzuak ingelesez eskaintzeko, eta plantilako IILen %18,1ek ingelesez eman ditu eskolak 2013an.
- Irakasleen prestakuntzari dagokionez, lortutako emaitzak oso onak izan dira. Izan ere, 2013. urtean, irakasleen %92k GHEEko prestakuntza-ekintzetan parte hartu du. Gainera, irakasleentzako prestakuntza-ikastaroen kopuruak %44ko hazkundea izan du urtean.
- Kalitateari dagokionez, programa-kontratuan aurreikusitako Audit eta Docentia egiaztapenak kopuru eta epe egokian lortu dira.
- Era berean, Deusto International Tuning Academy (DITA) izenekoaren, Deusto e-Campus izenekoaren eta Eleaniztasunaren Plan Gidariaren diseinu eta/edo abiarazteari lotutako jomuga kualitatibo guztiak bete dira.

Arautu gabeko prestakuntza

- Deustuko Unibertsitateak programa-kontratu honetan planteatutako jomugen %100 bete du. Lortutako emaitzek adierazten dutenez, unibertsitateak indar handia du eremu horretan, eta, 2013. urtean, 1.790 ikasle izan dira etengabeko prestakuntzako ikastaroetan, eta 1.351 ikasle prestakuntza jarraituko ikastaroetan). Prestakuntza jarraituaren kasuan, azpimarratu beharra dago ikasleen urteko batez besteko kopuruan %11ko igoera izan dela 2011-2013 aldian.

Ikerketa

- Produkzio zientifikoari dagokionez, Deustuko Unibertsitatearen emaitzek oso hobekuntza ona izan dute, batez ere planteatutako jomugak oso asmo handikoak zirela kontuan hartuta. Unibertsitateak 112 artikulua argitaratu ditu, eta, beraz, hirukoiztu egin da 2013an ISI aldizkarietan 36 argitalpen lortzeko helburua. Era berean, urte horretan bertan 58 tesi aurkeztu dira (hau da, 2010eko datuen bikoitzak), eta nazioarteko proiektu, partzuergo eta sareetan izandako presentziarekin erraz lortu dira ezarritako jomugak. Eragin handiko argitalpenen kopuruaren bilakaerari dagokionez, metatutako urteko hazkunde-tasa %18 ingurura iritsi da 2011-2013 aldian.
- Eskualdeko, Estatuko eta nazioarteko deialdietan izandako presentziaren balioespen positiboa lortutako itzulkinen bilakaeran islatu da (Europar lortutakoen bilakaeran bereziki). 2013. urtean, 2 milioi € lortu ziren eskualdeko deialdietan, eta milioi bat € Estatuko deialdietan. Beraz, oso emaitza onak izan dira; 2010. urtean eskualdeko deialdietan lortutako itzulkinak hirukoiztu egin dira, eta Estatukoetan, berriz, lauukoiztu. 2013an, bestalde, 1,4 milioi €-ko itzulkinak lortu dira Europako deialdietan, eta,

beraz, kopurua hasieran baino zazpi aldiz handiagoa izan da. Nolanahi ere, hasierako egoera oso ahula zen, eta Deustuko Unibertsitatearen espezializazioak eta orduan Erkidegoan proposatu ziren ikerketa-ekintzen tipologiak baldintzatuta zegoen.

- Halaber, Deusto International Research School (DIRS) izenekoaren eta Deusto Advanced Research Centre (DARC) izenekoaren diseinuari eta/edo abiarazteari lotutako jomuga kualitatibo guztiak bete dira.
- Deustuko Unibertsitateak programa-kontratu honetan lortutako emaitzak testuinguruan kokatzeko, esan beharra dago arduraldi osoko 202 ikertzaile zituela 2013. urtean. Hortaz, ikertzaileen kopuruak %28ko igoera izan du 2010. urteaz geroztik.

Transferentzia

- Enpresentzat lan egiten duten ikertzaileen kopurua igo egin da (kopuru absolutuetan zein LOBean), eta urte guztietarako aurreikusitako jomugak bete dira. Zehazki, 102 ikertzaile (30 LOB) izan dira 2013an.
- Enpresek, erakundeek eta gizarte-entitateek kontratatutako doktoreak 3 izan ziren 2010ean, eta 33 2013an. Gainera, hirukoiztu egin da azken urte horretarako planteatutako jomuga.
- 2013. urtean, 12 *spin-off* sortu dira (aurreikusitakoak baino 3 gehiago). 2013an, halaber, 22 enpresa finkatu dira mintegi eta parkeetan, eta 28 prestakuntza-jardun egin dira eremu horretan, berrikuntza eta ekintzailetzako 3 programatan hain zuzen ere.
- Kontratu bidezko diru-sarrereri dagokienez, 1,6 milioi € lortu dira, eta, 2013rako jomuga lortu ez bada ere (1,8 milioi €), programa-kontratuaren indarraldian izandako bilakaera oso ona izan da, urtean %8,9ko igoera lortu baita batez beste.
- Programa-kontratu honetan, Deustuko Unibertsitatearen hobekuntza-arlo nagusietako bat patenteen eskaera eta lizentziamendua da. Bi kasuetan, aurreikusitako jomugak ez dira bete ezein urtetan. Gainera, 2012. eta 2013. urteetan, ez da emaitzarik lortu. Ildo horretan, beharrezkoa da 2015-2018ko Unibertsitate Planaren aldian ikerketa-eremuko jardunaren hobekuntza adierazle horietan islatzea.
- Deustuko Unibertsitateak Deusto E-Parque izenekoaren, Innoguneen (Bilbo + Donostia) eta enpresa, erakunde eta gizarte-entitateentzako Zerbitzuen Katalogoaren diseinu eta/edo abiarazteari lotutako jomuga kualitatibo guztiak bete ditu.

Ekitatea, efizientzia eta gizarte-proiektzioa

- Gizarte-izaerako proiektuetan eta erakundeekin ezarritako lankidetzari lotutako adierazle guztiak bete dira. 2013. urtean, Deustuko Unibertsitateak 60 lankidetzatza-hitzarmen zituen gizarte-erakundeekin.

- Era berean, iraunkortasun-plan gidariak, Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizunaren Urteko Memoria, Enpleguaren Plan Gidaria eta Komunikazioaren Plan Gidaria lantzeko helburua bete da.
- Unibertsitatearen bitartez bideratutako enpleguei dagokienez, emaitzak oso positiboak izan dira. Izan ere, Deustuko Unibertsitateak 501 enplegu bideratu ditu 2013. urtean, eta, beraz, 500 lanpostu lortzeko aurreikusitako jomuga bete du.

2015-2018ko programa-kontratuetan kontuan hartzeko elementuak


Adierazitakoaren arabera Deustuko Unibertsitatearen 2011-2013 aldiko programa-kontratu bakoitzean agertu den jarduna kontuan hartuta, 2015-2018ko Unibertsitate Planari begira kontuan hartu beharreko hainbat erronka espezifiko identifika daitezke:

- **Prestakuntza.** Eremu honetan izandako jardun egokiak jarraitutasuna izan behar du, eta, horretarako, etengabeko hobekuntzan, IIL eta AZLe kalitatean eta berrikuntzan behar duten trebakuntzan, nazioartekotzean eta hizkuntza-normalizazioan sakonduko duten eta araudiak ebaluazioari eta egiaztapenari dagokienez ezarritako eskakizunak (ahalegin handia egitera behartuko dutenak) betetzea ahalbidetuko duten ekintzak proposatu behar dira. Erakarritako nazioarteko ikasleei eta bertako ikasleen mugikortasunari dagokienez gaur egun baino nazioartekotuago egongo den unibertsitate bihurtzeko duen ahalmena ikertzeko erronkari egin behar dio aurre Unibertsitateak, eta ahalegin horrek eredu indartzen duela egiaztatu behar du.
- **Bizitza osoko prestakuntza.** Aurreikusitakoaren arabera datozen urteetan Euskadik izango duen esparru demografiko eta profesionalean, gero eta eskari handiagoa izango du bizitza osoko prestakuntzak. Deustuko Unibertsitatea ongi kokatuta dago eremu horretan, eta egindako bidea finkatzeko erronkari egin behar dio aurre.
- **Ikerketa.** Arestian adierazi dugunez, aurrerapen bikainak egin dira. Deustuko Unibertsitateak eremu horretan duen erronka iraunkortasuna arriskuan jarri gabe ikerketan bere dimentsio egokia zein izan daiteken ulertzea da. Aristos Campus Mundus proiektuak efektu katalizatzaile garbia izan behar du.
- **Transferentzia.** Deustuko Unibertsitateak, Euskal Unibertsitate Sistema osoak bezalaxe, ikerketa-jarduera Euskadiko Espezializazio Adimendunaren lehentasunezko eremuetara egokitu beharra du. Teknologian, enpresa-arloan, erakunde-arloan eta gizarte-arloan oinarritutako transferentziaren ikuspegi zabal batetik abiatuta, Deustuko Unibertsitateak funtsezko zeregina bete behar du eremu jakin batzuk garatzeko garaian.
- **Ekitatea, efizientzia eta gizarte-proiektzioa.** Deustuko Unibertsitateak Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizunari lotutako elementuetan lan egiten jarraitu behar du: osasuna, elkartasuna, genero-berdintasuna, sarbidea eta inklusioa, komunikazioa eta gizarte-proiektzioa.

Mondragon Unibertsitateak programa-kontratuetaurreikusitako jardunak egikaritzean eta jomugak lortzean agertutako jarduna

Mondragon Unibertsitateak 2013rako aurreikusitako jomuga guztien %77,3 lortu du. Lorpen-maila handia da, batez ere kontuan hartuta baliabideak hasieran aurreikusitakoak baino txikiagoak izan direla, helburuak lortu diren eremuetako adierazleak oso garrantzitsuak direla, adierazle batzuen balioak betetzetik oso hurbil geratu direla, eta, oro har, bete ez diren adierazleetan hasieran planteatutako jomuga asko asmo handikoak zirela. Hori guztia dela-eta, Mondragon Unibertsitatearen jardunaren balioespena positiboa da.

MUren 2011-2012-2013ko programa-kontratuak




4.3-7 irudia. Mondragon Unibertsitatearen programa-kontratuen 2013ko jomugen betetze-maila (%)

Iturria: UNIBASQek Mondragon Unibertsitatearen programa-kontratuen adierazleen inguruan egindako balioespenaren agregazioan oinarritutako analisisia

Balioespen orokor bat eginez, Mondragon Unibertsitateak programa-kontratu bakoitzean agertu duen jarduna honela interpreta daiteke:

- Jomuga guztiak bete dira arautu gabeko prestakuntzako, transferentziako eta ekitate, eraginkortasun eta gizarte-proiektzio programen kontratuetaurreikusitako jardunak, baina emaitzak aipagarriak izan dira bi programa-kontratuetaurreikusitako jardunak. Hori gertatu da, adibidez, arrakasta- eta enplegarritasun-tasen, produkzio zientifikoaren areagotzearen edo doktoreen prestakuntzaren inguruan lortutako emaitzekin.

MUren 2013ko programa-kontratuen betetze-maila



4.3-8 irudia. Mondragon Unibertsitatearen programa-kontratuen betetze-maila. 2013. urtea (%)

Iturria: UNIBASQek Mondragon Unibertsitatearen programa-kontratuen adierazleen inguruan egindako balioespenaren agregazioan oinarritutako analisisia

Programa-kontratu bakoitza berrikusita, lortutako honako emaitza hauek azpimarra daitezke.

Prestakuntza arautua

- Arrakasta- eta enplegarritasun-tasek oso emaitza onak izan dituzte Zuzenbide eta Gizarte Zientzien eta Zientzia Teknikoen arloetan. Bi arlo horietan, arrakasta-tasek erraz gaititu dute %90eko muga, eta, beraz, 2011-2013 aldirako planteatutako jomugak bete egin dira. Gizarte eta Zuzenbide Zientzien arloan, %92,4ko tasa lortu da 2013an, eta Zientzia Teknikoen arloan, berriz, %93,3ra iritsi da. Bestalde, enplegarritasun-tasek ere oso datu onak eman dituzte, batez ere krisi-testuinguru batean lortu direla kontuan hartuta.
- Mondragon Unibertsitateak prestakuntza arautuaren eremuan lortutako nazioartekotzeari dagokionez, graduiko nazioarteko ikasleek eta graduiko bertako ikasleek mugikortasun-programetan duten ehunekoari dagokionez, argi eta garbi gaititu dira 2013rako aurreikusitako jomugak (%2,8 eta %11,5, hurrenez hurren). Hala ere, ez da gauza bera gertatu master eta doktoregoko ikasleekin. Kasu horretan, urrun geratu dira hasieran ezarritako jomugak.
- Ingelesari dagokionez, Mondragon Unibertsitatean emaitza onak lortu dira eskaintako graduiko kredituen ehunekoan. Izan ere, 2013an lortutako %16,1 horrekin gaititu egin da urte horretarako jomuga (%15). Era berean, eskolak ingelesez ematen dituzten II Len ehunekoak eta zerbitzuak ingelesez eskaini ditzaketen AZ Len ehunekoak bete egin dute 2013rako finkatutako helburua.

- Halaber, beste unibertsitate batzuekiko mugikortasun-hitzarmenen, titulazio bikoitz edo partekatuen eta Europako masterren bilakaerak bete egin ditu aurreikuspenak.

Arautu gabeko prestakuntza

- Programa-kontratu honen emaitzek garbi erakutsi dute Mondragon Unibertsitatearen indarretako bat. 2013 jomuga guztiak bete dira, eta azpimarratu beharrekoak dira prestakuntza jarraituko eta/edo etengabeko prestakuntzako programetan parte hartu duten ikasleen kopurua (6.253 ikasle 2013. urtean), eta bizitza osoko prestakuntzari lotutako jardunetan parte hartu duten irakasleen ehunekoa (%79,4 2013. urtean).

Ikerketa

- Produkzio zientifikoak bilakaera ona izan du 2011tik 2013ra bitarte. ISI aldizkarietan eta lotutakoetan argitaratutako artikulak 46 izan dira 2013. urtean, eta, beraz, aurreikusitako jomuga bete egin da (45 argitalpen). Gainera, urteko %13ko hazkundera lortu da batez beste planaren hasieratik. Bestalde, 2013an irakurri diren 24 tesiekin bete egin da ezarritako jomuga. Emaiza bereziki bikaina da, unibertsitatearen ikertzaileen guztizko kopurua kontuan hartuta.
- Eskualdeko, Estatuko eta nazioarteko deialdietan lortutako itzulkinen dagokionez, emaitza desberdina izan da, hots, bikaina eskualdeko deialdietan, baina hobetzeko modukoa Estatukoetan eta nazioartekoetan. 2013. urtean, euskal programetan lortutako itzulkinen argi eta garbi gaintu dituzte jomugak. Izan ere, ia 5 milioi € lortu dira, eta jomuga 4 milioi € lortzea zen. Hala ere, 2013. urtean Estatuko eta nazioarteko programetan lortutako emaitzak planteatutako jomugetatik urrun geratu dira, eta urteko hazkunde-tasak negatiboak izan dira 2011-2013 aldiak: %-14,9 Estatuko programetan, eta %-7,9 nazioartekoetan. Azken emaitza hori ez dator bat nazioarteko sare, proiektu eta partzuergoetan izandako parte-hartzearekin, arlo horretan bete egin baitira parte-hartzeari zein, neurri txikiagoan bada ere, lidergoari dagokionez aurreikusitako jomugak.
- Ikertzaileen mobilizazioari dagokionez, ikerketa-zereginak egiten dituzten IIL aktiboen ehunekoa %77,9 izan da, eta 2013rako planteatutako jomuga gaintu da (%63), baina 105 ikertzaileekin (LOB) ez da lortu urte bererako jomuga (123 ikertzaile).

Transferentzia

- 2013. urtean, enpresetan lan egiten duten ikertzaileen kopuruari dagokionez ezarritako jomugak bete egin dira, termino absolutuetan zein LOBari dagokionez (220 eta 89,7, hurrenez hurren). Horrela, beraz, 2013. urtean ikertzaile gehiago aritu dira enpresetan lanean, baina 2011. urtean baino arduraldi indibidual txikiagoarekin.
- Enpresekin doktoreak prestatzeko abian jarritako lankidetzaren eremuan, enpresetan irakurritako tesien kopuruak gehikuntza handia izan du. Zehazki, 22 irakurri dira 2013an, hau da, urte horretarako aurreikusitako 9ak baino askoz gehiago. Era berean, enpresek kontratatutako doktoreen kopuruak ere zifra eta bilakaera positiboak izan ditu. Izan ere, 18 doktore kontratatu dira 2013an, eta 8 zeuden aurreikusita urte horretarako.

- 2013. urtean, 17 patente lortu dira (propioak edo unibertsitatearen esku-hartze erabakigarriarekin sortuak), eta ezarritako jomuga 12 lortzea zen. Halaber, patente propioen edo unibertsitatearen ustiapenarekin sortutakoen kopuruari lotutako jomuga bete da; izan ere, ustiatutako 3 patente izan dira, eta 3 zeuden aurreikusita 2013rako. *Spin-off* izenekoei dagokienez, 16 sortu dira 2013ra bitarte, eta horixe zen ezarritako jomuga.
- Kontratu bidezko diru-sarrerei dagokienez, transferentziaren eremua Mondragon Unibertsitatearen indarretako bat dela erakutsi dute lortutako emaitzek. Izan ere, kontratu bidezko diru-sarrerek %4,3ko igoera izan dute batez beste 2011tik 2013ra bitarte. Oso igoera garrantzitsua izan da, batez ere aldi horretan krisi-egoera bat bizi izan dela eta eremu horretan abiapuntuko zifrak handiak zirela kontuan hartuta.

Ekitatea, efizientzia eta gizarte-proiektzioa

- Gizarte-izaerako proiektu eta erakundeekiko lankidetzari lotutako helburuak bete egin dira, bai erakundeekin egindako lankidetzaz hitzarmenen eta egindako gizarte-proiektuen kopuruari dagokionez, bai deialdietan eta/edo gizarte-proiektuetan parte hartu duten langileei dagokienez. Kasu guztietan, emaitzek erraz gainditu dituzte 2011-2013 aldirako ezarritako jomugak.
- Aitzitik, Iraunkortasun Plana eta Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizunaren Memoria ez dira landu.

|

2015-2018ko programa-kontratueta kontuan hartzeko elementuak

Adierazitakoaren arabera Mondragon Unibertsitatearen 2011-2013 aldiko programa-kontratu bakoitzean agertu den jarduna kontuan hartuta, 2015-2018ko Unibertsitate Planari begira kontuan hartu beharreko hainbat erronka espezifiko identifika daitezke:

- **Prestakuntza.** Eremu honetan izandako jardun egokiak jarraitutasuna izan behar du, eta, horretarako, etengabeko hobekuntzan, IIL eta AZLe kalitatean eta berrikuntzan behar duten trebakuntzan, nazioartekotzean eta hizkuntza-normalizazioan sakonduko duten eta araudiak ebaluazioari eta egiaztapenari dagokienez ezarritako eskakizunak (ahalegin handia egitera behartuko dutenak) betetzea ahalbidetuko duten ekintzak proposatu behar dira. Mondragon Unibertsitatea, bereziki, master eta doktoregoko ikasleen barneko/kanpoko mugikortasunaren emaitzak hobetzeko erronkari egin behar dio aurre.
- **Bizitza osoko prestakuntza.** Aurreikusitakoaren arabera datozen urteetan Euskadik izango duen esparru demografiko eta profesionalean, gero eta eskari handiagoa izango du bizitza osoko prestakuntzak. Mondragon Unibertsitatea ongi kokatuta dago eremu horretan, baina egindako apustua finkatu behar du, eta, EUSaren barruan bereizgarria izango den unibertsitatearen estrategia propio gisa, internalizazioan lan egiten jarraitu behar du (kanpoan ezartzeko aukerekin).
- **Ikerketa.** Eremu horretan egindako aurrerapenak eta lortutako emaitzak gorabehera, Mondragon Unibertsitateak nazioarteko deialdietan duen presentzia sendotu eta itzulkinen inguruko emaitzak hobetu behar dira.
- **Transferentzia.** Mondragon Unibertsitateak eremu horretan izan duen jardun egokia dela-eta, Euskal Unibertsitate Sistemaren ordezkari nagusi bihurtu da enpresa-sarerako transferentzian. Mondragon Unibertsitateak beste gizarte-erakunde batzuei helarazi behar die esperientzia hori, baina ongi balioetsi behar du apustu hori bere ereduarekin bat datorren eta zer baliabide dauden eskuragarri.
- **Ekitatea, efizientzia eta gizarte-proiektzioa.** Mondragon Unibertsitateak genero-berdintasunari, inklusioari, ingurumenaren iraunkortasunari, komunikazio eta zabalkundeari eta unibertsitatearen gizarte-erantzukizunari lotutako elementuekin lan egiten jarraitu behar du.

5 2015-2018ko Unibertsitate Planaren egitura

2015-2018ko Unibertsitate Planaren helburua honako hau da: abian dauden apustuetan aurrera egitea, eta, horretarako, Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateen eskaintzaren arabera bereizketa bilatzea, Sistema gisa sendotzen duten jardunak bultzatzea eta jarraipenari eta ebaluazioari lotutako elementuak finkatzea.

2015-2018ko Unibertsitate Planak bultzatzen dituen jardunak bat datoz Espezializazio Adimendunaren Estrategian (RIS3 Euskadi) zehaztutako lehentasunekin, gaur egun bizi dugun egoera ekonomiko eta sozialari lotutako enplegarritasun-premiekin, Sistema jardun-eremu guztietan pixkanaka lortzen ari den nazioartekotzearekin eta Jaurlearitzaren beste plan batzuen bidez giza garapenari, hazkunde ekonomikoari eta iraunkortasunari lotuta egiten diren proposamenekin. Ildo horretan, politika publikoetan eta bere indarraldiko testuinguru ekonomiko eta sozialean txertatutako elementua da 2015-2018ko Unibertsitate Plana.

Unibertsitateek azken urteetan egindako ahaleginaren aitorpenetik eta epe labur eta ertainean erabili ahal izango diren balibideen balioespen errealista batetik abiatuta, 2015-2018ko Unibertsitate Plana Euskal Unibertsitate Sistemaren funtsezko elementuen babes eta sostenguearekin konprometituta dago.

Testuinguruari eta erabiliko diren baliabideei dagokienez, 2015-2018ko Unibertsitate Plana:

- Sistemaren gaitasun eta proiektuetan oinarrituta dago, eta haren trakzio-efektua baliatzen du etorkizuneko oinarriak sendo finkatzeko.
- Estatuko politiken ondorioz EUSaren garapenean eragina duten muga eta baldintzak gainditzeko, autogobernuaren ahalmen guztiak garatzen ditu.
- Goi-mailako hezkuntzako ikasketak egiteko aukeran ekitatea eta berdintasuna bermatzeko beharrezkoak diren elementuak txertatzen ditu.
- Euskal kulturaren garapena eta gero eta handiagoa den euskarazko irakaskuntzaren eskariari eskaini beharreko arreta bultzatzen duten gaitasunak eta eduki-eskaintza bat sortzeko konpromisoa du.
- Nazioartekotzea kalitate-irizpidetzat hartzen du Euskal Unibertsitate Sistema oro har garatzeko garaian.

5.1 Planaren orientazio estrategikoa

2015-2018ko Unibertsitate Planak Unibertsitate Sistemak garapen harmonikoa izatea du xede-helburu, eta, ildo horretan, erreferentzia hirukoitza du: Euskal Unibertsitate Sistemaren nazioarteko proiektioan aurrera egitea eta Herrialdeko lehentasunei erantzutea, emaitzak balorizatzea Sistemari berari eutsi ahal izateko, eta, azkenik, unibertsitateak bereiztea.

Honako premisa hauek ditu planteamendu horrek:

- Herrialderako balioa sortzeko, ezinbestekoa izango da nazioarteko kalitate-estandar batzuk lortzea.
- Goi-mailako hezkuntzako sistemarik aurreratuenak beren ingurunean txertatuta eta erronkei eman beharreko erantzun eta irtenbideen bilaketan inplikaturik daude, Herrialdea garatzen laguntzen duten jardun eta proiektu estrategikoak zuzentzen dituzte, eta tokiko irtenbideak ematen dizkiete erronka globalei.
- Euskal Unibertsitate Sistemak gai izan behar du unibertsitateen hirugarren eginkizunari, hots, transferentziari lotutako eragin nabarmen bat sortzeko. Unibertsitate-sistema orok gai izan behar du bere irakaskuntza- eta zientzia-jardueratik kanpo eragina izateko eta baliabideak (finantzaketa publikoaren gehigarriak) lortzeko.
- Unibertsitate bakoitzak proposamen baliodun bat eta bere errealitateetara egokitutako garapen-eredu bat sortu behar du. Unibertsitate Sistemak aurrera egin behar du gure gizartearen premiei erantzun ahal izatea eta dauden eskarien estaldura eragozten duten gainjartze eta gehiegizko ahaleginak ahal den neurrian saihestea ahalbidetuko duten eskaintza bat eta gaitasun global batzuk sortzeko bidean.

Ikuspegi horretatik abiatuta, bikaintasunak, Herrialdeko premiekiko arretak eta eragin ekonomiko eta soziala duten emaitzen lorpenak osatutako hirukoa funtsezko irizpidea izango da jardun eta proiektu estrategikoak identifikatzeko eta horien arabera baliabideak esleitzeko garaian.

Bikaintasuna eta aplikagarritasuna, epe laburra eta epe luzea, eta jakintza-eremu batzuk eta besteak aurrez aurre jartzeko asmoz egindako eztabaidak alde batera utzita, oinarritzko formulazio horrek argi eta garbi identifikatzen ditu munduko estrategia, plan, programa eta deialdien oinarri diren lehentasun-irizpideak.

Adierazitako erreferentzietan oinarrituta, Euskal Unibertsitate Sistemaren nazioarteko proiektioa 2015-2018ko Unibertsitate Planaren zeharkako jardun-ardatz bat izango da, eta lotutako ekintzak egingo dira eremu guztietan, hots, prestakuntzan, ikerketan eta transferentzian. Adierazitakoaren arabera, nazioartekotzea kalitate-bereizgarria da, eta agenteen jarduna hobetzen laguntzen du.

Plangintza estrategikoaren hasierak (2000-2006)	Lehen Plan Integrala: 2007-2010eko Unibertsitate Plana	Sistemaren finkatzea eta ikuspegia: 2011-2014ko Unibertsitate Plana	Balioaren sorkuntza eta gizartearen gaineko eragina: 2015-2018ko Unibertsitate Plana
Eusko Jaurlaritzak hainbat jardun egin zituen, eta sistema gisa 2004. urtera arte (hots, Unibertsitateen Euskal Legea onartu zen arte) izan ez den Euskal Unibertsitate Sistemaren aldi berean bilakatu ziren.	- Agente guztientzako bultzada-mekanismoak ezarri zituen, urte anitzeko ikuspegi batetik abiatuta. - Goi Mailako Hezkuntzako Europako Esparruan (GHEE) eta Europako Ikerketa Esparruan (EIE) txertatzeko erronka planteatzen du... ... eta EUSeko agente guztientzako urte anitzeko finantzaketa-tresna batzuk finkatzeko erronka ere bai.	- Aurreko elementu batzuetan sakondu zuen, horretarako erabilitako tresnen ikuspegia programa-kontratuetatik haratago zihoan, eta agente bakoitzaren jardun indibidualaz haratago zihoan sistema-ikuspegi baterako bilakaera izan zuen. - GHEEan eta EIEan txertatzeko erronkari egin behar izan zion aurre. - Hirugarren eginkizunaren sendotzeari, Euskal Berrikuntza Sistemari beharrezkoa den protagonismo handiagoari eta gizartearen beharrezkoa den presentzia handiagoari lotutako erronka berriak planteatu zituen.	- Sistemak kalitateari, bikaintasunari eta nazioarteko proiektzioari dagokionez dituen funtsezko erronkei aurre egiteko bidean aurrera egiteko helburuari eusten dio, GHEE eta EIEaren esparruan... ... inguruneke erronkak ezagutu eta ulertzeko erronka planteatzen du, erantzuten lagundu ahal izateko... ... eta prestakuntza- eta ikerketa-jarduerak Euskadiko espezializazio adimendunari lotutako sektoreekin elkartzearen bidez euskal gizartearen balioa eta eragina sortzeko aukera azpimarratzen du.

5.1-1 irudia. Euskadiko unibertsitate-jardueraren plangintza estrategikoaren ibilbide historikoa, 2000-2015


Herrialdeko premiekiko arretaren erreferentzia-esparru nagusia Euskadiko Espezializazio Adimendunaren Estrategia da, bai prestakuntza-eskaintza egokiaren sorkuntzari, bai lehentasun-eremuetan eta aukera-nitxoetan aplikatzeko aukera bereziki kontuan hartuko duen ikerketa-jarduerari, bai hobeto egokitutako ikerketa batean oinarrituta egon behar duen transferentziari dagokionez.

Unibertsitate Sistemako unibertsitateen espezializazioari ekiteko, urte anitzeko lan-esparru batzuk ezarriko dira bakoitzarekin. Ildo horretan, akordio iraunkor batzuk ezarri nahi izan dira. Horien bidez, barne-funtzionamendu hobea eta efizienteagoa eragingo duten jardunak babestu behar ditu 2015-2018ko Unibertsitate Planaren bitartez iritsitako finantzaketa publikoak.

5.2 Eginkizuna, helburu estrategikoak eta jardun-ildoak

2015-2018ko Unibertsitate Planaren eginkizuna honako hau da:

“Euskal gizarteak goi-mailako prestakuntzaren inguruan dituen premiei eredu propio batekin erantzutea eta, horretarako, kalitateko zerbitzu-eskaintza inklusibo, iraunkor eta dinamiko bat bermatzea eta Euskadiko erronka sozial, kultural eta ekonomikoei aurre egiten lagunduko duen bikaintasun-ikerketa eta horren transferentzia egitea”.



5.2-1 irudia. 2015-2018ko Unibertsitate Planaren helburu estrategikoak

Eginkizun horrekin, 2015-2018ko Unibertsitate Planak lau helburu estrategiko planteatzen ditu; hiru lehenak unibertsitateen eginkizunei lotuta daude (irakaskuntza, ikerketa eta transferentzia), eta laugarrena, berriz, horiek beharrezkoa den zehaztasun eta kalitatearekin garatzeko gaitasun eta baliabideei. Honako hauek dira:

HE1. Euskal gizarteak goi-mailako prestakuntzaren inguruan dituen premiei irakaskuntza-eredu eta irakaskuntza-metodologia berritzaileekin erantzutea...

... euskarazko prestakuntza bultzatzearen eta espiritu kritikoari eta ekintzailetzari lotutako balioetan sentsibilizatzearen bidez, gazteak informazioaren eta komunikazioen teknologiek baldintzatutako nazioarteko inguruneetan lan egiteko trebatuz.

HE2. EUSak bikaintasuneko eta nazioarteko proiektuak ikerketarako egiteko dituen baliabideak eta gaitasunak garatzea...

... talentuak prestatu, atxiki eta erakartzearen, egitura bikainak eta horien ondorio dinamizatzailerak baliatzearen eta ZTBESko agente guztiek jakintza-arlo guztietan lankidetzan jardutearen bidez, Euskadiko Espezializazio Adimendunaren Estrategiari lotutako arloak sendotuz.

HE3. Jakintzaren transferentziaren eta profesionalen etengabeko prestakuntzaren bitartez euskal gizartearen erronka sozial eta ekonomikoei aurre egiteko laguntza erabakigarria ematea...

... eta, horretarako, jakintza-sortzaileen eta hartzaileen artean lankidetzak sustatu eta ideien fluxua erraztuko duten elkarriketa- eta konfiantza-inguruneak ezartzea, Herrialdeko agente sozial, ekonomiko eta instituzionalei zientzia eta teknologian oinarritutako irtenbideak eskaintzea, eta produktu eta zerbitzu berrietan ekimen berritzaileak garatzea (sortutako jakintza balorizatzeko eta ustiatzeko aukera emango dutenak). Helburu horren barruan, profesionalen bizitza osoko birziklatzea eta etengabeko prestakuntza hartzen da kontuan, etengabe egokitu behar baitira lanbide-bizitza garatu behar duten testuinguru aldakorrera.

HE4. Kalitateko zerbitzu-eskaintza inklusibo bat izango duen EUS bat, baliabideen eta teknologia berrien erabilera iraunkor, ingurumen-arloan arduratsu eta garden bat, eta finantzaketa-eredu orekatu eta iraunkor bat bermatzea...

... unibertsitate-komunitateari hainbat printzipiotan (berdintasuna, inklusioa, prebentzioa, eraginkortasuna, iraunkortasuna eta parte-hartzea) oinarritutako jarduerak integral bat garatzea ahalbidetuko diona, eta unibertsitateen eta Jaurlaritzaren artean Unibertsitate Sistemaren posizionamendua sendotu eta Sistemaren oihartzuna eta eragina areagotzea ahalbidetuko duten jardunak planifikatu eta inplementatzeko lankidetzak-dinamikak sortzea.

Lau helburu estrategiko horiei ekiteko, 2015-2018ko Unibertsitate Planak bultzatuko dituen ekintzak taldekatzeko eta ekintza horiei zentzua emateko balio duten hamasei jardun-ildo erabiliko dira. Helburu estrategiko bakoitzak jardun-ildo espezifiko batzuk ditu, eta jardun-ildo horiek kontuan hartzen dituzten ekintzen bidez ekingo zaio helburuari, ondoren ikusiko dugunez.

HE1. Euskal gizarteak goi-mailako prestakuntzaren inguruan dituen premiei erantzutea

- I1. Hezkuntza-gaitasunetan eta hezkuntza-ereduetan** prestatu, trebatu eta berritzea
- I2. Ekintzailatza eta laneratzea** bultzatzea
- I3. Ikasleen mugikortasuna** errazten duten egiturak eta tresnak finkatzea

HE2. EUSak bikaintasuneko eta nazioarteko proiektuak ikerketa egiteko dituen baliabideak eta gaitasunak garatzea

- I4. Ikertzaileak** prestatu eta erakartzea, eta unibertsitateko **ikertzaileen komunitatea nazioartekotzea**
- I5. Unibertsitate Sistemaren ikerketa-gaitasunak** Euskadiko **espezializazio adimendunaren sektoreei** lotuta indartzea
- I6. Nazioarteko proiektuetan parte hartzeko aukera** bultzatzea
- I7. Ikerketa-proiektu eta ikerketa-talde bikainen trakzio-efektua** baliatzea

HE3. Euskal gizartearen erronka sozialei, ekonomikoari eta etengabeko prestakuntzako erronkei aurre egiteko laguntza erabakigarria ematea

- I8. Etengabeko** prestakuntzaren eskaintza planifikatu, ebaluatu eta egiaztatzea
- I9. Doktoreen enplegarritasuna eta lan-merkatuan txertatzeko aukera** sustatzea
- I10. Goi-mailako prestakuntzaren eskaintza** "lanbide-heziketarantz" dibertsifikatzea
- I11. Ikerketaren emaitzen balorizazioa, enpresen sorkuntza, ekintzailatzaren kultura** eta gizarte-ingurunerako transferentzia sustatzea
- I12. Doktoreen ikerketa-karreraren garapena eta mugikortasuna** (ZTBESeko agenteen, enpresen, gizarte-entitateen eta erakundeen artean) erraztuko duten eskema malguak bultzatzea

HE4. Kalitateko zerbitzu-eskaintza inklusibo bat izango duen EUS bat bermatzea

- I13. EUSaren gobernantza, kudeaketa, jarraipen eta ebaluazioaren eredia** finkatzea
- I14. EUSeko unibertsitateen tokiko eta nazioarteko lehiakortasuna eta oihartzuna** hobetzea
- I15. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskaintzen dituzten aukerak erabili eta baliatzeko zereginean** aurrera egitea
- I16. Ekitatea, inklusioa eta aukera-berdintasuna**

5.2-2 irudia. Helburu estrategikoak eta jardun-ildoak

5.3 Hiru ekintza-maila: Sistemako ekintzak, ekintza itunduak eta Unibertsitate Sistema Publikoari laguntzeko oinarrizko ekintzak

2015-2018ko Unibertsitate Planak hiru ekintza-maila ditu bere helburu estrategikoak lortzeko.

Sistemako ekintzak unibertsitate-eremuko interes-talde guztiei zuzendutako jardunak dira (ikasleei, ikertzaileei, ikerketa-taldeei, administrazio eta zerbitzuetako langileei, enpresei eta abar). Izaera finalista, Jaurlearitzak zehaztutako eduki espezifiko batzuk eta, nagusiki, urteko edo urtez urte berritzeko moduko garapen bat dituzte. Ekintzen xedea eta agente onuradunak bereziki adierazita daude definitzen dituzten oinarrietan. Ekintzak hainbat motatako tresnen bidez antolatzen dira: laguntzak, bekak, deialdiak eta abar.

Ekintza itunduak Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateekin egindako lankidetzak-hitzarmen edo lankidetzak-akordioetan bildutako jardunak dira; hitzarmen edo akordio horietan, egikaritu beharreko jardunak, horiei lotutako finantzaketa eta hori lortzeko bete beharreko jomugak ezartzen dira. Normalean, urte anitzeko jardunak izan ohi dira, eta unibertsitate bakoitzaren eta Jaurlearitzaren artean adostutako lan-egutegia osatzea dute helburu. Programa-kontratuen eskemari jarraitzen dion funtzionamendua dute, eta unibertsitateen funtzionamendu- eta kudeaketa-egiturak hobetzen lagundu nahi da ekintza horiek bultzatzearen bidez. Azken batean, Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateek hainbat arlotan eta egitura- eta kudeaketa-aldaketen bitartez aurrera egitea lortu nahi da ekintza itunduen bidez.

Unibertsitate Sistema Publikoari Laguntzeko Oinarrizko Ekintzen bidez, Euskal Herriko Unibertsitatearen jarduerari eusten lagundu nahi da. Praktikan, bi tresna nagusiren bidez gauzatzen dira: Ekarpak Arrunta eta Inbertsioen Urte Anitzeko Planerako babesa. Finantzaketa arruntaren eta Inbertsioen Urte Anitzeko Planaren bidez, Euskal Unibertsitate Sistemaren Legeak ezarritako agindua betetzen du 2015-2018ko Unibertsitate Planak, eta Euskal Herriko Unibertsitateak kalitateko zerbitzu-eskaintza bat egiteko urte anitzeko finantzaketa-esparru nahikoa bermatzen du. Figura horietan, Euskal Herriko Unibertsitateari eman beharreko babesa hartzen da kontuan, Euskal Unibertsitate Sistemaren Legean ezarritako nahikotasun-printzipioari jarraiki. Inbertsioen Urte Anitzeko Planaren kasuan izan ezik, instrumentalak dira, ez baita espezifikoki finkatzen jasotako babesa zertan erabiliko den.



5.3-1 irudia. Unibertsitate Planaren ekintzak eta horien antolamendua, jardun-ildoen arabera

6 Planaren hedapena, helburu estrategikoaren arabera

6.1 Prestakuntza: HE1. Euskal gizarteak goi-mailako prestakuntzaren inguruan dituen premiei erantzutea

Sistemako unibertsitateen prestakuntza-eginkizunari lotuta dagoen helburu honen bidez aurrera egin nahi da Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan, eta, horretarako, pertsonak oinarri zientifiko eta teknologikoetan eta arazo eta erronka teoriko eta praktikoak ebaztean aplikatzeko metodologiaren erabileran prestatzeko balio handiko proposamen bat egiten du.

Garatu beharreko jardun-ildoak

11. Hezkuntza-eredua garatzea eta kalitateko prestakuntza-eskaintza euskal gizartearen premietara egokitzea.

Jardun-ildo honen xedea honako hau da: ikasleen ikasteko prozesuak berritzea, Sistema osoan eskainitako graduoko eta graduondoko titulazioen inguruko errendimenduari, graduazioari, arrakastari eta eskola-uzteari lotutako tasak hobetzea, titulazioen egiaztapena berritzea, eta euskal gizartearen benetako premiei erantzungo dien titulazio-eskaintza orekatu eta harmoniko bat egituratzea.

Honako alderdi hauek hartzen ditu kontuan: gaitasun espezifikoei, zeharkako gaitasunei eta hizkuntza ofizialen eta ez-ofizialen erabilerari lotutako prestakuntza, hizkuntza-normalizazioan aurrera egitea ahalbidetuko duten materialen garapena, IKTen aplikazioa (ikasteko eta irakaslaguntzako tresna gisa), eta nazioarteko inguruneetan jarduteko prestakuntza. Halaber, jarduera akademikoa ebaluatzeko mekanismoen eguneratzea eta berrikuntza bultzatzen du, graduoko eta graduondoko titulazioen kalitatea hobetzeko.

12. Enplegarritasuna, ekintzailatza eta laneratzea bultzatzea.

Jardun-ildo honen bidez, enplegarritasun handiagoa lortu nahi da, hau da, graduatu diren ikasleen enplegu-tasa handiagoa eta ikasketak amaitzen direnetik lan-merkatuan txertatzeko epe laburragoak.

Honako alderdi hauek hartzen ditu kontuan: ikasketen garaian egindako curriculum-praktikak eta curriculumetik kanpokoak prestakuntza-tresna eta laneratzeke abiapuntu gisa, eta ekintzailatza bultzatuko duten balioen sustapena eta horien inguruko sentsibilizazioa.

13. Ikasleen, irakasleen eta AZLen mugikortasuna errazten duten egiturak eta tresnak finkatzea.

Ildo hau Planaren zeharkako ardatz bati lotuta dago –nazioartekotzeari–, eta Euskal Unibertsitate Sistemako campusen nazioartekotzea eta, horretarako, nazioartean erakargarria izango den eta beste sistema batzuetako ikasleak erakarriko dituen irakaskuntza-eskaintza erakargarri bat sustatzea eta EUSEko ikasleen mugikortasuna (kanpoan ikasketak edo praktikak egiteko) bultzatzea du helburu.

Honako alderdi hauek hartzen ditu kontuan: nazioarteko erakundeekin hitzarmenak eta akordioak lortzeko aukera (mugaz gaindiko eta nazioarteko campusak barnean hartuta), titulazio bikoitzak eta baterako titulazioak garatzeko babesa, ikasleen mugikortasuna –Euskal Unibertsitate Sistemaren barruan eta kanpoan– errazteko laguntzak, eta ikasleak hartzeko eta irteteko egituren garapena eta eskuragarritasuna.

	Sistemako ekintzak	Ekintza itunduak
Tipologia	Ikasleentzako babesa eta sisteman sartzeko aukera - Erasmus ikasleentzako eta nazioarteko unibertsitate-mugikortasuneko beste programa batzuetako ikasleentzako bekak Hizkuntza-normalizazioa - Goi-mailako hezkuntzarako euskarazko liburuak editatzeko laguntzak	Berrikuntza - Irakaskuntza-eredua finkatzeko babesa - Titulazio-eskaintza orekatua eta harmonikoa - Graduondoko ikasketen eskaintza berrantolatu eta hobetzea - Irakasleak ikasteko eredu berritzaileetan trebatzea - Ereduak eta tresnak prestakuntza digitalera egokitzea - Irakaslaguntza-zerbitzuen funtzionamendua hobetzea - Edukien garapena eta material didaktikoa Hizkuntza normalizazioa - Euskara-planak hedatzea - Euskaraz irakasteko euskarri-tresnak garatzea - Euskarazko liburuen produkzioa, itzulpena eta edizioa babestea Nazioartekotzea eta mugikortasuna - Lankidetzat-hitzarmenak garatzea - Titulazio bikoitzak eta baterakoak bultzatzea - Mugikortasunaren euskarri diren plataformak eta tresnak garatzea - Ikasleen, irakasle eta ikertzaileen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen mugikortasuna eta irakaskuntza-jardueraren nazioartekotzea bultzatzea - Irakaskuntza-eredu eta irakaskuntza-tresna propioak beste herrialde eta eskualde batzuetan ezartzea Trebatzea - IILak eta AZLak irakaskuntza-eredu eta irakaskuntza-tresnetan trebatzea - IILak eta AZLak hizkuntza ofizialetan eta ez-ofizialetan trebatzea Kalitatea - Irakaskuntzari lotutako kalitate-egiaztapenak garatzea - Ikasleen parte-hartzea sustatzea
Tresnak	Laguntzak	- UPV/EHUko, Deustuko Unibertsitateko eta Mondragon Unibertsitateko prestakuntzako programa-kontratuak - EHUBAQ Mugaz Gaiandiko Campusa - Aristos Campus Mundus Nazioarteko Campusa - Euskampus Nazioarteko Bikaintasun Campusa

6.1-1 irudia. Prestakuntzaren inguruko helburuaren hedapenari lotutako ekintzak

2015-2018ko Unibertsitate Planaren helburu honen garapenari dagokionez, Jaurkitzak sistemako ekintzen bidez izango duen esku-hartzeak bi ardatz izango ditu: ikasleen nazioarteko mugikortasuna babestea eta hizkuntza-normalizazioan aurrera egiteko aukera emango duten materialak garatzea.

Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren helburuetako bat 2020. urtean graduiko ikasleen %20k nazioartean gutxienez sei hilabeteko egonaldi bat egin dezan lortzea da, eta, helburu horri jarraiki, Euskal Unibertsitate Sistemako ikasleak nazioarteko beste unibertsitate-sistema batzuetara mugitzea 2015-2018ko Unibertsitate Planaren erreferentziazko jomuga bihurtu da.

Adierazleak eta jomugak¹³

Tipologia	Adierazleak	Hasierako egoera 2014	2018ko jomuga
Jarduna	HE1.1. Nazioarteko mugikortasuneko programetan parte hartu duten bertako ikasleen %(gradua / masterra)	%4,0 / %3,7	%4,6 / %5,2
	HE1.2. EUSean ikasten duten nazioarteko ikasleen %(gradua / masterra / doktoretza)	%3,1 / %7,2 / %24,7	%3,5 / %7,7 / %25,7
	HE1.3. Euskaraz eskainitako ECTS-en %, titulazio guztiekiko (gradua / masterra)	%66,5 / %7,4	%73,9 / %12,2
	HE1.4. Hizkuntza ez-ofizialetan eskainitako ECTS-en %, titulazio guztiekiko (gradua / masterra)	%10,8 / %18,1	%14,5 / %21,5
	HE1.5. Arrakasta-tasa (gradua / masterra)	%88,6 / %98,2	%88,7 / %98,2
	HE1.6. Ebaluazio-tasa (gradua / masterra)	%89,4 / %92,5	%89,4 / %92,9
	HE1.7. Errendimendu-tasa (gradua / masterra)	%79,4 / %93,0	%79,4 / %93,0
	HE1.8. Eskola-uztearen tasa (gradua / masterra)	%10,2 / %4,1	%10,1 / %3,8
	HE1.9. Unibertsitate-tituluari lotutako enpleguaren tasa	%73,1	%73,5
Ahalegina	HE1.10. Prestakuntza-jardueretan parte hartu duten IILen ehunekoa	%38	%40
	HE1.11. Prestakuntza-jardueretan parte hartu duten AZLen ehunekoa	%49	%55

6.1-2 irudia. Prestakuntzaren inguruko helburuari lotutako adierazleak eta jomugak (MUREn hasierako datuak 2013. urtekoak dira; eskura dagoen enplegu-tasaren azken datua 2013. urtekoa da).

Iturria: geuk egin, honako hauen datuetan oinarrituta: 2015-2018ko programa-kontratuak eta Lanbide

¹³ Abiapuntuko datuak eta helburuak programa-kontratuen balioen agregaziotik(*) abiatuta jaso dira, edota, zuzenean, Euskal Unibertsitate Sistemaren Aginte Mahaiaren balioetatik.

6.2 Ikerketa: HE2. Bikaintasuneko eta nazioarteko proiektuak ikerketa egiteko baliabideak garatu eta orientatzea

Sistemako unibertsitateen ikerketa-eginkizunari lotuta dagoen helburu honen bidez, Euskal Unibertsitate Sistemaren baliabideak eta ahalmenak garatu eta orientatu nahi dira, era horretan jakintza-arlo guztietan nazioarteko proiektuak ikerketa egiteko. Nolanahi ere, Euskadiko Espezializazio Adimendunaren Estrategiari lotutako arloak sendotuko dira.

Eta, hori guztia, nazioarteko proiektua eta aintzatespena (bolumenean zein eraginean) izango duen oinarritzko bikaintasun-ikerketa eta Herrialdeko erronkei eta premiei lotutako ikerketa aplikatua egin ahal izateko.

UPV/EHuko jakintzaguneak

Jakintzaguneen inguruko ekimena UPV/EHuren Euskampus Nazioarteko Bikaintasun Campusaren proiektuaren esparruan garatzen da, Tecnalia korporazio teknologikoarekin eta Donostia International Physics Center-ekin (DIPC) batera. Euskampus proiektuaren bidez, nazioarteko dimentsioa izango duen, Europako Ardatz Atlantikoan erreferentzia izango den eta kanpora goimailako hezkuntza-eredu publiko, moderno eta kalitateko bat (gizarte-, kultura- eta ingurumen-erronkei Europa 2020 estrategiari jarraiki aurre egiteko atxikitako erakundeek dituzten ahalmenak – ikertzeko eta jakintza transferitzeko ahalmenak, alegia– sustatzen dituzten erakunde eta agenteen sare aberats batek indartua eta sare horri lotua) proiektatuko duen esparru akademiko bat finkatu nahi da. Hori lagungarria izango da Euskadi zientzia, teknologia, berrikuntza, sormen eta talentuaren gune gisa nazioartean sustatzeko eta Euskampus proiektuaren goiburua (“*Unibertsitate bat, herrialde bat, campus bat*”) gauzatzeko.

Euskampus proiektuaren jakintzaguneak erakunde arteko eta diziplina arteko lankidetzarako gune irekiak dira, eta gizarte-erronkei eta erronka globalei aurre egitea dute helburu. Horretarako, Euskampus agregazioaren gaitasun zientifiko-teknologikoak aplikatuko dira, prestakuntzaren, ikerketaren eta gizarterako transferentziaren eremuetan lankidetzajardunak diseinatu eta egikaritzearen bidez. Jakintzaguneak hedatzeko, egun dauden ikerketa-egiturak antolatzen dira. Horrek ez du esan nahi erakundeetan egitura berriak edota agregazioko erakundeetan gainegiturak eratzen direnik. Aitzitik, lankidetz-espirtua eta berrikuntza irekia sustatzen da erakundeen artean. Erakundeen gaitasunak eta identifikatutako erronkak konbinatuta, proiektuaren apustu zehatzak sortzen dira. Horrela, beraz, honako hauek lortu nahi dira ekimenaren bidez:

- Lehenik eta behin, Euskadiko gaitasun zientifiko-teknologikoak erronka globalak eta gizarte-erronkak ebaztera orientatzea, eta, era horretan, aberastasuna sortzea eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzea, betiere ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-iraunkortasunaren irizpideari jarraiki.
- Bigarrenik, hautatutako erronken konplexutasuna arrakastaz lantzeko balio-kate osoko gaitasunak integratzea ahalbidetuko duen eskaintza zientifikoaren eta eskaintza teknologikoaren arteko lankidetzalogika bat lantzea.
- Hirugarrenik, lehenetsitako erronkei aurre egiteko egiten diren aliantza eta lankidetz estrategikoen ondorioz sortutako proiektuen inguruko diziplina anitzeko gaitasunak bateratzea.

Garatu beharreko jardun-ildoak

14. Ikertzaileak prestatu, atxiki eta erakartzea, eta unibertsitateko ikertzaileen komunitatea nazioartekotzea.

Jardun-ildo hau bultzatzeko zeregina oso lotuta dago Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateek euskal gizartearen premiei erantzuteko emaitza zientifiko eta teknologikoen bilaketan aurkitzen dituzten erronkei aurre egitea ahalbidetuko duten gaitasunen garapenarekin eta prestakuntzarekin. Jardun-ildoaren bidez, zehazki, Euskal Unibertsitate Sistemaren iraunkortasuna eta indartzea ziurtatuko duen talentuaren sorkuntza eta erakartzea bermatu nahi dira.

Jardun-ildo honen barruan, honako hauei lotutako ekintzak hartzen dira kontuan: doktorego-prestakuntza, graduondoko prestakuntza-eskaintzaren antolamendua eta indartzea (herrialdean talentuak sortzeko eta bertara erakartzeko eta irakasleen eta ikertzaileen plantilla ikerketarako gaitasuna eta nazioarteko proiektzioa izango duten langile gazteekin gazteagotzeko), eta Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateek nazioarteko proiektu, sare eta plataformetan duten presentziaren sustapena. Asmo horrekin, halaber, goiko mailetan dauden graduiko ikasleen ikerketa-bokazioa bultzatu eta sustatzera bideratutako ekintzak hartzen dira kontuan, ikasle horiek ikerketa-arloko talde eta ekipoen errealitatera hurbil daitezzen. Era horretan, graduiko ikasleen eta ikertzaileen arteko lankidetzak sustatu nahi da.

Inplementatzean, besteak beste Ikerbasque, Bizkaia Talent eta Gipuzkoa Fellows erakundeek programak baliatu beharko lirateke ikertzaileak erakarri eta berreskuratzeko.

Unibertsitate Planaren bitartez ikertzaileak erakartzeko zereginak eskaintzen lehiakortasuna bermatuko duten kalitate-estandar batzuei eta unibertsitateen estrategiari lotutako irizpide objektiboei jarraitu behar die.

15. Unibertsitate Sistemaren ikerketa-gaitasunak Euskadiko espezializazio adimendunaren sektoreei lotuta indartzea.

Ikerketa-jarduerak eragin ekonomiko eta sozialik handiena sortu ahal izango du Herrialdeko lehentasunei erantzuten dien heinean. Lehentasun horiek, zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren ekarpenaren ikuspuntutik, Euskadiko Espezializazio Adimendunaren Estrategian identifikatutako erronka eta apustuek baldintzatzen dituzte.

Jardun-ildo honen barruan, Euskadiko Espezializazio Adimendunaren Estrategiaren lehentasunei lotutako gaitasunen sorkuntzaren, prestakuntzaren eta ikerketaren inguruko ekintza guztiak daude bilduta. Ildo horretan, Euskadiko enpresek eta beste erakunde batzuek lehentasunezko arlo horietan behar duten jakintza lehiakortasuna eta oinarritzko helburuen lorpena ziurtatuko duen giza kapitalaren prestakuntzaren bidez lortzeko eta sortzeko aukera hartzen du kontuan.

Ikertzaileen prestakuntzaren eta Espezializazio Adimendunaren Estrategiak behar dituen gaitasunen sorkuntzaren arteko lotura horrek indartu egiten du Euskal Unibertsitate Sistemak ZTBESean funtsezko agente gisa (Europako

KICetan planteatzen diren prestakuntza eta berrikuntza bateratuaren ikuspuntutik) duen posizionamendua¹⁴.

16. Nazioarteko proiektuetan parte hartzeko aukera bultzatzea.

Bereziki, Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateek proiektu, sare edo plataformen bitartez Europako Ikerketa Esparruan parte hartzeko aukerari lotutako jardunak biltzen ditu.

Erreferentzia horrekin, Euskal Unibertsitate Sistemak Horizon 2020 programan presentzia handiagoa izatea eta lortutako itzulkinen bidez Euskadi 2020 Agenda Estrategikoan Euskadirako ezarritako helburuak lortzen laguntzea du jomuga.

Etorkizuneko KICetan parte hartzea aukera paregabea da ikerketaren nazioartekotzea integratzeko eta nazioarteko lankidetzatza-testuinguruetako prestakuntzarekin eta berrikuntzarekin lotzeko.

UPV/EHUk eta Bordeleko Unibertsitateak eratutako mugaz gaindiko campusa aukera bikaina da jakintza-arlo guztietan ikerketaren nazioartekotze-maila hobetzeko. Gainera, hainbat egileren arteko lanen eta ikerketa-arloko lankidetzatza-proiektuen kopurua gehitzea ahalbidetzen du.

Aristos Campus Mundus Nazioarteko Campusa, *Jesuit Higher Education Sector* sarea eta *Tuning* sarea Deustuko Unibertsitateak nazioarteko sareko proiektuetan parte hartzeko aukera ematen duten hiru gune dira.

Mugaz gaindiko doktorkialak (UPV/EHU-UPPA)

Gero eta lehiakorragoa den merkatuan, UPV/EHUrentzat ezinbestekoa da doktoregoko ikasleei diziplinarteko eta kultura anitzeko taldeetan lan egiteko trebatuko dituzten, sormena sustatuko duten eta gizartearen premiak detektatzen eta hainbat lanbide-ingurunerik jakintza transferitzen lagunduko dieten zeharkako gaitasunak ematea.

Testuinguru horretan, Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetza, Master eta Doktorego Eskolaren bitartez eta Pauko eta Aturrialdeko Unibertsitatearekin (UPPA) lankidetzan, UPV/EHU-UPPA mugaz gaindiko doktorkialak antolatzen ditu urtero, eta dagoeneko laugarren edizioan daude. Astebeteko iraupena duten eta egoitza barnean hartzen duten mintegi trinkoak dira, eta hirugarren zikloko ikasleei goian adierazitako gaitasunak ematea dute helburu.

Horien bidez, ikasleek honako hauek egiteko trebetasunak gara ditzaten lortu nahi da:

- Beren proiektu pertsonal eta profesionalak zuzentzeko. Horren barruan, ikasleei proaktiboak izaten, aurrea hartzen, beren ikasteko prozesuaz arduratzen eta beren helburu propioak ezartzen lagunduko dieten trebetasunak sartzen dira.
- Jakintza premiak detektatzeko eta balio erantsia sortzeko erabiltzeko.
- Sorkuntza-ideiak berrikuntza bihurtzeko, inplementatzeko eta gizartearen

¹⁴ Jakintza eta Berrikuntzako Komunitateak (*Knowledge and Innovation Communities –KIC–*) hezkuntzak, berrikuntza/enpresak eta ikerketak osatzen duten trianguluan oinarritutako iraupen luzeko parteneriotzak dira, eta EBko hazkundean eta lehiakortasunean laguntzea eta, horretarako, estatu kideen berrikuntza-ahalmena indartzea dute azken helburu.

aurrerabiderako erabiltzeko.

- Diziplina anitzeko eta kultura anitzeko talde batean lan egiteak eskaintzen duen aniztasuna eta aberastasuna balioesteko, eta talde-lanerako beharrezkoak diren trebetasunak eskuratzeko.

Horrela, beraz, ingurune eleaniztun batean (jarduerak ingelesez egiten dira) eta esperientzia duen talde pedagogiko batean oinarrituta, parte hartzen duten 80 pertsonen hainbat proiektu parteka ditzakete. Proiektu horietan, prestakuntzaren bidez eskuratutako jakintzak era praktikoa garatzeaz gain, lanari lotutako gaitasun berriak eskuratzeko dituzte.

5 egunetan, doktoregaiak Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitateko, Bordeleko Unibertsitateko, Zaragozako Unibertsitateko eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko homologoekin bizi dira, eta horiekin lan egiten dute.

Azken bi edizioetan, doktoralak Arantzazun egin dira, eta profesional ugari hartu dute parte. Profesional horiek lan-munduan duten esperientzia, diziplinarteko eta kulturarteko lankidetzaren balioa eta nazioarteko egonaldi bat egitearen garrantzia helarazi diete doktoregaiei. Horri esker, mundu ez-akademikoaren eta enpresa-ingurunearen inguruko jakintza hobetu ahal izan dute doktoregaiek.

17. Ikerketa-proiektu eta ikerketa-talde bikainen trakzio-efektua baliatzea.

Ildo honen barruan, honako ekintza hauek hartzen dira kontuan: ikerketa-talde bikainak babestea, ikerketa-jarduera erraztu eta horren ondorioak areagotuko dituzten azpiegitura zientifiko eta teknologikoak finkatzea, bikaintasuneko jakintza zientifiko eta teknologikoa sortzeko prozesuetan kalitatearen kultura sustatzea, kultura zientifiko, teknologiko eta berritzailea areagotzea, eta unibertsitateek ikerketan lortutako emaitzak gizartean zabaltzea.

Jardun-ildo honen bidez, halaber, Nazioarteko Bikaintasun Campus gisa aintzatetsitako proiektuak garatzen lagunduko duten Euskal Unibertsitate Sistemaren trakzio-ekimenak eta EUSaren, ZTBESaren eta enpresen arteko harreman-eredu berriak garatzen dituzten beste trakzio-proiektu batzuk babesten dira. Bikaintasun Campus gisa aintzatetsitako proiektuak tresna bideratzaileztat hartzen dira Plan honetan, lankidetzak-ikerketa katalizatzeko ahalmenagatik eta *spillover* efektua sortzen laguntzeagatik.

	Sistemako ekintzak	Ekintza itunduak
Tipologia	Trebakuntza: - Ikertzaileak Prestatzeko Doktoratu aurreko Programa - Ikertzaile Doktoreak Hobetzeko Doktoratu ondoko Programa Ikerketa-proiektuak eta ikerketa-taldeak - Oinarrizko Ikerketako eta/edo Ikerketa Aplikatuak Proiektuak egiteko laguntzak - IKERKETA TALDEAK. Euskal Unibertsitate Sistemako ikerketa-taldeak jarduerak babesteko laguntzak Nazioartekotzea - IKERMUGIKORTASUNA. Ikertzaileentzako mugikortasun-programa - EGONALDILABUR. Ikertzaileari aplikatutakoak bestelako zentroetako egonaldiarentzako laguntzak - Ikerbasque Fundazioa (diru-laguntza izenduna) Zabalkundea eta barreiadura - IKERBILERAK. Euskal Autonomia Erkidegoan ikerketa zientifikoaren eremuan egiten diren kongresu eta bilera presentzialak antolatzeak laguntzak	Ikertzaileen prestakuntza - Doktoratu aurreko talentuak erakartzeko egiturak, prozesuak eta ekintzak finkatzea, eta euskarazko doktore-tesiak sustatzea. - Arlo estrategikoetan jakintza sortzea Talentuak erakarri eta bereganatzea - Nazioarteko doktoregaiak txertatzea - Ikerbasquerekin ikertzaileak bereganatzen lankidetzan jardutea Ikerketaren antolaketa - Hainbat arlotako ikerketa-taldeak elkartzeko aukera bultzatzea - Unibertsitate, ikerketa-zentro eta enpresekiko lankidetzak proiektuak babestea - Azpiegitura eta ekipamendu zientifikoak babestea - Kongresu eta bilera zientifikoak antolatzea eta bertaratzeko aukera babestea - Euskarazko aldizkari zientifikoak babestea Nazioartekotzea eta nazioarteko proiektzioa - Doktoregoko ikasleen mugikortasuna bultzatzea - IILen mugikortasuna bultzatzea - Nazioarteko proiektu, sare eta plataformetan parte hartzeak aukera bultzatzea Trebakuntza - Ikertzaileen prestakuntza espezializatua - Proiektuen kudeaketarako prestakuntza Kalitatea - Doktorego-programetan kalitatea bultzatzeko ekintzak - Ikerketa-taldeak egiaztapena - Kudeaketaren, ikerketaren eta lotutako babes-zerbitzuen kalitatea bultzatzea
Tresnak	- Laguntzak - Deialdiak	- UPV/EHUren, Deustuko Unibertsitatearen eta Mondragon Unibertsitatearen ikerketako eta transferentziako programa-kontratuak - Katalizatzaileak: Euskampus, Aristos Mundus

6.2-1 irudia. Ikerketaren inguruko helburuaren hedapenari lotutako ekintzak

Ikerketaren inguruko helburuari lotuta dagoen ikerketaren nazioartekotzea eta nazioarteko proiektzioa Plan honen zeharkako ardatzetako bat da. Euskadin, zientzia ona egiteaz gain zientzia horretatik lortzen diren emaitzak gizartera transferitzea eta emaitza horiek gizarte- eta ekonomia-eraginik handiena izatea ahalbidetuko duten erreferentziazko estandar batzuk lortzeko beharrari

erantzuten dio ikerketaren nazioartekotzeak. Euskadiko Espezializazio Adimendunaren Estrategian identifikatutako bikaintasuna eta lehentasunak transferentziari lotutako helburu hau betetzeko bermerik handiena izateko abiapuntu dira.

Testuinguru horretan, ezinbestekoa da babes-programen eta ikerketa-egituren arduradunak, ikerketa-taldeak eta ikertzaile bakoitza jardun honen inplementazioan inplikatzeari (planen diseinuari zein proiektuetan behar den presentziari dagokionez), eta denek iraganean gure ikerketa-ahalegina bideratzeko hainbestetan eskatu genituen erreferentziak dagoeneko baditugula jakinik parte hartzea.

Adierazleak eta jomugak¹⁵

Tipologia	Adierazleak	Hasierako egoera 2014	2018ko jomuga
Jarduna	HE2.1. Urteko tesien kopurua	431	499
	HE2.2 Argitaratutako artikuluko zientifikoak (Scopus / WoS)	2.680 / 2.636	3.002 / 2.954
	HE2.3. Lehen SJR kuartileko argitalpenen ehunekoa (Scopus Scimagoren SJR balioekin / WoS JCR balioekin)	%58 / %53	%58 / %57
	HE2.4. Nazioarteko baterako argitalpen zientifikoaren ehunekoa (Scopus / WoS)	%43 / %45	%46 / %48
	HE2.5. Europako Ikerketa Kontseiluaren (ERC) laguntzen kopurua	5	8
	HE2.6. Horizon 2020 programaren deialdietan edo nazioarteko beste deialdi batzuetan lortutako itzulkinak (M€)	22,24	25,99
Ahalegina	HE2.7. Nazioarteko irizpideekin kontratatutako IILen kopurua	122	217
	HE2.8. Ikerketa-jarduerak egiten dituzten IILen ehunekoa	%71	%73
	HE2.9. Ikertzaileen kopurua (LOB)	1.454	1.528
	HE2.10. Ikerketa babesteko eskualdeko eta Estatuko lehiaketa-deialdietan lortutako itzulkinak (M€)	17,74	20,44

6.2-2 irudia. Ikerketaren inguruko helburuaren hedapenari lotutako adierazleak eta jomugak

Iturria: geuk egin, honako hauen datuetan oinarrituta: 2015-2018ko programa-kontratuak, Ikerbasque eta Eusko Jaurlaritza

¹⁵ Abiapuntuko datuak eta helburuak programa-kontratuen balioen agregaziotik abiatuta jaso dira, edota, zuzenean, Euskal Unibertsitate Sistemaren Aginte Mahaiaren balioetatik.

Euskal Herriko Unibertsitatearen I+Gko jardueraren finantzaketa-helburuak

Euskadi 2020 ZTBPan proposatutako finantzaketa-ereduari jarraiki, ikerketa mota bakoitzerako erreferentziazko jarraibide batzuk ezarri dira, eta agenteak I+Gko jardueran orientatzeko eta finantzaketa publikoko programetan jarraibideak ezartzeko balio behar dute.

Goi Mailako Hezkuntzan egindako ikerketa oinarritzkoa da funtsean, eta, beraz, emaitzak merkatura eramateko aukera urrun geratzen da oraindik. Hori dela-eta, sektore publikoak finantzatu behar du nagusiki, orain arte egin den bezala, baina kanpoko beste finantzaketa-iturri batzuk erakartzeko lanean hobetzeko ahalmena baliatuta.

Honako hau ezartzen da unibertsitate publikoa finantzatzeko erreferentzia-esparru gisa:

- **Enpresa-finantzaketa pribatuaren partaidetza unibertsitateko I+Gko inbertsioan;** partaidetza hori, termino erlatibotan, %6tik %8ra igoko da 2012tik 2020ra bitarte. Funts pribatuen gehikuntzaren arazoia, neurri batean, Unibertsitate Sistemak egindako I+Garen emaitzak balorizatzeko ahalegina –gero eta handiagoa– da.
- **Unibertsitatearen ikerketa-jarduera handiagoa Europar Batasuneko programen** (eta, bereziki, H2020 programaren) **funtsak lortzeko.** Horri dagokionez, Euskal Unibertsitate Sistemak lortutako funtsak bikoiztu egin beharko lirateke Planaren amaieran, hau da, unibertsitateak egindako I+Gko inbertsio guztiaren %4tik %8ra igo beharko luke funtsen ehunekoak 2012tik 2020ra bitarte.
- Adierazitako gehikuntzen ondorioz, **nazioarteko finantzaketa pribatuaren konpromiso handiagoa unibertsitateko ikerketarekin;** zehazki, %10etik %16ra igoko da 2014tik 2020ra bitarte. Enpresa-baliabideen eta nazioartekoen gehikuntza horrek, administrazio publikoen finantzaketaren gehikuntza txikiarekin batera, bikaintasuna eta emaitzen transferentzia (enpresetara eta, oro har, gizartera) hobetzera bideratutako ekimen eta proiektu berriei ekiteko aukera emango dio unibertsitateari.

2020rako erreferentzia-esparrua kontuan hartuta, 2018rako (hots, 2015-2018ko Unibertsitate Plan hau amaitzen den urterako) jomuga esplizitu batzuk finkatu beharko dira.

6.3 Transferentzia: HE3. Euskal gizartearen erronka ekonomikoei, sozialei eta etengabeko prestakuntzako erronkei aurre egiteko zereginetan gero eta protagonismo handiagoa izatea

Sistemako unibertsitateen transferentzia-eginkizunarekin lotuta dagoen helburu honen bidez, EUSaren eta euskal enpresa eta erakundeen arteko lankidetzajarduera gehiago egin nahi dira, eta Herrialdeko erronka ekonomikoei, sozialei eta ingurumen-arlokoiei aurre egiteko zereginetan gero eta ospe handiagoa lortu nahi da.

Lankidetzajardun horien helburua Euskal Unibertsitate Sistemak sortutako jakintza transferitu eta aplikatzea da, enpresen lehiakortasuna hobetzeko eta, era horretan, gizarte aurreratuago bat garatzen laguntzeko. Helburu honen barruan, profesionalen bizitza osoko prestakuntzako ekintzak ere jakintza-transferentziak dira.

Mondragon Unibertsitateko lankidetzak-ikerketaren kasua

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK **ikerketa eta transferentzia ulertzeko** eta erreferentziazko enpresa eta erakunde jakin batzuekin **garatzeko duen modu espezifikoari** ematen dion izena da LANKIDETZA IKERKETA. Horren arabera, proiektu puntualetan ezarritako noizbehinkako lankidetzak-harremanaren ordezkari, **erregimen iraunkorreko** harremana da nagusi. Horrela, beraz, enpresa eta erakunde horiek I+G arloan dituzten ahalmenen **hedapen estrukturala** da unibertsitatea.

Azken batean, unibertsitatearen eta trankzio-enpresa baten arteko lankidetzak-prozesu baten emaitza da. **Harreman bizi, estu eta jarraitu** baten ondorioz, elkarrekiko konfiantza, errespetua eta ezagutza lortzen da, eta enpresak bere produktu eta zerbitzuak berritzearen bidez lehiakortasuna hobetzeko **I+G arloan dituen proiektu estrategikoak zehaztu, landu eta garatzeko lanaren berri ematen dio** unibertsitateari, **eta parte hartzeko aukera ematen dio**.

Lankidetzak hori bereziki arrakastatsua da parte hartzen duten pertsonen bitartez sortutako jakintzaren transferentzia eta aplikazioa lortzen denean (enpresako eta unibertsitateko ikertzaileen zein, eta hori da azpimarragarriena, proiektuetan parte hartzen dutenean **enpresan txertatzeko moduko giza kapitala** osatzen duten **doktoregai eta bekadunen** bitartez).

Eredu horri esker, unibertsitateak zuzenean parte har dezake aurrez ikerketa-proiektuen bitartez eskuratutako jakintzak bideratzeko **aukeren identifikazioan**, eta, ondoren, ad hoc proiektuak garatzeko bidez, enpresara **transferi** ditzake.

Ereduak, gainera, enpresaren epe ertain-luzerako **aukerak eta erronkak elkarrekin** (unibertsitateak eta enpresak) **ikusteko** aukera eskaintzen du, eta unibertsitatea erakunde horien **premia tekniko eta teknologikoez jabe daiteke**. Hori dela-eta, bere erabaki estrategikoak har ditzake etorkizunari begira funtsezko eremutzat hartutako **ikerketa-ildo berriak** lantzearen komenigarritasunaren inguruan.

LANKIDETZA IKERKETAREN ideia erreferentziazko enpresa/erakunde kopuru nahiko batera zabaltzeak (enpresa bakar batekiko aldi baterako harremana alde batera utzita) beste jokaleku batera eramaten gaitu. Bertan, lankidetzak-ikerketak era intentsiboan eta eraginkorrean laguntzen du unibertsitatearen eta enpresaren arteko transferentzia- eta lankidetzak-funtzioan, eta **tresna proposa da** enpresa-sarearen **etorkizuneko premiak iragartzeko**.

LANKIDETZA IKERKETAK dakarren **harreman** estuak sentsibilitaterik handiena eskatzen du **KONFIDENTZIALTASUNARI** dagokionez. Hala ere, konfidentzialtasun horrek **ez du zertan ESCLUSIBOTASUNAREN sinonimo izan**. Hain zuzen ere, eta beti konfidentzialtasunarekin zorrotz jokatu, unibertsitateak ekarpen gisa dakarren oinarritzko know howa eta proiektu zehatzak gauzatzean metatutako esperientzia bera industria-sektoreko beste enpresa eta sektore batzuetara **ahalik eta hedagarrienak** izatea lortu behar da, lankidetzak-ikerketan inplikaturako enpresekin inolako gatazkarik sortu gabe.

BIZKAILAB ekimena. Transferentziatik baterako sorkuntzara. Deustuko Unibertsitatea eta Bizkaiko Foru Aldundia

Errealitate konplexu batean sortutako arazoetarako erantzunak bilatzeko, lankidetzako eta baterako sorkuntzako prozesu bat garatu behar da izaera desberdineko agenteen artean. Jakintza ez da inoren monopolioa. Gaur egungo gizarteak irtenbiderik egokiena erabakitzeko garaian aukera bat baino gehiago eskainiko dituen jakintza sortzeko prozesuak abian jartzea eskatzen du. Politikak eta zientziak, jarduteak eta jakiteak, erakundeek eta unibertsitateek elkarren beharra dute arazoak behar bezala definitzeko eta irtenbideak identifikatzeko.

Bizkailab ekimena 2011. urtean sortu zen, erakunde baten (Bizkaiko Foru Aldundiaren) eta unibertsitate baten (Deustuko Unibertsitatearen) arteko lankidetzaren esperientzia berritzaile bat izateko asmoarekin. Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaian **enpleguaren sorkuntza eta industria- eta enpresa-sarearen sustapena** bultzatzeko garatzen diren hainbat programa babesten ditu. Bere jardunak eraginkortasunez kudeatzeko eta, era horretan, emaitza onak lortzeko, lankidetzan dihardu eta informazioa eta jarduerak elkartrukatzeko ditu **personak gizarte- eta produkzio-sarearen eskakizunenetara egokitzeko** lan egiten duten gizarte-eragileekin. Jardunen egikaritzea prestakuntza- eta enpresa-eremuak gizarte-eragileekin batera planteatu behar da, kudeaketarako ekarpen espezifiko bat lortzeko. Era horretan, balio erantsi bat sortuko da egiten diren estrategien analisi, idazkuntza eta balioespenari dagokienez.

Illo horretan, Foru Aldundiaren ustez Deustuko Unibertsitateak hainbat eremu sozial eta ekonomikori buruzko jakintza eta ikerketaren inguruan egiten dituen jardunek garrantzi estrategikoa dute Aldundiak Bizkaiko lurralde historikoko erakunde publiko gisa egin beharreko jarduerak garatu eta planifikatzeko. Deustuko Unibertsitatea, jakintzaren esparru unibertsalaren barruan eta gizakiaren interes orokorra gogoan, euskal gizartearen bereziki inplikaturik sentitzen da, eta gizarte- edo ekonomia-garapenerako jardueraren ekarpena egiten dio gizarte horri. Illo horretan, erakunde publikoekiko harremanak gehitu eta harreman horietan sakondu egin behar da, jardun publikoaren plangintza eta kudeaketa hobetzeko. Etorkizun hurbilari begira, Foru Aldundiak berrikuntza eta garapena bultzatzen ditu gizarte-eremu guztietan, ezaugarri bereizgarri gisa etengabeko aurrerapen ekonomiko eta soziala izango duen etorkizunerako eta gizarte-ongizateko maila onargarriak lortzeko oinarri izan daitezkeen. Horretarako, teknologia berrietan, produkzio-sistemaren modernizazioan eta zerbitzu publikoak herritarren premietara egokitzeko zereginean ari da lanean nagusiki.

Illo horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Deustuko Unibertsitateak komenigarritzat hartu dute Bizkailab baterako ekimenaren abiaraztea eta garapena babestea. Proiektu hori, nolatan ere, **Lurralde Historikoarentzat lehentasunezko interesa duten eremuetan jakintza, garapen eta berrikuntza sozialerako gune bat sortzeko** helburuarekin sortu da.

Jardun-esparru horren bidez, Deustuko Unibertsitateko ikerketa-taldeek proiektu zehatzak egin ahal izango dituzte urtero Bizkaiko Foru Aldundiarentzat lehentasunezko interesa duten eremuetan.

Garatu beharreko jardun-ildoak

18. Bizitza osoko etengabeko prestakuntzaren eskaintza planifikatu, ebaluatu eta egiaztatzea.

Goi-mailako prestakuntzaren eskaintzak bizitza osoko prestakuntzari erantzun behar dio. Unibertsitate-sistemei buruzko analisi nagusiak bat datoz horrekin; Boloniako prozesuaren oinarritzko printzipio bat izan zen, eta gero eta erreferentzia hedatuagoa izango da unibertsitate guztietan, gaur egun unibertsitate-sailkapen nagusietan lehenak diren unibertsitateetan bezala.

Jardun-ildo honen barruan, honako jardun hauek sartzen dira: profesionalentzako prestakuntza-ereduak garatu eta finkatzea (premia aldakorrei erantzuteko *ad hoc* eskaintza batekin), irakasleak trebatzea, edukiak lantzea, eta teknologia berrien aplikazio eta erabilera oinarritutako online tresna berriak garatzea.

Jardun-ildo hau funtsezkoa da Euskadiko testuinguruan. Izan ere, azken 20 urteetan izandako jaitsiera demografiko handiaren ondorioz gertatu den gizartearen zahartzea dela-eta, gure giza baliabideak ahal den neurrian baliatu, eta bizkor egokitu beharko dira teknologietan, negozio-ereduetan eta gizarte-joeretan etengabe gertatzen diren aldaketetara. Hori guztia dela-eta, funtsezkoa izango da profesionalen lan-bizitza osoko birkalifikazio eta trebakuntza eguneratura bideratutako estrategiak garatzea.

19. Doktoreen enplegarritasuna eta lan-merkatuan txertatzeko aukera sustatzea

Honako jardun hauek hartzen ditu kontuan: enpresak eta beste erakunde batzuk doktorego-tesien garapenean inplikatzeko, enpresen eta beste erakunde batzuen premiei erantzuteko moduko lanbide-profil bat izango duten doktoregoak diseinatzea, eta doktoregaiak transferentzian eta ekintzailertzan trebatzea. Jardun-ildo honetan, enpresek eta erakundeek doktorearen prestakuntza-prozesutik bertatik parte hartzeko aukera bultzatuko duten mekanismoak hartzen dira kontuan.

Euskal Unibertsitate Sistemak ahalegin handia egin du doktoreak prestatzen. Unibertsitateek doktoreak berenganatzearen balioaz gain, bide luzea geratzen da oraindik doktorearen figura beste erakunde batzuetan –eta, bereziki, enpresan– aintzatetsi eta kontuan hartzeko. Doktore gazteek, zientzia-gaitasunez gain, zeharkako beste gaitasun batzuk garatzen dituzte, eta nazioarteko ingurunean mugitzen ohituta daude. Nolanahi ere, gaitasun guztiak behar-beharrezkoak dira enpresa eta erakundeentzat.

Illo horretan, lehentasunezkoa da enpresek eta erakundeek doktorearen prestakuntza-prozesutik bertatik parte hartzeko aukera erraztuko duten mekanismoak antolatzea, edukiak eta tesi-proiektuak etorkizunean doktore horiek har ditzaketen erakundearen premietara bideratu ahal izan daitezen.

Era berean, euskal sare sozioekonomikoak doktoreak bereganatzeko dituen gaitasunen analisia egin behar da. Illo horretan, lehenik eta behin, enpresa-sarean eta beste gizarte-erakunde batzuetan kokatutako doktoreen egoera zein den eta zer balio diferentzial dakartzaten jakin behar da.

110. Goi-mailako prestakuntzaren eskaintza “lanbide-heziketarantz” dibertsifikatzea.

Goi-mailako prestakuntzaren eskaintzak bizitza osoko prestakuntzari erantzun behar dio. Unibertsitate-sistemei buruzko analisi nagusiak bat datoz horrekin; Boloniako prozesuaren oinarritzko printzipio bat izan zen, eta gero eta erreferentzia hedatuagoa izango da unibertsitate guztietan, gaur egun unibertsitate-sailkapen nagusietan lehenak diren unibertsitateetan bezala.

Jardun-ildo honen barruan, tituludunak lan- eta lanbide-merkatuan txertatzeko aukera errazten duten prestakuntza arautuko eta arautu gabeko prestakuntzako ekintza guztiak biltzen dira.

111. Ikerketaren emaitzen balorizazioa, enpresen sorkuntza, ekintzailatzaren kultura eta gizarte-ingurunerako transferentzia sustatzea

Ikerketaren emaitzak gizartera transferitzea unibertsitatearen eginkizunetako bat da. Jardun-ildo honen barruan, honako jardun hauek hartzen dira kontuan: transferentzia bultza dezaketen lankidetzaz-eredu berriak garatzea, lankidetzaz-dinamika egonkorak babestea, eta proiektuak egikaritzea.

2015-2018ko Unibertsitate Plan honetan, transferentziaren ikuspegia aurreko Planean baino zabalagoa izango da ikerketaren emaitzen azken hartzaileei dagokienez. Ildo horretan, enpresa-sareaz gain, giza eta gizarte-zientzien eremuei lotuta daudenez gero aukera gehiago eskaintzen dituzten beste erakunde eta gizarte-entitate batzuk identifikatu dira.

Goi-mailako hezkuntzako erakundeak aktiboago jokatzeko ari dira ikerketaren emaitzak ustiatzeko garaian. Ildo horretan, beren baliabide eta ikertzaileak inplikatzeko dituzte, eta ekintzailatza sustatzen dute horiengan, gauzatu ahal izateko. Horrela, beraz, 2015-2018ko Unibertsitate Planak Oinarri Teknologikoa duten Enpresa Berrien (OTEB) eta unibertsitateko spin-off izeneko sorkuntza babestea aurreikusten du jardun-ildo honen bitartez.

Euskal Unibertsitate Sistemak zuzendutako eta bideratutako transferentzia-estrategia batzuk garatuko ditu. Estrategia horien bidez, estrategia bakoitzaren xede diren enpresen tipologia zein den, enpresa horiek zer sektoretakoak diren eta nolako irtenbideak eskain daitezkeen ulertu ahal izango da. Jardun-ildo honetan egiten diren aurrerapenak, nolahi ere, unibertsitateek lortutako kontratu bidezko diru-sarreraren zifretan eta unibertsitateek egikaritutako eta enpresek finantzaturako I+Gko gastuaren ehunekoan islatu beharko lukete.

Jardun-ildo honen barruan, enprekin eta beste erakunde batzuekin ikerketari eta jakintzen transferentziari lotutako lankidetzaz-lotura egonkorak garatzea hartzen da kontuan. Jardun-ildo honen bidez, transferentzia- eta lankidetzaz-funtzioan era intentsibo eta eraginkorrean laguntzen duten eta enpresa- eta gizarte-sarearen etorkizuneko premiak iragartzeko tresna aproposak diren lankidetzaz-programa egonkorrei balioa eman nahi zaie.

Gizartearen eskariei erantzuteko irtenbideen bilaketa aurreratze aldera erronketara bideratutako ikerketaren sustapenak eta nazioarteko bikaintasun-campusaren hedapenaren bidez ZTBESko agenteen arteko lankidetzaz bultzatutako duen lankidetzazko I+G+Bko gune baten finkatzeak enpresa- eta gizarte-sararako hurbilketa errazteko funtsezko bi elementu izan behar dute.

112. Doktoreen ikerketa-karreraren garapena eta mugikortasuna (ZTBESko agenteen, enpresen, gizarte-entitateen eta erakundeen artean) erraztuko duten eskema malguak bultzatzea.

Ikertzaileen beste erakunde batzuetarako (enpresa, gizarte-entitate eta erakundeetarako) mugikortasuna errazten duten jardunak hartzen ditu kontuan. Horretarako, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Estatuko Legearen ahalmen guztiak baliatu behar dira Euskadira egokitzeko garaian, eta lankidetz-formula egonkorak bilatu behar dira.

Nazioarteko bikaintasun-campusen proiektuak jardun-ildo honen implementazioa eta jardun-ildo honetatik espero diren emaitzen lorpena bultzatu behar duten elementuak dira.

	Sistemako ekintzak	Ekintza itunduak
Tipologia	Unibertsitatearen eta enpresaren arteko proiektuak - Europako Unibertsitate Plana: unibertsitate pribatuek enpresen parte-hartzearekin horientzat interesa duten ikerketa-proiektuak egiteko laguntzak. - ETORTEK PLUS: ZTBESko kideek Euskadin identifikatutako espezializazio-arloetan egindako ikerketa estrategikorako laguntzak. - Herrialderako trakzio-ahalmena duten lankidetz-proiektu integratuak egiteko laguntzak.	Profesionalen prestakuntza - Bizitza osoko prestakuntzarako hezkuntza-eredua garatzea - Enprekin eta beste erakunde batzuekin prestakuntza integratuko eredu bat garatzea - Online prestakuntza-edukiak sortzea - Hezkuntza-eredu irekien plataforma berriak sortzea Doktoreak ingurune sozioekonomikoan txertatzea - Enpresetan doktoreak prestatzeko programa bultzatzea - Enpresa, zentro teknologiko eta klusterrekin lanbide-doktoregoak garatzea - Enplegarritasunari eta gizarte-ekintzailetzari lotutako prestakuntza Enpresa-sarerako transferentzia - Lankidetz-akordio egonkorak formalizatzea - Lankidetz-eredu berriak zehaztea - Baterako proiektuak egiteko aukera babestea - OTEBak eta spin-offak sortzea Gizarte-sarerako transferentzia - Lankidetz-ikerketaren eredu berriak giza eta gizarte-arloetan - Gizarte-erakundeekin lankidetz-hitzarmenak ezartzea - Gizarte-proiektuak garatzea Jabetza intelektual eta industrial - Ikerketa-proiektuetan sortutako patenteen garapena sustatzea
Tresnak	Deialdiak	- UPV/EHUren, Deustuko Unibertsitatearen eta Mondragon Unibertsitatearen ikerketa eta transferentziako programa-kontratuak - Katalizatzaileak: Euskampus, Aristos Campus Mundus

6.3-1 irudia. Transferentziaren inguruko helburuaren hedapenari lotutako ekintzak

Transferentziari lotutako helburua lortzeko jardun-ildoetan egin beharreko aurrerapena oso lotuta dago ikerketa-jarduera Euskadiko Espezializazio Adimendunaren Estrategian ezarritako lehentasunetara bideratzeko zereginarekin. Ikuspegi horretatik, Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateek

aukera aproposa dute sare sozioekonomikora hurbiltzeko, eta aukera hori baliatu beharra dago.

Adierazleak eta jomugak¹⁶

Tipologia	Adierazlea	Hasierako egoera 2014	2018ko jomuga
Jarduna	HE3.1. Jatorri pribatuko finantzaketa duten unibertsitateek I+G arloan egindako gastuaren ehunekoa (%)	%6,0	%7,0
	HE3.2. Kontratu bidezko diru-sarrerak (M€)	14,90	16,61
	HE3.3. Titulartasun propioa edota unibertsitatearen esku-hartze erabakigarriarekin sortu diren eta ustiatzen diren patente edo lizentzien kopurua	2	5
	HE3.4. Urtean sortutako <i>spin-off</i> en kopurua	22	20
	HE3.5. Egindako <i>spin-off</i> etan sortu diren enpleguen kopurua (egindako <i>spin-off</i> guztien metaketa)	126	178
	HE3.6. Bertaratu beharrik gabeko prestakuntzan parte hartu duten graduako eta graduondoko ikasleen ehunekoa	9.712	10.770
Ahalegina	HE3.7. Enpresez bestelako erakundeentzat proiektuak egiten dituzten unibertsitateko ikertzaileen kopurua	174	197
	HE3.8. Enpresez bestelako erakundeentzat proiektuak egiten dituzten unibertsitateko ikertzaileen kopurua (LOB)	8,7	11,1
	HE3.9. Enpresentzat proiektuak egiten dituzten unibertsitateko ikertzaileen kopurua	601	690
	HE3.10. Enpresentzat proiektuak egiten dituzten unibertsitateko ikertzaileen kopurua (LOB)	94,4	103,3
	HE3.11. Enpresekin edota enpresez bestelako erakundeekin lankidetzan egindako tesien kopurua (enpresa/enpresez bestelako erakunde batean egindakoak, enpresa/enpresez bestelako erakunde baten finantzaketarekin egindakoak eta abar)	13	25
	HE3.12. Enpresekin egindako lankidetzak-akordio egonkorren kopurua (hainbat urtetako iraupena) ¹⁷	43	62
	HE3.13. Enpresez bestelako erakundeekin egindako lankidetzak-akordio egonkorren kopurua (hainbat urtetako iraupena)	24	43

6.3-2 irudia. Transferentziaren inguruko helburuari lotutako adierazleak eta jomugak (Muren hasierako datuak 2013. urtekoak dira; eskura dagoen unibertsitateek I+G arloan egindako gastuaren jatorri pribatuko finantzaketaren azken datua 2013. urtekoa da).

Iturria: Iturria: geuk egina, honako hauen datuetan oinarrituta: 2015-2018ko programa-kontratuak eta Eustat

¹⁶ Abiapuntuko datuak eta helburuak programa-kontratuen balioen agregaziotik abiatuta jaso dira, edota, zuzenean, Euskal Unibertsitate Sistemaren Aginte Mahaiaren balioetatik.

¹⁷ ZabaldUz programaren balioak hartu dira UPV/EHUren kasuan.

6.4 Inklusioa, efizientzia eta kalitatea: HE4. Kalitateko zerbitzu-eskaintza inklusibo bat izango duen EUS bat, baliabideen eta teknologia berrien erabilera iraunkor, ingurumen-arloan arduratsu eta garden bat, eta finantzaketa-eredu orekatu eta iraunkor bat bermatzea

Sistemako unibertsitateen funtzionamendu onaren ikuspegiari lotuta dagoen helburu honen bidez, kalitateko zerbitzu-eskaintza inklusibo bat izango duen Euskal Unibertsitate Sistema batean, baliabideen eta teknologia berrien erabilera eraginkor eta garden batean eta finantzaketa-eredu orekatu eta iraunkor batean sakondu nahi da.

UPV/EHUko ikasle desgaituek prestakuntza praktikoa jasotzeko aukeraren sustapena

UPV/EHU 2012. urteaz geroztik ari da bere II. Inklusio Plana inplementatzen. Plan horren oinarritzko printzipioa desgaitasunak dituzten pertsonen aukera-berdintasuna bermatzean datza, eta desgaituen eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioan ezarritako printzipioei jarraitzen die: pertsona orori datzekion duintasunaren errespetua; autonomia indibiduala, bakoitzak bere erabakiak hartzeko askatasuna barne; diskriminaziorik eza; gizartean erabat eta benetan parte hartzeko eta txertatzeko aukera; desberdintasunaren errespetua eta desgaituen onarpena (giza aniztasun eta izaeraren parte gisa); aukera-berdintasuna; sarbidea.

UPV/EHUK konpromiso berezia hartu du ikasle desgaituen aukera-berdintasunarekin eta haienganako arretaren hobekuntzarekin, unibertsitatearen plan estrategikoan eta estatutuetan adierazten denez. UPV/EHUren 2012-2017ko Plan Estrategikoak honako konpromiso hau jasotzen du bere helburuen artean (IV. ardatza. Gobernantza eta kudeaketa): “unibertsitate-komunitatearen kohesio handiagoa sustatuko du. Xede horietarako, UPV/EHUK kontuan izango ditu honako printzipio hauek: aukera-berdintasunarena, aniztasunaren eta diferentziaren errespetuarena”. Bestalde, biltzen dituen ekintzen artean (V. ardatza. Konpromiso soziala), honako hau azpimarratu beharra dago: “unibertsitate-jarduera guztietan aniztasunarekiko arreta sustatzea, inklusioa erraztuz eta bereizketak ematen duen aberastasuna onartuz”. UPV/EHUren Estatutuetan ere hainbat aipamen egiten dira desgaitasunaren tratamenduaren inguruan. Horren erakusgarri, UPV/EHUren helburuen artean esanbidez aipatzen da premia bereziak dituzten pertsonak unibertsitate-komunitatean txertatzeko aukera. Ildo horretan, UPV/EHUK ekintzak sustatuko ditu premia bereziak dauzkaten unibertsitateko kideek eta gainerako kideek aukera-berdintasun berberak dauzkatala ziurtatzeko. Beraz, beharrezko baliabideak, informazioa, laguntza eta bitartekoak jarriko ditu premia bereziak dauzkaten pertsonen eskura. Ildo berean jasotzen denez, UPV/EHUK bermatu egingo die aukera-berdintasuna ezintasunak dauzkaten ikasleei eta unibertsitateko gainerako kideei. Beraz, debekatu egingo du edozein diskriminazio mota, eta ekintza positiboa bultzatuko du, aipatutako pertsonen parte-hartzea erabatekoa eta eraginkorra izan dadin unibertsitatean. Bestalde, Estatutuek erakundearen plazen hornikuntzari dagokionez adierazten dutenez, UPV/EHUK kontuan hartuko du ezintasunak dauzkaten pertsonen lana emateko arautegietan xedatutakoa, eta aplikatu egingo du langileak hautatu eta kontratatzean.

Hain zuzen ere, azken aipamen horren hedadurazko interpretazio batek ekintza positibo bat eragin du unibertsitateak berak kudeatu beharreko praktika-programetan kupoak ezartzeari dagokionez. Izan ere, II. Inklusio Planaren helburuetako bat desgaitasunak dituzten ikasleei laneratzen laguntzea da. Unibertsitateak lan-munduarekiko lehen harremana eskain diezaieke ikasleei praktika-programen bitartez. Horretarako, desgaitasuna duten ikasleentzako kupoak ezarri dira UPV/EHUK kudeatzen dituen programetan, titulazioa edozein izanik ere. Horixe gertatu da, adibidez, honako programa hauetan: Lehen Aukera (UPV/EHU 2013), Santander-CRUE-CEPYME Bekak (2013/2014 eta 2014/2015) eta ERASMUS+PRAKTIKAK (EPEZ IX) (2014/2015):

- UPV/EHUren Lehen Aukera programan, %5eko kupo gorde da (345 beketatik 17) %33ko edo hortik gorako desgaitasun motaren bat duten tituludunentzat, eta %50eko kupo %65eko edo hortik gorako desgaitasun motaren bat duten tituludunentzat.

- Santander-CRUE-CEPYME Bekak programan (2013/2014 eta 2014/2015), Santander Fundazioak UPV/EHUri esleitutako 169 beketatik, %5 gorde da pertsona desgaituentzat (8 beka).
- ERASMUS+ PRAKTIKAK (EPEZ IX) programan (2014/2015), oraindik ez da esleipena egin, baina %5eko kupoa gorde da (75 beketatik 4).

Garatu beharreko jardun-ildoak

113. Euskal Unibertsitate Sistemaren gobernantza, kudeaketa, jarraipen eta ebaluazioaren eredia finkatzea.

Euskal Unibertsitate Sistemaren eta hori osatzen duten hiru unibertsitateen ibilbideak eta esperientziak gobernantza, jarraipen eta ebaluazioaren ereduari lotutako funtsezko prozesu batzuk finkatzen lagundu behar dute. Ildo horretan, alde batetik, unibertsitateek barne-kudeaketaren hobekuntzari lotutako jardunak jarri behar dituzte abian; bestetik, Euskal Unibertsitate Sistemak, Jaurlaritzaren lidergoarekin, hiru unibertsitateen arteko analisi, ebaluazio eta lankidetzarako ildoak bultzatzeko gai izan behar du.

114. Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateen tokiko eta nazioarteko lehiakortasuna eta oihartzuna hobetzea.

Jardun-ildo honen barruan, honako jardun hauek hartzen dira kontuan: komunikazio-planak egitea, unibertsitateak tituludunen bitartez indartzea, eta unibertsitateek komunikabideetan duten presentzia areagotzeko teknologia digitalak baliatzea.

115. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskaintzen dituzten aukerak erabili eta baliatzeko zereginean aurrera egitea.

Ildo honen barruan, unibertsitate birtualaren eredurantz abiatzeko egitura, prozesu eta edukien sorkuntzari lotutako jardunak hartzen dira kontuan.

116: Ekitatea, inklusioa eta aukera-berdintasuna.

Aipatzen dituen eremuei lotutako jardunak hartzen ditu kontuan, genero-berdintasunari, inklusioari edo sarbideari lotutako hainbat plan diseinatu eta ezartzearen bitartez nagusiki.

Jaurlaritzaren esku-hartzeak, sistemako ekintzen bitartez, ikasleei eta familiei goi-mailako hezkuntzako ikasketak egiteko aukera eman beharreko babesa du ardatz. Unibertsitate-ikasketak egiteko aukera eskaintzea Plan honen printzipio gidarietako bat da, azken urte hauetan izan den bezala; izan ere, beka, laguntza eta salbuespenen bidez kapitulu horretara bideratutako baliabideak gehitu egin baitira.

	Sistemako ekintzak	Ekintza itunduak
Tipologia	Ikasleei laguntzea eta ikasteko aukera eskaintzea Beka orokorrak, garraio-bekak eta bikaintasun-	Egiturak egokitzea - Zentroak berrantolatze planak - Kontabilitate analitikoaren ezartzea - Kontsumoak eta hondakinak murriztea Komunikazioa eta oihartzuna

	Sistemako ekintzak	Ekintza itunduak
	bekak • Ikerketaren hastapenatarako laguntzak • Prezio publikoak ez ordaintzeko salbuespena, beren ezaugarriengatik unibertsitate-ikasketak egiten hasteko eta aurrera jarraitzeko zailtasunak dituzten ikasleentzat	• Komunikazio-planak • Identitate eta komunikazio digitala garatzea Teknologia berriak baliatzea • Campus Birtualeko zerbitzuak garatzea Ekitatea eta inklusioa • Berdintasun-plana, inklusio-plana eta UGE memoria • Ikertzaileak proiektuetan sartzeko aukera sustatzea • Emakumeek unibertsitate-jardueran duten parte-hartzearen jarraipena egitea
Tresnak	• Bekak eta laguntzak	• UPV/EHuren, Deustuko Unibertsitatearen eta Mondragon Unibertsitatearen gizarte-erantzukizuneko eta gizarte-proiektuak programa-kontratuak • Katalizatzaileak: Euskampus, Aristos Campus Mundus

6.4-1 irudia. Inklusioaren, kalitatearen eta efizientziaren inguruko helburuaren hedapenari lotutako ekintzak

Generoari dagokionez, eta Europako Batzordearen aginduei jarraiki, emakumeek unibertsitate-jardueran duten parte-hartzea eta protagonismoa ikusteko aukera emango duten ratio batzuen jarraipena hartuko du kontuan 2015-2018ko Unibertsitate Planaren jarraipen- eta ebaluazio-adierazleen sistemak.

Adierazleak eta jomugak¹⁸

Tipologia	Adierazleak	Hasierako egoera 2014	2018ko jomuga
Jarduna	HE4.1 Lanbide-karrerako maila guztitako emakumeen ehunekoa (IIL eta AZL)		
	HE4.2. Ikasleen ehunekoa, ikasketa-mailaren eta sexuaren arabera		
	HE4.3. Bekak jasotzen dituzten ikasleen ehunekoa (EUSeko ikasleen artean)	%14,6	%11,7
	HE4.4. Laguntzak jasotzen dituzten ikasleen ehunekoa (EUSeko ikasleen artean)	%13,9	%16,3
	HE4.5. Kontabilitate analitikoaren ezarritako unibertsitateen kopurua	0	2
Ahalegina	HE4.6. Goi-mailako hezkuntzako gastuaren finantzaketa publikotik familiei laguntzeko ordainketa eta transferentziak (beka, laguntza eta abarretara) bideratutako ehunekoa	%11,4	%11,5
	HE4.7. Berdintasun-plana, komunikazio-plana eta UGE memoria egiten ari diren unibertsitateen kopurua	2	2

6.4-2 irudia. Inklusioaren, kalitatearen eta efizientziaren inguruko helburuaren hedapenari lotutako adierazleak eta jomugak (eskura dagoen beken eta laguntzen azken datua 2012. urtekoa da).

Iturria: geuk egina, honako hauen datuetan oinarrituta: 2015-2018ko programa-kontratuak, Eusko Jaurlaritza, Eustat eta EIN

¹⁸ Abiapuntuko datuak eta helburuak programa-kontratuaren balioen agregaziotik abiatuta jaso dira, edota, zuzenean, Euskal Unibertsitate Sistemaren Aginte Mahaiaren balioetatik.

Erronkak	HE1. Euskal gizarteak goi-mallako prestakuntzaren inguruan dituen premiei erantzutea			HE2. Nazioarteko proiektuak eta euskal RIS3 estrategiari lotutako ikerketa garatzea				HE3. Euskal gizartearen erronka sozialei, ekonomikoari eta etengabeko prestakuntzako erronkei aurre egiteko laguntza erabakigarria					HE4. Kalitateko zerbitzu-eskaintza bat izango duen EUS bat bermatzea			
	I1	I2	I3	I4	I5	I6	I7	I8	I9	I10	I11	I12	I13	I14	I15	I16
Prestakuntza																
Errendimendu akademikoaren tasak hobetzea	•															
Enplegarritasuna eta ekintzaitasun bultzatuko duten tresna, eredu eta titulazioak garatzea		•														
Hizkuntza-normalizazioaren bultzadari eustea	•															
EUSeko ikasleen mugikortasuna			•													
Irakasle, ikertzaile eta zerbitzu-etako langileen etengabeko prestakuntza GHEEko metodologiaren	•															
Talentuak Herrialdera erakartzea			•													
Ikerketa																
Autonomia-erkidetako produktzio eta produktibitate zientifikoaren sailkapenean aurrera egitea				•	•	•	•									
Kalitatea eta bikaintasuna sustatzea				•	•	•	•									
Ikertzaile-masa gazteagotzea eta, horretarako, ikerketarako gaitasuna eta EUSa nazioarteko erreferentzia diren talde eta erakundeekin konektatzeko ahalmena izango duten nazioarteko ILLak hartzea				•												
Nazioarteko programetan parte hartzeko aukera bultzatuko duten egitura espezializatuak babestea						•	•									
Transferentzia																
"Transferentzia" kontzeptua zabaltzea gizarte-transferentzia ere barnean hartzeko								•	•	•	•	•				•
Bizitza osoko prestakuntza bultzatzea								•	•							
ZTBESAren barruan liderra izateko bidean aurrera egitea											•	•				
EUSeko unibertsitate bakoitza enpresa-sarearekin espezifikoki lotzeko estrategia bat zehaztea											•	•				
Transferentzia-funtzioa betetzea eta unibertsitate barruan ingurunearekin lotzea ahalbidetuko duten profil egokiko profesionalak txertatzea											•	•				
Efizientzia eta kalitatea																
Kudeaketa-eredu arin, garden eta atsegin bat lortzeko bidean aurrera egitea													•	•	•	
EUSaren jarraipen- eta ebaluazio-eredua finkatzea													•			
EUSeko agenteen artean lankidetzaren jardunak egitea, benetan sistema gisa funtzionatzeko													•			
EUSeko unibertsitateetan kontabilitate analitikoaren ezartzea													•			
EUSaren oihartzuna areagotzea														•		
Zeharkako erronkak																
EUSaren gaitasunak eta jarduerak Euskadiko Espezializazio Adimendunaren Estrategiaren (RIS3) lehentasunetara egokitzea				•	•	•	•	•	•	•	•	•				
Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Legearen inplementazio-ahalmena baliatzea: ikertzaileen mugikortasuna, enpresekiko harremana eta abar									•		•	•				
ZTBESeko beste agente batzuekin harremanak ezartzeko ahalmena areagotzea, eta lidergo-maila handiagoak bere gain hartzea											•	•				
Enpleguan aurrera egitea eta IKTen aukerak baliatzea															•	
EUSeko unibertsitateek Bikaintasun Campusaren inguruan dituzten proiektuak babestea (Euskampus eta Aristos Campus Mundus)							•									
EUSaren jardueren eremu guztietan aukera berdintasuna bultzatzea																•

6.4-3 irudia. Erronken eta jardun-ildoaren gurutzaketa: harreman nagusiak

7 Planaren Gobernantza


Planaren gobernantzan hiru osagai nagusi daude:

- Kudeaketa organoak dira Plana gidatzen eta egokitzen duten mekanismoak, haren bilakaeraren arabera.
- Finantzaketa-partida esku hartzeko tresna nagusia da, eta Planaren kudeaketan hartutako erabakiak islatzen ditu.
- Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleek Planaren aurrerabideari eta hura egokitzeko premiei buruzko informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa ematen dute.

Jarraian, 2015-2018ko Unibertsitate Planak hiru osagai horien inguruan taxutu duen planteamendua azalduko da.

7.1 Gobernantza-organoak

Plana era koordinatu eta koherentean bideratzeko, beharrezkoa da hainbat organo izatea, bakoitzak bere eskumen-arlotik politika jakin bat garatzeko ziklo osoa landu ahal izateko, hau da, estrategia diseinatzea, estrategia hori gauzatzea eta horren jarraipena eta ebaluazioa egitea.



7.1-1 irudia. 2015-2018ko Unibertsitate Planaren jarraipen-, kudeaketa-, ebaluazio- eta kontsulta-organoen eskema

Hiru organo mota bereizten dira:

- *Planaren jarraipen-batzordeak.* Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten hiru unibertsitateetako programa-kontratuen eta Euskal Herriko Unibertsitatearen finantzaketa arruntaren zein Inbertsioen Urte Anitzeko Planaren jarraipena egiteaz arduratzen dira.

- *Kudeaketa-organoak.* 2015-2018ko Unibertsitate Plana behar bezala garatu eta gauzatuko dela bermatzeaz arduratzen dira. Organo horiek Batzorde Zuzendaria eta Idazkaritza Teknikoa dira. Batzorde Zuzendaria Planaren garapena bultzatzeaz eta sor litezkeen aukeren edo zailtasunen aurrean hura egokitzeko erabaki zuzenak hartzeaz arduratuko da. Idazkaritza Teknikoa planaren garapenaren jarraipena eta ebaluazioa egiteaz arduratuko da, eta Batzorde Zuzendariari horren berri emateaz.
- *Ebaluazioa.* Eginkizun horrekin eta funtzio horiekin eratu denez, Unibask Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak Euskal Unibertsitate Sistemaren proiektuak, jardunak eta erakundeak ebaluatu eta egiaztatzeko ardura izango du.
- *Kontsulta.* Hezkuntza eta ikerketa bultzatzea eta sustatzea eta jakintza gizarteari transferitzea bizitza sozialaren alderdi askotan eragiten duen zeharkako prozesua da. Ikuspegi horretatik abiatuta, kontsultak egiteko hainbat kontseilu eta batzorde definitu dira. Kontseilu eta batzorde horietan hainbat eremu eta motatako agenteak sartzen badira, balioetsi ahal izango da norabide egokian ari den aurrera egiten, eta horrela jarraitzea ahalbidetuko duten jardunak identifikatu ahal izango dira. Honako hauek dira: Euskadiko Unibertsitate Kontseilua, Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua, eta Sailen arteko Batzordea.

Aurreko planarekin alderatzen badugu, ikusiko dugu 2015-2018ko Unibertsitate Planaren gobernantza-organoen eskeman ikusten diren aldaketa nagusien artean honako hau dagoela: Ekarpen Arruntaren Jarraipen Batzordearen egitekoa.

2015-2018ko Unibertsitate Plan honetan barneko egokitze- eta berresleipen-mekanismoak sartu direnez gero, Batzorde horrek, Euskal Herriko Unibertsitatearen ohiko jardueraren finantzaketa nahikotasun-baldintzak kontuan hartuta aztertu eta adosteaz gain, programa-kontratu bidez finantzatutako ekintzei dagozkien partida jakin batzuk ekarpen arruntaren barruan sartzeko aukera aztertzeko eta barruan sartzea proposatzeko ardura izango du. Programa-kontratu horiek egiturazkoak izango dira eta unibertsitatearen ohiko jardueraren zati izango dira.

7.2 Finantzaketa

2015-2018ko Unibertsitate Planak aurreko planen garaikoez bestelako errealitate bat eta testuinguru bat ditu abiapuntu. Krisialdi ekonomikoak markatutako aldi sozioekonomiko guztiz desberdin batean garatzen da, aurrekontu-bitarteko urriekin eta hazkunde neurritsuarekin.

Horregatik, Planaren bidez, 2015-2018 aldirako konprometitutako baliabideek eta baliabide horien bitartez lagunduko diren jardunek eraginkortasuna, efizientzia eta iraunkortasuna izan beharko dituzte oinarrizko irizpide. Eraginkortasuna eta efizientzia ezinbestekoak izango dira behar-beharrezkoak diren baliabideekin konprometitutako emaitzak lortzeko; eta iraunkortasuna, berriz, hasitako jardunen bideragarritasuna ziurtatzeko, beren ezaugarriengatik aurrekontu publikoen kontura izaera mugagabez jarraitu ezin duten ezohiko finantza-iturrietara jotzeko aukerara mugatu gabe.

Aipatutakoak oinarri hartuta, 2015-2018ko Unibertsitate Planaren finantzaketa publikoak honako jarraibide hauei erantzuten die:

- Familiei eta ikasleei laguntzen egindako ahalegina bikoiztea, ikasle horiek unibertsitate-ikasketak aukera-berdintasunean egin ditzaten ahalbidetzeko.
- Unibertsitate publikoaren jarduera behar adinako finantzaketa-mailarekin bermatzea.
- Azpiegitura berrietan inbertsioa egitearen aldeko oso apustu espezifiko egitea, apustu hori UPV/EHUren Medikuntza Fakultate berriaren aldekoa izanik.
- Programa-kontratuen baliabideak finantzaketa-iturri berriak lortzeko aukera finkatzea ahalbidetuko duten gaitasunak sortzera bideratzea.
- Euskadi 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Planarekin ez ezik, Eusko Jaurlaritzaren enpleguaren eta hazkunde iraunkorraren ardatzeko gainerako planekin ere bat egiten duen ikerketaren aldeko apustua egitea.

Azken batean, baliabideak behar bezala kudeatzea Euskal Unibertsitate Sistemaren aurrerapena orain arte lortutakoa oinarri hartuta bultzatzeko.

Planteamendu zuhur horrek behar adinak mekanismoak ezartzen ditu, aipatutako aukera orain dugun aurrekontu-bitartekoa baino aurrekontu-bitarteko handiagoko egoera batean planteatzeko aukera dagoenean baliabideak areagotu ahal izateko, 2011-2014ko Unibertsitate Planaren programa-kontratuetan ezarri zen bezala. Gainera, berrikuntza gisa, finantzaketa arruntaren eta programa-kontratuen artean baliabideak berresleitzeko aukera ematen du Euskal Herriko Unibertsitateak behin eta berriro errepikatzen duen jardueran azken urte hauetan biltzen diren ekintzak finkatu behar direla erabakitzen denean.

Eusko Jaurlaritzak 2015-2018ko Unibertsitate Plana finantzatzeko aukera zehaztasunez aztertzen badugu, esan behar dugu finantzaketa horrek hiru iturri nagusi dituela:

- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila da Planaren bitartekoen iturri nagusia, urte anitzeko finantzaketa-mekanismoei dagokienez bereziki. Guztira, aurreikusten du Plan honetan bildutako Ekintza Itunduetarako esleitzen diren zenbatekoak erabiliko dituela, baita Sistemari Laguntzeko Ekintzetara bideratutakoak ere (unibertsitate-ikasketak egiteko beken eta laguntzen diru-kopuruak, adibidez).
- Jaurlaritzaren beste sail batzuk. Sail horietako tresnak eskuratuz eta Euskal Unibertsitate Sistemaren agenteek deialdian parte hartuz.
- Berrikuntza-funtsa. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen zeharkako ekimenei eutsiz laguntzen du.

Halaber, dokumentuaren gorputzean deskribatutako urte anitzeko finantzaketaren mekanismoak zehaztu dira:

- Alde batetik, Euskal Unibertsitate Sistemaren hiru unibertsitateetako programa-kontratuak. Tipologiaz, Ekintza Itunduak dira.
- Bestetik, Euskal Unibertsitate Sistemaren Legeak Euskal Herriko Unibertsitaterako adierazitako finantzaketa-mekanismo espezifikoak: ekarpen arrunta eta Inbertsioen Urte Anitzeko Plana babestea. Tipologiari begira, Unibertsitate Publikoari eusteko oinarrizko ekintzak dira.

Ondorengo taulan, azalpen horietako bakoitzaren urtez urteko banaketa zehazten da; 2015-2018 aldirako guztizkoa.

Unibertsitatea	Kontzeptua (Eurotan)	2015	2016	2017	2018	Guztira 2015-2018
Euskal Herriko Unibertsitatea	Guztira	300.370.805	302.629.542	306.509.416	320.808.650	1.230.318.413
	<i>Ekarpen arrunta (*)</i>	268.788.319	274.578.319	280.304.995	287.650.121	1.111.321.754
	<i>Programa- kontratua (**)</i>	31.582.486	27.551.223	25.032.047	23.158.529	107.324.286
	<i>Inbertsioen Urte Anitzeko Plana</i>	-	500.000	1.172.374	10.000.000	11.672.374
Deustuko Unibertsitatea	Programa- kontratua	7.286.762	7.396.063	7.543.985	7.845.744	30.072.554
Mondragon Unibertsitatea	Programa- kontratua	6.496.013	6.593.453	6.725.322	6.994.335	26.809.123
Guztira		314.153.580	316.619.058	320.778.723	335.648.729	1.287.200.090

(*) 2015ean ez dago sartuta 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren %25i dagokion 2,8 M€-ko zenbatekoa, hots, EAEko 2015eko aurrekontu orokorrean bilduta dagoena; urte-sari honetarako, ordea, 1 M€-ko aurrekontu-zuzenketa AEEn sartu da; zenbateko hori EAEko 2015eko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean bilduta dago.

(**) 2015ean, EAEko 2015eko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean bildutako 1 M€-ko aurrekontu-zuzenketa biltzen da.

7.2-1 irudia. Urte anitzeko finantzabideak bultzatzeko erabilitako aurrekontua

Aurreko irudian, ekarpen arruntari dagokionez, ordainsari-osagarri indibidualei dagozkien partidak biltzen dira.

Aurreko irudiaren arabera, hiru unibertsitateetako programa-kontratuek urteko igoera berak izango dituzte: 2015.-2016. urteetan %1,5, 2016.-2017. urteetan %2, eta 2017.-2018. urteetan, %4. Baina UPV/EHUren kasuan, berrikuntza gisa, adierazi behar dugu nahiz eta aurreikusi programa-kontratuen finantzaketak izango duen bilakaera adierazitakoa izango dela, 2016. urteaz geroztik, egiturazko gastuen urteko berresleipena egingo dela programa-kontratuek gauzatzen duten ekarpen arruntean; eta horrek ekarriko du ekarpen arruntean dagokion igoera izatea eta kopuru bera murriztea programa-kontratuetan (ikus ondorengo irudia).

Baliabide-aldaketa (Eurotan)	2015	2016	2017	2018	2015-2018
Programa-kontratua(*)	31.582.486	31.041.223	31.662.047	32.928.529	127.214.285
Programa kontratuak	-	-3.490.000	-6.630.000	-9.770.000	-19.890.000
Finantzaketa arrunta	-	+3.490.000	+6.630.000	+9.770.000	+19.890.000

(*) 2015. urtean, 30.582.486.- hartu dira oinarri gisa; zenbateko hori da zuzenketak sartu aurretik aurrekontu-proiektuan aurreikusi dena urte anitzeko igoerak kalkulatzeko.

7.2-2. irudia. Programa-kontratuetatik UPV/EHuren finantzaketa arruntera 2015-2018 aldian aldatu beharreko baliabideak

Unibertsitate Sistema Publikoari laguntzeko oinarrizko ekintzak

Ekarpen arrunta

Ekarpen arrunta Jaurlaritzak ezartzen du ekitaldi ekonomiko bakoitzerako nahikotasunaren printzipioa kontuan hartuta eta Euskal Herriko Unibertsitateari eman beharreko ekarpen arrunta zehazteko Dekretuan ezartzen diren helburu-irizpideei jarraituz.

Ekarpen Arruntaren Jarraipen Batzordearen esparruan, ekarpen arruntaren partida aurrekontu-ekitaldi bakoitzean zenbatekoa aztertzeari eta onartzeari lotutako aurreikuspena da. Finantzaketa-premiak eta Unibertsitatean aurreikus daitezkeen diru-sarrerak aztertu ondoren, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-bitartekoaren partida egokituko da.

Azterketa horretan, denboraren poderioz egiturazko bihurtu diren programa-kontratuen partiden ekitaldi bakoitzaren barne-berresleipenerako aukera bilduko da. Berresleipen horri esker, aurrekontu arruntari 2011-2014ko Unibertsitate Planaren esparruan sortutako AZLen 50 lanpostu eta 100 kontratu ez ezik, II Len lanpostuak ere gehituko zaizkio pixkanaka. Helburu horrekin, langileen arloan ez ezik AZLen eta II Len kasuan egiten diren kontratazioen arloan ere hartzen diren neurrien berri eman beharko dio UPV/EHUK Eusko Jaurlaritzari. Era berean, Ekarpn Arruntaren Jarraipen Batzordearen eskumena izango da ekarpen arruntaren berezko beste kontzeptu batzuk (ordainsari osagarriak, adibidez) aztertzea. Zehazki, ekarpen arruntaren baliabideen 2015-2018 aldiko aurreikuspena 1.111.321.754 € da.

Inbertsioen Urte Anitzeko Plana

Euskal Herriko Unibertsitatearen inbertsio eta azpiegituretarako zuzkiduren plangintzaren helburua obren premiak, inbertsioa zer campusetan gauzatuko den, inbertsioaren zenbatekoa, inbertsioaren aldizkakotzea eta gainerako ezaugarri zehatzak identifikatu eta argudiatzea da.

Abiapuntuko definizio honetatik haratago, obren egikaritze-erritmoen eta aurrekontu-mugen ondorioz, komenigarria izan daiteke Unibertsitate Planaren denbora-muga gainditzea, aurreko Planean gertatu den bezala. Inbertsioen Urte

Anitzeko Plan hau ere aldatu ahal izango da Plana egikaritzeari dagokionez izan daitezkeen premien eta bilakaeraren arabera.

Ohar horiek aipatu ondoren, esan behar dugu Leioako Erizaintzako Unibertsitate Eskolaren nahiz Medikuntza eta Odontologia Fakultatearen eraikin berria 2015-2018ko Unibertsitate Planean jasota dagoen Inbertsioen Urte Anitzeko Planaren lehentasuna dela; horretarako, 11,7 M€ erabili dira tresna honen bitartez aldi horretan, obrei hasiera emateko. Eusko Jaurlaritzak obraren kostuaren %70 emango du.

Ekinaldi horrek baldintzatutako obraren izaera du, eskatzen duelako Euskal Herriko Unibertsitateak beharrezkoak diren izapideak gauzatzea jardun hori aurrera eramateko eta beharrezkoa den finantzaketa gehigarria bilatzea, bai beste erakunde publiko edo pribatu batzuen ekarpenen bitartez, bai UPV/EHUK bere ondarearekin egin beharreko beste eragiketa batzuen bitartez.

Obrak (Eurotan)	2015	2016	2017	2018	2015-2018ko IUPren ekarpena
Fakultate berria*	-	500.000	1.172.374	10.000.000	11.672.374

7.2-3 irudia. Eusko Jaurlaritzak Inbertsioen Urte Anitzeko Planari 2015-2018 aldian egingo dion ekarpena (oraindik ez dira sartu 2019-2021 aldiko finantza-aurreikuspenak)

*Kalkulatzen da fakultate berriaren kostua 65.326.894 euro izango dela. Proiektua idazteak 1.672.374 euroko kostua izango du; zenbateko hori Eusko Jaurlaritzak hartuko du bere gain oso-osorik, eta eraikuntza-gastuak gehi ordainsariak 61.181.035 izango dira, eta zenbateko hori Jaurlaritzak hartuko du bere gain %70eraino.


Konpromiso hori zehaztea lortzen ez bada, UPV/EHUK proposatu ahal izango du, programa-kontratuen jarraipen-batzordearen eta Inbertsioen Urte Anitzeko Planaren esparruan, beharrezko gisa adosten diren beste jardun batzuetarako aurreikusitako gehieneko zenbatekoak egikaritzea Plan honek irauten duen ekitaldietan. Kasu horretan, aipatutako eraikina eraikitzearekin lotutako kredituek –2019ko, 2020ko eta 2021eko ekitaldietara hedatzen direnek– behera egingo dute, eta kreditu horiek data horietan adostu beharko diren Unibertsitate Plan berriaren xede izango dira.

7.3 Jarraipen- eta ebaluazio-sistema

Jarraipena eta ebaluazioa 2015-2018ko Unibertsitate Planaren oinarritzko elementuak dira, ahalbidetuko dutelako jakitea une oro zein den ezarritako jomugen egikaritze-maila eta betetze-maila.

Euskal Unibertsitate Sistemak nabarmen egin du aurrera adierazle-sistema baten garapenean; horregatik, gaur egun, unibertsitateek eta Jaurlaritzak informazio aberatsa dute beren erabakiak bideratzeko.

Ikuspegi horretatik abiatuta, 2015-2018ko Unibertsitate Planak honako helburu hau du atal honetan: orain arte egindakoa finkatzea, informazioa biltzeko eskakizunak sinplifikatuz eta adierazle solidoak eta hedatuak hautatuz Unibertsitate Sistemak munduan aztertu eta ebaluatzeko garaian.



7.3-1 irudia. 2015-2018ko Unibertsitate Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema

Horretarako, 2015-2018ko Unibertsitate Planak bi mailatako jarraipen-sistema ezartzen du:

- **Unibertsitate Sistemaren maila.** Euskal Unibertsitate Sistemaren egoerarekin lotutako adierazleak eta jomugak biltzen ditu. Maila horretan lortutako ondorioak Unibertsitate Planaren bitartez egiten diren jardunen araberakoak izango dira, nahiz eta Planaren bilakaera baldintzatzen duten kanpoko beste elementu batzuk egon.
- **Plan Maila.** Unibertsitate Planaren bitartez abian jartzen ari diren tresnen ondorioekin lotutako adierazleak eta jomugak biltzen ditu, baita Planaren helburu estrategikoak betetzearekin lotutako adierazleak ere. Adierazle horien baterako interpretazioak ahalbidetzen du Planaren hedapenaren efizientzia balioestea.

2015-2018ko Unibertsitate Planaren adierazleak eta jomugak honako arlo hauetan biltzen dira, hurrenez hurren:

- Helburu estrategikoen hedapenean, helburu estrategikoen adierazleen kasuan¹⁹.
- Programa-kontratuen deskribapenean, dagozkien adierazleen kasuan²⁰.

Sistemaren adierazleak eta jomugak

Unibertsitate Sistemaren adierazleak hiru kategoriatan banatzen dira:

- **Ahalegin-adierazleak.** 2015-2018ko Unibertsitate Planaren bitartez palanka gisa erabili nahi diren baliabideen erabilera islatzen dute.
- **Jardunari buruzko adierazleak.** Dagozkien agenteen eginkizunen inguruan Sistemak duen egoera deskribatzen dute.
- **Genero-adierazleak.** Unibertsitatearen bilakaera aztertzen dute lanbide-ikasketen eta -kategorien mailetan gizonek eta emakumeek duten partaidetzaren ikuspegitik.

Lehenengoei dagokienez, 2015-2018ko Unibertsitate Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko hautatutako adierazleak deskribatzen dute inbertsioei dagokienez zer ahalegin egin nahi den Goi-mailako Hezkuntzako Erakundeetan eta egikaritzeari dagokionez zer ahalegin espezifikoa gauzatzen duten I+Gan.

Era berean, familiek beka eta laguntza gisa jasotzen dituzten ordainketen pisua kontabilizatzen dute Goi-mailako Hezkuntza Erakundeetako gastu publikoarekin alderatuta, eta bereizi egiten dira onuradunak izateko irizpide gisa hartzen diren familia-unitateen errentarekin eta erosteko ahalmenarekin lotutako transferentziak (bekak) eta onuradunak aukeratzeko errentan oinarrituta ez dauden bestelako transferentziak (laguntzak).

Baliabideak eskuratzeko adierazle horietako bakoitzerako aipatzen diren abiapuntuko datuekin, 2018. eta 2020. urteetarako jomugen hautaketak honako irizpide honi erantzuten dio:

- Krisialdiaren aurretik adierazpen horiek lortzen zituzten gehieneko mailak berreskuratzea Unibertsitate Plana 2018an amaitzen denean.
- EB-27rekin dauden aldeak murriztea edo EB-27ko batez bestekoa berdintzea beheragoko balioak hartzen badira oinarritzat, eta adierazle horietan buru diren herrialdeekiko distantzia murriztea 2020an batez besteko horretatik goragoko egoera abiapuntutzat hartzen denean.

Bereziki, ezinbestekoa da azpimarratzea familiei laguntzeko transferentzietan eta ordainketetan oinarritutako finantzaketa publikoaren inguruan aurreikusten den bilakaera. Krisialdian, laguntza hori bekak ordaintzeko erabili da, eta horrek ahalbidetu du ikasleek goi-mailako prestakuntzarako sarbidea izatea; aurreikusten da 2020rako beken garrantzia jaistea eta errentekin lotuta ez dauden irizpideetan (prestakuntza, mugikortasuna, hizkuntzak eta/edo

¹⁹ Ikus 6. kapitulua; Planaren hedapena helburu estrategikoaren arabera.

²⁰ Ikus eranskinak; A3. Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateen programa-kontratuak.

bikaintasuna, besteak beste) oinarrituta familiei egiten zaizkien ordainketek eta transferentziek garrantzi handiagoa hartzea, hau da, laguntzak igotzea.

Ahalegin handiagoa egitea laguntzetan; laguntzek balio beharko dute, besteak beste, Euskal Unibertsitate Sistemako ikasleei mugikortasunerako ematen zaien laguntza areagotzeko.

Tipologia	Baliabideak eskuratzeko adierazleak	Iturria	Hasierako egoera		Jomuga	
			Balioa	Urtea	2018	2020
Baliabideak	Gastua goi-mailako hezkuntza-erakundeetan BPGarekiko	Eustat	%0,84	2012	%1,00	%1,20
	Unibertsitateek I+G arloan egindako gastua BPGarekiko	Eustat	%0,36	2013	%0,37%	%0,40
	Goi-mailako hezkuntzako gastuaren finantzaketa publikoaren ehunekoa, familiei laguntzeko ordainketa eta transferentzietarako: bekak	Eustat, EJ eta EIN	%5,8	2012	%4,3	%3,9
	Goi-mailako hezkuntzako gastuaren finantzaketa publikoaren ehunekoa, familiei laguntzeko ordainketa eta transferentzietarako: laguntzak	Eustat, EJ eta EIN	%5,6	2012	%7,2	%7,6

7.3-2 irudia. Euskal Unibertsitate Sistemaren baliabideak eskuratzeko adierazleak eta jomugak

Jardun-adierazleei dagokienez, jomugen kalkuluak hainbat ereduri erantzuten die:

- Beste plan eta estrategia batzuetan –esate baterako Euskadiko 2020 ZTBPan edo Europa 2020 Estrategian– ezarritako jomugak betetzea. Hori gertatzen da Goi-mailako Hezkuntza Erakundearen I+G arloko barne-gastua finantzatzeko erakundeekin 2020ko ZTBPan, eta ikasleen barruko nahiz kanpoko mugikortasun-adierazleen kasuarekin ez ezik, nazioarteko irizpideak dituzten irakasleak Europako estrategiekin kontratatzearekin ere bai.
- Adierazle batzuetan kokapena hobetzea EB-27ko batez bestekoa lortzeko, edo buru diren herrialdeekiko aldeak murriztea. Hori gertatzen da produkzio zientifikoko adierazleekin.
- Adierazleek aurrera egitea hainbat eremutan, Euskal Unibertsitate Sistemak bere emaitzak igotzen jarraitu behar duela ikusten den eremuetan, hain zuzen ere. Adierazle horiek doktoreen prestakuntza, bizitzan zehar prestatzen jardungo duten ikasleen kopurua, kontratupeko diru-sarrerak sortzea edo enplegua enpresak sortuz sortzea islatzen dutenak dira.

Goi-mailako Hezkuntza Erakundeetan egiten den gastuaren, hots, familiei egiten zaizkien ordainketek eta transferentziek (bekak eta laguntzak) eragiten duten gastuaren finantzaketa publikoaren ehunekoak izandako bilakaerarekin hertsiki lotuta, onuradunen ehunekoak ere norabide beretik jo du: laguntzen eskuratzailerako kopurua igo egin da eta beken jasotzaile kopuruak behera egin du; bekak errenta-irizpideekin lotuta daude.

Tipologia	Jardun-adierazleak	Iturria	Hasierako egoera		Jomuga	
			Balioa	Urtea	2018	2020
Hezkuntza eta nazioartekotzea	Hirugarren mailako hezkuntza duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa	Eurostat	%46,8	2013	%49%	%50
	Atzerrian ikasten duten EUSaren ikasleen ehunekoa	PK	%3,9	2014	%4,7	%5,1
	EUSaren goi-mailako hezkuntzan matrikulatuta dauden nazioarteko ikasleen ehunekoa	PK	%4,0	2014	%4,4	%4,6
	Nazioarteko irizpideekin kontratatutako IIL kopurua	PK	122	2014	182	222
	Unibertsitate-tituluari lotutako enplegu-tasa	Lanbide	%73,1	2013	%73,5	%73,7
Ikerketa eta transferentzia	Jatorri pribatuko finantzaketa duten unibertsitateen I+G arloko barne-gastuaren ehunekoa (1)	Eustat	%6,0	2013	%7	%8
	Jatorri publikoko finantzaketa duten unibertsitateen I+G arloko barne-gastuaren ehunekoa (1)	Eustat	%90,0	2013	%86	%84
	Atzerriko finantzaketa duten unibertsitateen I+G arloko barne-gastuaren ehunekoa (1)	Eustat	%4,0	2013	%7	%8
	Unibertsitateek I+G arloan egindako barne-gastuaren ehunekoa I+G arloan egindako guztizko gastuarekin alderatuta	Eustat	%18,2	2013	%20	%23
	Goi-mailako Hezkuntza Erakundeek Euskadiko Oinarrizko Ikerketan I+G arloan egindako barne-gastu arruntaren ehunekoa	Eustat	%57,1	2013	%60	%60
	Doktore-graduatu berriak (25-34 urteko biztanleriaren %-a)	Eustat (IUS)	%1,80	2011	%1,90	%2,00
	Zientzia-argitalpen kopurua (Scopus/WoS) (1)	PK eta Ikerbasque	2.680 / 2.636	2014	3.002 / 2.954	3.177 / 3.127
	Lehenengo kuartilaren argitalpenen ehunekoa (Scopus/WoS)	PK eta Ikerbasque	%58 / %53	2014	%58 / %57	%58 / %59
	Nazioarteko baterako argitalpen zientifikoen ehunekoa (Scopus/WoS)	PK eta Ikerbasque	%43 / %45	2014	%46 / %48	%48 / %50
	EUSen bizitza zeharreko prestakuntzan jardun duten ikasleen kopurua	PK	9.712	2014	10.770	11.341
Gizarte-kohesioa	EUSen kontratupeko diru-sarrerak (M€)	PK	14,90	2014	16,61	17
	EUSek sortutako enpresetako enpleguen kopurua (metatutako enplegua)	PK	126	2014	178	212
	EUSeko ikasleen arteik, bekak jaso dituztenen ehunekoa	EJ eta ENI	%14,6	2012	%11,7	%10,9
	EUSeko ikasleen arteik, laguntzak jaso dituztenen ehunekoa	EJ eta ENI	%13,9	2012	%16,3%	%17,1

7.3-3 irudia. Euskal Unibertsitate Sistemaren jardunaren adierazleak eta jomugak²¹

²¹(1) 2020 ZTBP Planaren jomuga, EUSi egokitua.

Ikuspegi orokor batetik, 2015-2018ko Unibertsitate Planean ezarritako jomugak eta adierazle berberetarako 2011-2014ko Planean azaltzen diren jomugak alderatzen baditugu, ikusiko dugu ezinbestekoa dela jomuga horiek egokitzea, 2010eko abiapuntu-balio beretan dauden edo espero ziren balioen azpitik geratu diren adierazeen bilakaerarekin errealistak izateko. Produkzio zientifikoaren kasuan soilik, familiei egindako ordainketak eta transferentziak, eta EUSaren laguntzen eskuratzailen eta bekadunen ehunekoan, asmo handiagoko jomugak ezar daitezke eta/edo 2020rako aurreikusitako helburuei euts dakieke.

Azkenik, baina horrek ez du esan nahi garrantzi gutxiago duenik, Sistemaren Aginte Mahaia genero-adierazle batzuekin osatzen da. Adierazle horiek unibertsitateko biztanleriaren bilakaera aztertzen dute gizonek eta emakumeek ikasketa-mailetan eta lanbide-kategorietan duten partaidetzaren ikuspegitik.

Abiapuntuko jomuga espezifikorik izan gabe, 2015-2018ko Unibertsitate Planaren Jarraipen Batzordeek adierazle horien bilakaera aztertuko dute Euskal Unibertsitate Sistemaren hiru unibertsitateetako bakoitzean, eta unibertsitate horietan zuzenean esku hartzeko erabaki egokiak hartuko dira horrelakorik behar denean.

Kontuan hartu beharreko abiapuntuko datuak Sistemako unibertsitateek emango dituzte. IILen eta AZLen kategoriak unibertsitateek proposatuko dituzte giza baliabideak kontratatzeko eta/edo kudeatzeko erabiltzen dituzten irizpideen arabera.

ERANSKINAK

A.1. Gobernantza-organoak

A.2. Sistemako Ekintzen deskribapena

A.3. Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateen programa-kontratuak

A.4. Ekarpen Arruntaren eta Inbertsioen Urte Anitzeko Planaren jarraipena egiteko prozeduraren deskribapena

A.5. Akronimoen zerrenda

A.1. Gobernantza-organoak:

- *Planaren jarraipen-batzordea*
- *Kudeaketa-organoak*
- *Ebaluazioa*
- *Kontsulta*

Jarraipen-batzordeak

Planaren jarraipen-batzordeak ekintza itunduen eta Euskal Unibertsitate Sistemari laguntzeko ekintzen jarraipena eta ebaluazioa egiteko unitate gisa antolatzen dira. Azken batean, Euskal Unibertsitate Sistemako hiru unibertsitateen programa-kontratuen garapenaren jarraipena eta ebaluazioa egiteaz arduratzen dira, baita finantzaketa arruntarena eta Euskal Herriko Unibertsitateko Inbertsioen Urte Anitzeko Planarena ere.

Jarraipen-Batzordea Euskal Herriko Unibertsitaterako ekarpen arruntari dagokionez

Euskal Herriko Unibertsitaterako ekarpen arruntari dagokionez, kontsulta egiteko Batzorde Iraunkorra eratuko da. Batzorde horren helburua Euskal Herriko Unibertsitatearen finantzaketa-eredua ezartzeko oinarri gisa erabili diren zirkunstantzia objektiboei eustea edo haiek aldatzea izango da.

Batzordeko kideak honako hauek izango dira:

- a) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea; batzordeburua izango da.
- b) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordea.
- c) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Zientzia Politikarako zuzendaria.
- d) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Unibertsitateetako zuzendaria.
- e) Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak izendatutako hiru pertsona.
- f) Ogasun eta Finantza Sailaren ordezkari bat.

Honako hauek izango dira batzorde horren funtzioak:

- Urtero, Unibertsitatearen aurrekontuaren behin betiko likidazioa aztertzea.
- Euskal Herriko Unibertsitatearen finantzaketa-premiak aztertzea eta adostea nahikotasun-baldintzetatik abiatuta.
- Programa-kontratuen bitartez finantzatutako ekintzei dagozkien partida jakin batzuk aztertzea eta ekarpen arruntaren barruan sar daitezen proposatzea. Programa-kontratu horiek egiturazko bihurtuko dira eta unibertsitatearen ohiko jarduera osatuko dute.
- Interesgarritzat jotzen dituen gai guztien berri ematea.

Batzordeak gutxienez ohiko bi bilera egingo ditu urtean, bata apirilean eta bestea irailean.

Batzordeak aholkulari bereziak sartzeari erabaki dezake batzordeko kideekin lan egiteko. Era berean, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 22. artikulutik 27. artikuluraino ezarritako arauak jarraituz jardungo du batzordeak.

Unibertsitate pribatuetako programa-kontratuen jarraipen-batzordeak

Programa-kontratuak sinatzen direnetik zenbatzen hasita hilabeteko epean, hiru jarraipen-batzorde (batzorde bat Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate bakoitzeko) eratuko dira programa-kontratuan ezarritakoa behar bezala egin eta koordinatzen dela bermatzeko.

Programa-kontratuen jarraipen-batzordeetako bakoitza baliozki eratzeko, ezinbestekoa izango da batzordekide gehienen quoruma izatea.

Batzorde horien erabakiak gehiengo osoz hartu beharko dira.

Jarraipen-batzordearen bileretara bertaratu ahal izango dira, gai zehatzak aztertzeko, bertaratutakoen gehiengoak onartzen dituen pertsonak. Pertsona horiek hitza izango dute bileretan, baina botorik ez.

Jarraipen-batzorde bakoitzeko buruak honako funtzio hauek izango ditu:

1. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Unibertsitate Zuzendaritzari kudeaketa osoaren eta lortutako emaitza guztien berri ematea.
2. Unibertsitateek izendatutako ordezkariekin etengabe harremanak izatea, beren programa-kontratuen arduradun gisa.
3. Informazio-truke oro koordinatzea.

Jarraipen-batzordeek batzorde teknikoak sortu ahal izango dituzte; batzorde horietan, jarraipen-batzordeek agintzen dizkieten gaiak behar bezala aztertuko dira.

Batzorde teknikoetan hiru kide izango dira gutxienez, eta bost gehienez; jarraipen-batzordeek izendatuko dituzte, jakintza teknikoak edota zientifikoak kontuan hartuz.

Batzorde teknikoak jarraipen-batzordeetako buruek koordinatuko dituzte, eta haiek arduratuko dira beren jardunaren jarraipena egiteaz ere.

Deustuko Unibertsitatearen programa-kontratuen jarraipen-batzordeak

Deustuko Unibertsitateko Jarraipen Batzordeko kideak honako hauek izango dira:

- a) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea; batzordeburua izango da.
- b) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Administrazio eta Zerbitzuetako zuzendaria.
- c) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Zientzia Politikarako zuzendaria.
- d) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Unibertsitateetako zuzendaria.
- e) Deustuko Unibertsitateko errektoreak izendatutako hiru pertsona.
- f) Ogasun eta Finantza Sailaren ordezkari bat.

Mondragon Unibertsitatearen programa-kontratuen jarraipen-batzordeak

Mondragon Unibertsitateko Jarraipen Batzordeko kideak honako hauek izango dira:

- a) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea; batzordeburua izango da.
- b) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Administrazio eta Zerbitzuetako zuzendaria.
- c) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Zientzia Politikarako zuzendaria.
- d) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Unibertsitateetako zuzendaria.
- e) Mondragon Unibertsitateko errektoreak izendatutako hiru pertsona.
- f) Ogasun eta Finantza Sailaren ordezkari bat.

Euskal Herriko Unibertsitatearen programa-kontratuen eta Inbertsioen Urte Anitzeko Planaren Jarraipen Batzordea

Euskal Herriko Unibertsitatearen Inbertsioen eta Azpiegituren Urte Anitzeko Programarako eta programa-kontratueterako Jarraipen Batzorde bakarra eratuko da, eta honako kide hauek izango ditu:

- a) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea; batzordeburua izango da.
- b) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Administrazio eta Zerbitzuetako zuzendaria.
- c) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Zientzia Politikarako zuzendaria.
- d) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Unibertsitateetako zuzendaria.
- e) Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak izendatutako hiru pertsona.
- f) Ogasun eta Finantza Sailaren ordezkari bat.

Honako hauek izango dira batzorde horren funtzioak:

- Inbertsioen Urte Anitzeko Planari dagokionez,
 - Inbertsioen Urte Anitzeko Programari buruzko aldaketa oro proposatzea, 7.2 atalean ezarritakoaren arabera.
 - Inbertsioen Urte Anitzeko Programa egikaritzearen inguruko bilakaeraren berri izatea.
 - Programa hori ekitaldi bakoitzeko aurrekontu-baliabideetara egokitzen ote den jakitea.
- Programa-kontratuei dagokienez,
 - Programa-kontratuen jarraipen-batzordeetarako aurretik aipatzen ziren zereginak gauzatzea.

Jarraipen-batzordearen bileretara bertaratu ahal izango dira, gai zehatzak aztertzeko, kideen gehiengoak onartzen dituen pertsonak. Pertsona horiek hitza izango dute bileretan, baina botorik ez.

Kudeaketa-organoak

Planaren kudeaketa-organoak 2015-2018ko Unibertsitate Plana behar bezala garatu eta gauzatuko dela bermatzeaz arduratuko dira. Organo horiek Batzorde Zuzendaria eta Idazkaritza Teknikoa dira.

Batzorde Zuzendaria

Batzorde Zuzendaria planaren garapena bultzatzeaz eta sor litezkeen aukeren edo zailtasunen aurrean hura egokitzeke erabaki zuzenak hartzeaz arduratuko da.

Batzorde Zuzendaria Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak zuzenduko du, eta gutxienez urtean behin bilduko da.

Honako kide hauek izango ditu:

- a) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea.
- b) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordea.
- c) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Unibertsitateetako zuzendaria.
- d) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Zientzia Politikarako zuzendaria.

Batzorde Zuzendariari dagokio plana behar bezala gauzatzen dela bultzatzea eta sustatzea, betetzen dela ziurtatzea eta, hala badagokio, bidezko neurriak edo aldaketak proposatzea.

Idazkaritza Teknikoa

Idazkaritza Teknikoak Plana behar bezala garatzen dela ikusteko jarraipena egiteaz eta hura ebaluatzeaz arduratuko da, baita Batzorde Zuzendaria jakinaren gainean jartzeaz ere.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Unibertsitate Zuzendaritzak Planaren Idazkaritza Teknikoaren funtzioak hartuko ditu bere gain, eta honako zeregin hauek betetzeko ardura izango du:

- Planaren Batzorde Zuzendariari plana gauzatzearekin zerikusia duten alderdi guztien berri ematea.
- Burututako ekintzei eta helburuen betetze-mailari buruzko urteko txostenak prestatzea.
- Planean ezarritako jarraipen-batzordeen arteko harremanak eta informazio-trukeak koordinatzea.

Ebaluazioa

Unibasq

Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia unibertsitateen gaineko eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzaren Sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, euskal unibertsitate-sistemaren eremuko kalitatea ebaluatu, egiaztatu eta ziurtatzea helburu duena, Espainiako nahiz nazioarteko esparrua aintzat hartuta.

Helburu hori lortzeko, honako jarduera hauek garatu beharko dira:

- Euskal unibertsitate-sistemaren kalitatea hobetzen lagunduko duten jarduerak, honako alderdi hauetan: irakaskuntzan edo ikaskuntzan, ikerketan eta kudeaketan.
- Herri-administrazioei eta unibertsitateei erabakiak hartzeko prozesuetan informazioa eta irizpideak ematen dieten jarduerak.
- Gizarteari Euskal Unibertsitate Sistemaren lanari buruzko informazioa ematen dieten jarduerak.

Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legearen 79. artikulua bidez sortu zen Agentzia. 2005eko apirilaren 4an, Agentziaren Administrazio Kontseilua eratu zen, eta 2006ko ekainaren 1ean bere estatutuak onartu zituen. Estatutu horiek 2006ko uztailaren 10ean argitaratu ziren.

2009. urtean, aldaketa-prozesu bati ekin zitzaion Agentzian, Europako irizpide eta jarraibideetara egokitzeko, eta prozesu horren ondorioz, Agentziaren Estatutuak aldatu ziren eta Unibasq izen berria hartu zen.

Ilido horri jarraiki, 2012ko uztailaren 4an Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzko ekainaren 28ko 13/2012 Legea argitaratu zen.

Kontsulta

Hezkuntza eta ikerketa bultzatu eta sustatzea, eta jakintza gizarteari transmititzea hainbat eremu barne hartzen dituen zeharkako prozesu bat da, gizarte-bizitzaren arlo askotan eragiten duena. Horregatik, gobernantza-sistemak konplexua izan behar du, erakunde arteko lankidetzak eta elkarlana, neurrien osagarritasuna eta proiektuen bultzada koordinatua bideratu ahal izateko.

Jarraian deskribatuko ditugu horretarako erabiliko diren mekanismo formalak.

Euskadiko Unibertsitate Kontseilua

Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko Legeak xedatzen duenaren arabera, Euskadiko Unibertsitate Kontseilua Euskal Unibertsitate Sistema koordinatzeko organoa da, eta, orobat, Eusko Jaurlaritzaren kontsulta- eta aholku-organoa unibertsitate-gaietarako; honako funtzio hauek ditu:

- Jaurlaritzari, unibertsitateen gaietan eskumena duen sailari eta unibertsitate bakoitzari aurkezten dizkioten gai guztien inguruan aholku ematea.
- Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legea garatze aldera ematen diren xedapen orokorren proiektuen berri izatea.
- Jaurlaritzak berak jaso aurretik, unibertsitate berriak sortzeko edo onartzeko lege-proiektuen berri izatea.
- Unibertsitateko jakintza- eta prestakuntza-premien eta alderdi horietako gizarte-eskarien betetze-mailaren berri izatea eta ematea.
- Unibertsitate bakoitzean ezarritako tituluen eta ikasketa-planen egoerari eta bilakaerari buruzko informazioa jasotzea eta ematea eta, bereziki, titulu-sistema goi-mailako irakaskuntzaren Europako sisteman txerta dadin sustatzea.
- Unibertsitateei elkarren artean informazioa trukatzeko aukera ematea.
- Unibertsitateek batera jarduteko programak bultzatzea, nagusiki ikerketaren eremuari eta irakaskuntzan eta kudeaketan kalitatea ezartzeko eremuari dagokienez, eta unibertsitateak Europako zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-sisteman txerta daitezen sustatzea.
- Euskal kulturaren arloan beste unibertsitate batzuekiko lankidetzak-programak bultzatzea.
- Unibertsitateak, interes orokorreko programak gauzatze aldera, beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuekin elkarlanean aritu daitezen sustatzea. Bereziki, unibertsitateek enprekin dituzten harremanak sustatzea eta Jaurlaritzak eremu horretan abiarazten dituen ekimenen berri ematea.
- Ikasketetarako beken eta laguntzen arloko oinarrizko arauen berri ematea.
- Oro har, unibertsitateen arteko lankidetzari eta euskal unibertsitate-sistemaren kalitateari eta nahikotasunari dagokienez interesgarritzat hartzen diren gaien berri izatea, ematea eta horren inguruko proposamenak egitea.

- Unibertsitateen euskal sarea sustatzea, irakaskuntza, ikerketa eta kultura-ekimenak koordinatuz eta unibertsitate horietako ikasleen eta irakasleen mugikortasuna ahalbidetuz, euskara eta euskal kultura indartzearen.

Osaerari dagokionez, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko presidentea unibertsitateen arloan eskumena duen saileko sailburua izango da, eta unibertsitateen arloan eskumena duen sailburuordea, berriz, presidenteordea izango da. Honako hauek izango dira Kontseiluko kideak:

- Unibertsitateen arloan eskumena duen saileko sailburuak izendatutako bost batzordekide; horietako bat unibertsitateen arloan eskumena duen sailburuordea izango da.
- Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea.
- Euskal Unibertsitate Sistemako gainerako unibertsitateetako errektoreak.
- Unibertsitateen edo indarreko legeriarekin bat etorritik sortutako organo baliokideen gizarte-kontseiluak presidentek.
- Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak izendatutako bi batzordekide.
- Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten hiru lurralde historikoetako diputatu nagusiak, edo haiek eskuordetutako pertsonak.
- Euskadiko Udalen Elkarteko (Eudel) ordezkari bat.
- Gizarteko kide bat, unibertsitateen arlokoa ez dena, baina unibertsitateen ordezkari gisa jardungo duena. Kide hori Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren osoko bilkurak izendatuko du, presidentearen proposamenari jarraiki.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Kontseiluko presidentea.

Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua

Kontseilu hori unibertsitate-sistema publikoaren xedeak eta helburuak zehazteko aholkularitza- eta partaidetza-organoa da. Kontseiluko burua unibertsitateen arloan eskumena duen saileko sailburua edo hark eskuordetutako pertsona izango da, eta beste kide hauek ere izango ditu:

- Unibertsitateen arloan eskumena duen saileko sailburuak izendatutako sei batzordekide, saila ordezkatzuz.
- Euskal Herriko Unibertsitateko sei ordezkari: errektorea, errektoreak izendatutako gobernu-kontseiluko hiru kide –irakasleak, ikasleak eta administrazio eta zerbitzuak langileak ordezkatzuz– eta Gizarte Kontseiluak bere kideen artean izendatutako bi kide.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Kontseilua (ZTBK)

Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan goreneko organoa da zientzia-, teknologia-, ikerketa eta berrikuntza-politikaren aitzindaritzan, eta baita parte-hartzean eta aholkularitzan ere.

Sailen arteko Batzordea

